eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BIOLOGIA ZELULARRA ETA HISTOLOGIAKO SAILA
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA

# Ocoxin osagarri naturalaren eragin antitumorala pankreako minbiziko eta kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoko eredu esperimentaletan.

# The antitumoral effect of the natural supplement Ocoxin in experimental models of pancreatic cancer and hepatic metastasis of colorectal cancer.

**Iera Hernández Unzueta**

Leioa, 2020

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BIOLOGIA ZELULARRA ETA HISTOLOGIAKO SAILA
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA

# Ocoxin osagarri naturalaren eragin antitumorala pankreako minbiziko eta kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoko eredu esperimentaletan.

# The antitumoral effect of the natural supplement Ocoxin in experimental models of pancreatic cancer and hepatic metastasis of colorectal cancer.

**Iera Hernández Unzueta**

Leioa, 2020

**Lan hau Catalysis S.L. enpresak finantziatu du.**
This work has been financed by Catalysis S.L.

# ESKER ONAK / ACKNOWLEDGMENTS

Lehenengo eta behin, Joana eta Bea, eskerrak eman nahi dizkizuet nire tesiko zuzendari izateagatik, ikerketa biomedikoa zer den erakusteagatik eta lan hau zuen laborategian egiteko aukera emateagatik. Bereziki zuri eman nahi dizkizut eskerrak, Joana, nigatik egin duzun guztiagatik. Momentu onetan zein txarretan, beti entzuteko eta aholkatzeko prest egon zarelako eta inork baino gehiago lagundu didazulako ibilbide honetan. Eskerrik asko zure eskuzabaltasunarengatik eta mila esker nigan sinisteagatik.

Gracias también a vosotras, Alba e Irene, por todos las risas y los buenos momentos que hemos pasado el en laboratorio y por todo el apoyo técnico y sobre todo moral, sin el cual seguramente habría tocado fondo. Tampoco me olvido de Aitor, ni del resto de compañeros que han pasado por departamento, gracias por compatir vuestras experiencias y consejos y gracias por amenizar estos "interminables" años.

Aitetxu y Ama, no tengo palabras para agradeceros todo lo que haceis por nosotras y en particular por mí. Aunque no entendáis muchas de las cosas que hago, habéis permitido que haya podido seguir viviendo con todas las comodidades y sin tener que preocuparme de nada más que de labrarme un posible futuro como científica. Gracias por ayudarme a cumplir uno de mis mayores sueños.

Eskerrik asko zuri ere bai, June, nire lehenengo *paperra* argitaratu zenean ni bezain beste pozteagatik, argazkiekin laguntzeagatik, urte gogor hauek arinagoak egiteagatik eta (diru-kopuru txiki baten truke) nigatik EDOZER egiteko prest egoteagatik.

Eta zuoi, "señoritas" (ala "señoras" jada?), zer esan… zuek bezalako lagunik izango ez banu nork daki non egongo nintzatekeen ni orain… Leku batetik bestera ibili naizen arren ez zaituztet galdu, eta horrek asko dio zuei buruz. Eskerrik asko, Elena, tesia irakurtzeko ahalegina egiteagatik, eta eskerrik asko, Selene, zure hozkailuan niretzako lekutxo bat uzteagatik!!! Baina batez ere, eskerrik asko bioi bihotz-bihotzez nire euskarri izateagatik.

I also want to thank you, QPS people, Cristina and Adam for your help and your patience. There is nobody better than you to share my desperation with! Thank you for all the funny moments and for your "behavior". Keep always transmitting your happiness to the others, amigos! Y cómo no… Esti y Laura, gracias por ser tan buena gente. No sabeis cuanto os agradezco vuestro compañerismo, la ayuda post-QPS y esos momentos tan buenos que tuvimos fuera de la empresa. Danke schön!!!

Y por supuesto, gracias Cristina y Txus por resolvernos tantísimas dudas y por facilitarnos el trabajo. Mila esker!

Eskerrik asko denoi hau posible egiteagatik.

# AURKIBIDEA
# INDEX

# EDUKIEN AURKIBIDEA / CONTENT INDEX

# IRUDIEN AURKIBIDEA / FIGURE INDEX

# TAULEN AURKIBIDEA / TABLE INDEX

# LABURPENA
# SUMMARY

# LABURPENA

Minbizia gaur egun heriotza eragiten duen kausa nagusienetariko da. Kirurgia eta radioterapia zein kimioterapia bezalako tratamenduek gaixotasun hau murrizten laguntzen duten arren, pazienteek zehar-efektuak jasaten dituzte eta kasu askotan, ez da behin betiko sendabiderik posible izaten, batez ere kimioerresistentzia dela eta. Kolon-ondesteko minbizia (CRC) minbizi mota guztien artean hirugarren ugariena da, zeinak urtero heriotza asko eragiten dituen, batez ere gibeleko metastasiaren ondorioz. Bestalde, hain ohikoa ez den arren, pankreako minbiziak (PCA) ere garrantzia du minbizi hilgarrienetarikoa baita. Hori dela eta, tratamendu berriak frogatzen ari dira egungo terapiak hobetzeko. Horien artean, estrategietako bat, oinarrizko terapiei landareetatik erauzitako konposatu bioaktibo naturalak gehitzea da, hala nola, polifenolak, espeziak edota bitaminak, izan ere, emaitza onak lortu baitira. Zentzu honetan, Ocoxin, besteak beste, te berdez, kanelaz, erregaliz-estraktuz, bitaminez eta mineralez osaturiko konposatu naturala da zeinak minbiziaren tratamendurako onuragarriak izan daitezkeen propietate antioxidatzaileak, antiinflamatorioak eta immunoerregulatzaileak dituen. Aipatutakoa kontuan izanik, lan honetan konposatuaren eragina aztertu da PCAn eta CRCaren gibeleko metastasian, bai bakarrik, tumorearen aurkako agente bezala, eta baita kimioterapiarekin batera erabiltzeko ere tratamendu hauen eragina hobetzeko asmoarekin. Gure ikerketen arabera, alde batetik, Ocoxinek PCA eta CRC-ko zelulen bideragarritasuna murriztu zuen *in vitro,* zelulen proliferazioa gutxituz, apoptosia handituz eta ziklo zelularraren gelditzea eraginez G2/M fasean. Gainera, Ocoxinek PCAko tumoreak ez ezik, CRCaren gibeleko tumore metastasikoak ere txikiagotu egin zituen eta metastasi zelulen migrazioa ere inhibitu zuen. Horrez gain, minbizia inflamazio kronikoarekin, batez ere pankreatitisa eta hepatitisarekin, hertsiki loturik dagoela jakinda, Ocoxinek gaixotasunaren garapenean eragin handia duten tumorearen mikroingurumeneko (TME) inflamazio-bitartekarien kontzentrazioa modulatu zuen. Are gehiago, osagarri naturalak minbiziarekin zenbait generen espresioa erregulatu zuen,

haien artean minbiziarekin erlazionatuta daudenena ere bai. Beste alde batetik, Ocoxin kimioterapiaren osagarri bezala erabili zen, tratamenduak sarritan ez baitira eraginkorrak izaten TMEak tumoreari eskaintzen dion sostenguaren ondorioz. Beraz, Ocoxinek irinotekan, paklitaxel eta genzitabinaren eragina hobetzeko, TMEak eragindako kimioerresistentzia deuseztatzeko eta zehar-efektuak arintzeko gaitasunik zuen aztertu zen PCAn eta CRCaren metastasi hepatikoan. Ocoxinek kimioterapiaren efektua indartu egin zuen zelulen proliferazioa are gehiago murriztuz eta kimioerresistentzia ezereztu egin zuen. Are gehiago, Ocoxin minbizi zeluletan estromako zeluletan baino kaltegarriagoa izan zen eta orobat, tumorearen garapena faboratzen duten fibroblastoengandik eratorritako faktore soluigarrien efektua inhibitzeko gaitasuna duela frogatu zen *in vitro*. Halaber, osagarri nutrizionalak fibroblasto eta makrofagoen migratzeko gaitasuna eta hauen infiltrazioa murriztu zituen gibeleko tumore metastasikoetan. Amaitzeko, kimioterapia eta Ocoxinen konbinazioarekin tratatuak izan ziren saguek, kimioterapia bakarrik jaso zuten animaliek baino ongizate hobea aurkeztu zuten. Hortaz, Ocoxin farmako kimioterapikoen eragina areagotzeko eta kimioerresistentziari aurre egiteko erabili litekeen konposatua da, terapia hauek eragindako zehar-efektuak arintzen dituen bitartean.

# SUMMARY

Cancer is one of the principal causes of death nowadays. Although surgery or treatments like radiotherapy or chemotherapy help to reduce this disease, patients suffer undesired side-effects and, in many cases, there is still not any definitive cure due to chemoresistance. In this regard, colorectal cancer (CRC) is the third most common cancer causing a great amount of deaths every year principally due to the liver metastasis, and moreover, although it is not that common, pancreatic cancer (PCA) is one of the most mortal cancers. Thus, new treatments are being tested in order to improve current therapies. One of the strategies adopted currently is the addition of natural bioactive compounds obtained from plants like polyphenols, spice extracts, or vitamins among others to the first line therapies, which have showed promising results. In this regard, Ocoxin is a nutrient mixture composed, among others, by green tea, cinnamon and licorice extract, vitamins and minerals with proven antioxidant, anti-inflammatory and immunoregulatory properties that could be useful to treat cancer. Hence, its effects were studied alone as an anti-tumor agent and also as a coadjuvant treatment to improve chemotherapy in PCA and liver metastasis of CRC. On the one hand, Ocoxin decreased the viability of PCA and CRC cells *in vitro* by enhancing apoptosis by reducing cell proliferation and by causing a cell cycle arrest in G2/M phase. Furthermore, it reduced PCA tumors *in vivo* and together with an inhibition of the migratory capacity of CRC cells, decreased metastatic tumor foci in mice. Lastly, Ocoxin modulated the presence of inflammatory mediators in the tumor microenvironment (TME), which are a key factor in tumor development since chronic inflammation, especially pancreatitis and hepatitis, has been tightly associated with cancer and regulated the expression of certain genes, some of them altered in cancer. On the other hand, Ocoxin was used to complement chemotherapy. Frequently, this kind of treatment results ineffective owing to the contribution of the TME which supports tumor development. Thereupon, we analyzed the effect of Ocoxin in order to improve the cytotoxic effect of irinotecan, paclitaxel and gemcitabine

in liver metastasis of CRC and PCA respectively, as well as, to revert chemoresistance and to relieve the adverse-effects. In this regard, the nutritional mixture enhanced the anti-proliferative effect of chemotherapy in PCA and CRC cells and also showed to revert chemoresistance. Moreover, we proved that the supplement inhibited the pro-tumoral effect of fibroblast-derived soluble factors *in vitro* but it did not affect to healthy stromal cells as much as to cancer cells. Lastly, we also observed that the compound impaired fibroblast and macrophage migration and that decreased infiltration of both into metastatic liver tumors. Finally, we also detected that mice treated with the coadjuvant therapy showed better welfare than the animals that received the chemotherapeutic drug alone. In conclusion, Ocoxin could be a suitable compound to enhance the action of chemotherapeutic drugs and also to revert chemoresistance together with a relief of the side-effects caused by this therapies.

# LABURDURAK
# ABBREVIATIONS

**Laburdurak / Abbreviations**

| | |
|---|---|
| **5-FU** | **5-Fluorouracil**<br>5-Fluorouraziloa |
| **α-SMA** | **α-Smooth Muscle Actin**<br>Muskulu leunaren α-aktina |
| **AEEB** | **Ethics Comitee on Animal Testing**<br>Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordea |
| **AML** | **Acute Myeloid Leukemia**<br>Leuzemia Mieloide Akutua |
| **CAF** | **Cancer Associated Fibroblast**<br>Minbiziari loturiko fibroblastoak |
| **cDNA** | **Complementary DNA**<br>DNA osagarria |
| **CFSE** | **Carboxyfluorescein succinimidyl ester**<br>Karboxifluoreszein sukzinimidil esterra |
| **CM** | **Conditioned Medium**<br>Medio baldintzatua |
| **COX** | **Cyclooxigenase**<br>Ziklooxigenasa |
| **CRC** | **Colorectal Cancer**<br>Kolon-ondesteko minbizia |
| **cRNA** | **Complementary RNA**<br>RNA osagarria |
| **Ct** | **Cycle Threshold**<br>Ziklo atalasea |
| **Cy3-CTP** | **Cyanine 3 – Cytidine triphosplate**<br>Zianina 3 - zitidina trifosfatoa |
| **DAB** | **3,3'-Diaminobenzidine**<br>3,3'-Diaminobenzidina |
| **DAPI** | **4',6-diamidino-2-phenylindole**<br>4',6-diamidino-2-fenilindola |
| **DC** | **Dendritic cell**<br>Zelula dendritikoa |
| **DMSO** | **Dimethyl sulfoxide**<br>Dimetilsulfoxidoa |
| **dNTP** | **Deoxyribonucleotide triphosphate**<br>Deoxierribonukleotido trifosfatoa |
| **ECM** | **Extracellular Matrix**<br>Matrize estrazelularra |

**Laburdurak / Abbreviations**

| | |
|---|---|
| **EDTA** | **Ethylenediaminetetraacetic acid**<br>Etilenodiaminatetraazetiko azidoa |
| **EGCG** | **Epigallocatechin-3-gallate**<br>Epigalokatekina-3-galatoa |
| **EGFR** | **Epidermal Growth Factor Receptor**<br>Hakuntza Faktore Epidermalaren Errezeptorea |
| **ELISA** | **Enzyme-Linked ImmunSorbent Assay**<br>Entzimei loturiko immunoabsortzio entsegua |
| **EMT** | **Epithelial-to-Mesenchimal Transition**<br>Epiteliotik mesenkimalerako trantsizioa |
| **F(ab)** | **Fragment antigen-binding**<br>Antigenoari lotzen zaion zatia |
| **FBS** | **Fetal Bovine Serum**<br>Behi Serum Fetala |
| **F(c)** | **Fragment crystallizable**<br>Zati kristalizagarria |
| **FELASA** | **Federation for Laboratory Animal Science Associations**<br>Zientziarako laborategi animalien elkarteen federazioa |
| **FITC** | **Fluorescein-5-isothiocyanate**<br>Fluoreszeina-5-isotiozianatoa |
| **FOLFIRI** | **Folinic acid, fluorouracil and irinotecan**<br>Azido folinikoa, fluorouraziloa eta irinotekana |
| **FOLFIRINOX** | **Folinic acid, fluorouracil irinotecan and oxaliplatin**<br>Azido folinikoa, fluorouraziloa, irinotekana eta oxaliplatinoa |
| **FOLFOX** | **Folinic acid, fluorouracil and oxaliplatin**<br>Azido folinikoa, fluorouraziloa eta oxaliplatinoa |
| **GLOBOCAN** | **Global Cancer Observatory**<br>Minbizi Globalaren Behatokia |
| **H+L** | **Heavy and light**<br>Astun eta arina |
| **H&E** | **Hematoxylin and eosin**<br>Hematoxilina eta eosina |
| **HCC** | **Hepatocellular carcinoma**<br>Kartzionoma hepatozelularra |
| **HIF** | **Hypoxia Inducible Factor**<br>Hipoxiaren bidezko faktore induzitzailea |
| **HRP** | **Horseradish Peroxidase**<br>Basaerrefauaren peroxidasa |

**Laburdurak / Abbreviations**

| | |
|---|---|
| **HSC** | **Hepatic Stellate Cell** |
| | Gibeleko Zelula Izartsua |
| **IFN** | **Interferon** |
| | Interferoia |
| **IgG** | **G immunoglobulin** |
| | G immunoglobulina |
| **IL** | **Interleukin** |
| | Interleukina |
| **KC** | **Kupffer Cell** |
| | Kupffer zelula |
| **LSEC** | **Liver Sinusoidal Endothelial Cell** |
| | Gibel Endotelioko Zelula Sinusoidala |
| **MDSC** | **Myeloid derived Stem Cell** |
| | Mieloidetik eratorritako zelula ama |
| **MHC** | **Major Histocomplatibility Complex** |
| | Histobateragarritasun konplexu nagusia |
| **MMP** | **Matrix Metalloprotease** |
| | Matrizeko Metraloproteasa |
| **mRNA** | **Messenger RNA** |
| | RNA mezularia |
| **NAB** | **130-nanometer albumin-bound** |
| | 130-nanometroko albuminari loturik |
| **NK** | **Natural Killer Cell** |
| | Zelula hiltzaile naturalak |
| **NKT** | **Natural Killer T cell** |
| | T zelula hiltzaile naturala |
| **PBS** | **Phosphate buffered saline** |
| | Gatz fosfato tanpoia |
| **PCA** | **Pancreatic Cancer** |
| | Pankreako minbizia |
| **PI** | **Propidium Iodide** |
| | Propidio ioduroa |
| **PSC** | **Pancreatic Stellate Cell** |
| | Pankreako Zelula Izartsua |
| **qPCR** | **Quantitative polymerase chain reation** |
| | Polimerasaren kate-erreakzio kuantitatiboa |
| **ROS** | **Reactive Oxygen Species** |
| | Oxigenoaren espezie erreaktiboak |

**Laburdurak / Abbreviations**

| | |
|---|---|
| **RT** | **Reverse transkription**<br>Alderantzizko transkripzioa |
| **SCLC** | **Small Cell Lung Cancer**<br>Biriketako zelula txikien minbizia |
| **SEOM** | **Sociedad Española de Oncología Médica**<br>Espainiako Onkologia Medikoaren Sozietatea |
| **SV40** | **Simian Virus 40**<br>40 tximu birusa |
| **TAM** | **Tumor Associated Macrophage**<br>Tumoreari loturiko makrofagoa |
| **TMB** | **3,3',5,5'-Tetramethylbenzidine**<br>3,3',5,5'-Tetrametilbenzidina |
| **$T_C$** | **Cytotoxic T cell**<br>T zelula zitotoxikoa |
| **TGF** | **Transforming Growth Factor**<br>Hazkuntza Faktore Transformatzailea |
| **$T_H$** | **T helper cell**<br>T zelula laguntzailea |
| **TIMP** | **Metalloprotease Inhibitor**<br>Metaloproteasen inhibitzailea |
| **TMB** | **3,3',5,5'-tetramethylbenzidine**<br>3,3',5,5'-tetrametilbentzidina |
| **TME** | **Tumor Microenvironment**<br>Tumore mikroingurumena |
| **TNF** | **Tumor Necrosis Factor**<br>Tumorearen Nekrosi Faktorea |
| **TRAIL** | **Tumor Necrosis Factor-related apoptosis-inducing ligand**<br>Tumorearen nekrosi faktoreari loturiko apoptosiaren ligando induzitzailea |
| **$T_{REG}$** | **T regulatory cell**<br>T zelula erregulatzailea |
| **VEGF** | **Vascular Endothelial Growth Factor**<br>Endotelio baskularraren hazkuntza faktoria |
| WHO | **World Health Organization**<br>Munduko Osasun Erakundea |

# I. SARRERA
# I. INTRODUCTION

# 1. MINBIZIA

## 1.1. MINBIZIAREN OROKORTASUNAK

Gaur egun heriotza dakarren gaixotasun nagusienetariko bat minbizia da, herrialde garatuetan hirugarren kausa hain zuzen ere, gaixotasun kardiobaskularren eta dementzien ostean (World Health Organization, WHO, 2016). Hori dela eta, ikertzaileak ahalegin handia egiten ari dira minbiziak nola diharduen ulertu ahal izateko eta bere aurkako terapia berriak garatzen saiatzeko, izan ere, egun erabiltzen diren farmakoak askotan ez dira gaixotasunari aurre egiteko gai izaten.




**1. Irudia. Minbizi kasu desberdinen intzidentzia eta hilkortasuna.** A) Minbizi kasu ugarienen datuak mundu mailan 2018. urtean. B) Minbizi kasu ohikoenen datuak Espainian 2017an. *Global Cancer Observatory, GLOBOCAN, 2018; Sociedad Española de Oncología Médica, SEOM, 2018*. *Azaleko minbizien artean melanoma ez da kontuan hartu.

Mundu mailan, 2018. urtean intzidentzia handiena izan zuten minbiziak biriketakoa, bularrekoa, kolon-ondestekoa (ingelesez *Colorectal Cancer*, CRC), melanoma ez den azaleko minbizia, urdailekoa, gibelekoa eta esofagokoa izan ziren besteak beste (Bray et al., 2018) (1. irudia). Espainia mailan, ordea, CRC izan zen gehien diagnostikatu zena 2017. urtean, atzetik prostatakoa, bularrekoa eta biriketakoa zeudelarik (Sociedad Española de Oncología Médica, SEOM, 2018). Hala ere, hilkortasunari dagokionez munduan bularreko minbizia da lehen postuan dagoena, jarraian CRC, prostatakoa, biriketakoa eta

tiroidekoa daudelarik (Bray et al., 2018). Espainian, aldiz, minbizi ohikoenak biriketakoa eta CRC diren arren, heriotza eragiten duen hirugarren minbizi mota pankreakoa da (ingelesez *Pancreatic Cancer*, PCA) (SEOM, 2018) (1. Irudia). Horiek horrela, nahiz eta intzidentzia baxua izan, minbizi batzuk oso agresiboak dira eta momentuz ez dago bizi-itxaropena luzatzeko aukerarik.

## 1.2. TUMOREAREN GARAPENA ETA METASTASIA

Minbizia gaixotasun heterogeneoa da, zelulen alterazioaren ondorioz beraien etengabeko hazkuntza eragiten duena, azkenean tumore bat eratzen delarik. Masa hori toki bakar batean eta kapsulaturik hazten bada organoan kalterik eragin gabe, onbera izan daiteke. Edozein modutan, tumorea etengabe haziz gero, ondoko ehunak inbaditzen baditu edo gorputzaren funtzioren bat asaldatzen badu, orduan minbizi izena hartzen du.

Ohikoena, tumorea zelula bakan batetik sortzea da, mutazioen metaketa pairatu duen zelula batetik zehazki. Ingurumen-faktoreek, faktore hereditarioek edota zelularen erreplikazio prozesuan sortutako akatsek mutazio genetikoak zein aldaketa epigenetikoak eragin ditzakete, hala nola, proteina kaltegarri berrien agerpena sortuz, proteinen funtzionamendu egokia galaraziz tumore-supresoreen inhibizioa eta onkogeneen aktibazioa suspertuz esaterako, edota geneen deregulazioa bultzatuz. Ondorioz, tumore zelulak bizirik jarraitzeko seinaleak jasotzen ditu eta hortaz, mekanismo desberdinak aktibatzen dira ziklo zelularraren kontrolik gabe zatitzen hasteko edota apoptosi prozesuak saihesteko. Horrez gain, zelula hauek organismoaren immunitate-sistema gainditzea lortzen badute azkenean tumore primario bat eratuko da. Are gehiago, eratutako tumore primariotik abiatuz ondoko ehunak inbaditzen hasi daitezke metastasia sortuz.

Metastasia minbizi zelulak tumore edo foku primariotik askatu, odol hodietara bidaiatu eta bertatik, beste organo berri bat kolonizatzen dutenean gertatzen da (2. Irudia). Horretarako, lehenengo eta behin minbizi zelulek ondoko zelulekin duten atxikidura loturak apurtu behar dituzte. Gero, matrize estrazelularra (ingelesez *Extracellular Matrix*, ECM) degradatu behar dute eta ondoren, intrabasazio bidez endotelioa zeharkatu behar dute odol hodietan barneratzeko. Behin odolean egonik, korronteak bultzatuta organismoan zehar bidaiatuko dute non, momentu zehatz batean, zelula endotelialei berriro atxikituko zaizkien. Orduan, tumore zelulek endotelioa estrabasatu egingo dute organo berri baten kolonizazioari hasiera emanez (Chambers et

al., 2002). Normalean, organismoa ECMren degradazioa, intrabasazioa, migrazioa, endotelioarekiko itsaspena, estrabasazioa, kolonizazioa eta inbasioa ekiditeko gai da barrera anatomiko, metaboliko eta immunitate-sistemari esker. Nolanahi ere, tumore-zelula gutxi batzuek oztopo horiei aurre egin diezakete mikro-mestastasia sortuz eta batzuetan minbizia gehiago garatu daiteke makro-metastasiak eratuz) (Chambers et al., 2002).




**2. Irudia. Metastasi prozesuaren eskema.** Minbizia ehun osasuntsu batean zelula arrotz bat etengabe zatitzen hasi eta tumorea osatzen duenean sortzen da (1-4). Kasu batzuetan tumore horretako zelula batek bere lotura zelularrak apurtu eta odo hodietaraino migratu dezake, odol hodi bati atxikitzen zaion arte (5-6). Behin bertan, intrabasazio bidez, tumore-zelula odolera pasatzen da (7-8) eta honek gorputzean zehar garraiatzen du, azkenean estrabasazio bidez odol hoditik ateratzen delarik (9-10). Beste organo batera heldu den zelula hori zatitzen hazten bada eta organo berria kolonizatzen badu metastasia gertatu dela esaten da (11-13). *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.*

Zoritxarrez, minbizia gero eta arruntagoa da, eta etorkizunari begira, gaixotasun honen kasuak igotzen jarraituko dutela estimatzen da (Global Cancer Observatory, GLOBOCAN, 2018). Nahiz eta askotan egungo terapia eta farmakoek tumorearen aurka ondo jarduten duten, batzuetan pronostikoak ez dira onak izaten minbizi zelulak gorputzean zehar barreiatu direlako metastasi gune berriak sortuz, edota tumore zelulak kimioterapiarekiko erresistenteak direlako. Azken urteotako ikerketen arabera, kimioerresistentzia hori tumore-zelulen mutazioak direla eta, edota tumorea bera inguratzen duten zelulen laguntzaren ondorioz sortzen da (Phi et al., 2018; Yeldag et al., 2018). Alegia, minbizi zelulek bere inguruan dauden bestelako zelulen gain eragiten dute, zelula osasuntsu horiek beraien fenotipoa aldatzen dutelarik tumorearen alde joka dezaten (Sounni & Noel, 2013). Tumorearen inguruan aurkitzen diren elementu guztien multzoari

tumore mikroingurumena (ingelesez *Tumor Microenvironment*, TME) deritzo eta tumore zelulak ez ezik, fibroblastoak, makrofagoak, immunitate-sistemako zelulak, zelula endotelialak eta hauek guztiek jariatzen dituzten faktoreek osatzen dute.

# 2. TUMOREAREN MIKROINGURUMENA

Ezaguna da TMEak eragina duela minbiziaren garapenean. TMEa tumore zelulez gain, haiek inguratuz ageri diren osagaiek eratzen dute, hala nola, ECMak, zelula estromalek, linfa- eta odol-sistemak eta bestelako molekulek.

Tumore zelulak, hortaz, ECM-z inguraturik ageri dira, zeinak sostengua eskaintzen dion bai ehun osasuntsuari eta baita tumore, zein gainerako zelula estromalei ere. Estromako zelulen artean fibroblastoak, immunitate-sistemako zelulak eta zelula endotelialak aurki daitezke besteak beste (Wang, M. et al., 2017) (3. Irudia).




**3. Irudia. Tumorearen mikroingurumeneko osagai zelularren eskema.** Tumore zelulez gain, tumorearen mikroingurumenean beste hainbat zelula mota aurkitzen dira. Hauen artean fibroblastoak, odol hodiak eratzen dituzten zelula endotelialak eta immunitate-sisteman parte hartzen duten zelula desberdinak daude, hala nola, zelula dendritikoak, makrofagoak, natural killer zelulak, linfozitoak eta leukozitoak besteak beste. *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.*

Hauek guztiak, egoera osasuntsuan tumorigenesi eta inbasioaren aurrean organismoari babesa eskaintzen dioten arren, tumorearekin elkarrekintzan daudenean beraien portaera aldatzeko gaitasuna dute. Tumore zelulekin batera, estromako zelulek hantura, desmoplasia (ehun konektiboaren gehiegizko ekoizpena, batez ere kolagenoarena), immunosupresioa eta geneen deregulazioa eragin dezakete, minbiziaren garapena areagotu egiten delarik (Coulouarn et al., 2012; Feig et al., 2012; Rupaimoole et al., 2016). Azken finean, tumore baten patua zehaztuko duena osagai hauen guztien konbinazio eta interakzioa izango da.

## 2.1. TUMOREAREN MIKROINGURUMENEKO ZELULAK

### 2.1.1. Tumore-zelulak

TMEan osagai nagusia tumore-zelulak dira. Aurrerago aipatu dugun bezala, tumore-zelulak mutazio desberdinen metaketaren ondorioz sortzen dira. Berez, organismoa zelula anomalo hauek detektatzeko eta deuseztatzeko gai da, baina tumore-zelula batzuek oztopo guztiak gainditzen dituzte eta hazteari ekiten diote minbizia sortuz. Hazkuntza hori errazteko tumore-zelulek zitokina eta hazkuntza faktore desberdinak ekoizten dituzte beraien zatiketa mantentzeko, heriotza zelularra ekiditeko, minbiziaren garapenean laguntza eskainiko dieten zelulak erreklutatzeko eta azken finean minbiziaren sakabanapena errazteko (Bussard et al., 2016; Pickup et al., 2014).

Tumorea hazten doan heinean tumore-masaren barneko aldean geratzen diren zelulek nutrienteak eta oxigenoa lortzeko zailtasunak izaten dituzte, hortaz, hipoxia egoera sortzen da. Ondorioz, tumore zelulek masa horren inguruan odol-baso berriak sortzea ahalbidetuko duten faktoreak jariatzen dtuzte, hau da angiogenesia bultzatzen dute(Arvelo & Cotte, 2009). Honi esker, sortu berri diren odol-basoek, tumore zelulak beharrezko dituzten osagaiez hornitzeaz gain, beste organo batera garraiatzeko aukera gehiago ematen dizkiete (Arvelo & Cotte, 2009; Chambers et al., 2002). Bestalde, minbizi-zelulen hazkuntza etengabeak eragindako hipoxia dela eta, tumore guneetan oxigeno espezie erreaktiboen (ingelesez *Reactive Oxygen Species*, ROS) metaketa gertatzen da zelula osasuntsuak kaltetu egiten dituelarik tumore zelulekiko egoera onuragarriagoa sortzen duen bitartean (Tafani et al., 2016).

### 2.1.2. Minbiziari loturiko fibroblastoak

Gaur egun nabarmenki aztertzen ari diren TMEko osagai bat minbiziari loturiko fibroblastoak dira (ingelesez *Cancer-Associated Fibroblast*, CAF). Fibroblasto arruntak ECMan egoera latentean aurkitzen dira eta ez dute uzkurtzeko gaitasunik izaten. Zauria edo ehunaren kalteren bat somatutakoan, ordea, inflamazio prozesuari hasiera ematen zaio eta fibroblasto batzuek aktibazioa jasaten dute miofibroblasto bilakatzen direlarik (Haqq et al., 2014; Sherman, 2018). Hauen zeregin nagusia zauriak itxi eta ECMa berrantolatzea izanik, α-muskulu leuneko aktina (ingelesez *α-Smooth Muscle Actin*, α-SMA) espresatzen dute zeinak uzkurtzeko eta beraz migratzeko gaitasuna ematen dien. Gainera, miofibroblastoek ECMa birmoldatzeko ahalmena ere lortzen dute, matrizea degradatzen duten metaloproteinasak (ingelesez *Matrix Metalloproteinase*, MMP), beraien inhibitzaileak (ingelesez *Tissue Inhibitor of Metalloproteinase*, TIMP) eta kolagenoa, elastina eta fibronektina bezalako proteinak ekoiztuz (Attieh & Vignjevic, 2016; Liu, T. et al., 2019).

Fibroblastoek egoera osasuntsuan zauriaren orbaintzean laguntzen dute arren, jasaten duten aktibazioa eteten ez bada, ECM gehiegi jariatzen hasiko dira, azkenean hantura prozesu jarraitua eta fibrosia sortu delarik. Minbiziaren kasuan hain zuzen ere, prozesu berdina behatu izan da eta horregatik minbizia “osatzen ez den orbain” bezala izendatu izan zen (Dvorak, 1986). Hortaz, lehenago azaldu dugun moduan, minbiziarekin erlazionatuta azaltzen diren fibroblastoak CAF izenez ezagutzen dira.

Pankrean, gibelean, biriketan eta giltzurrunetan fibroblasto berezi batzuk aurkitu izan dira, aurkezten duten forma bereizgarriarengatik zelula izartsu deritzenak (Haqq et al., 2014; Ireland et al., 2016; Sherman, 2018). Zelula hauek normalean egoera latentean egoten dira eta A bitamina metatzen dute retinil ester moduan lipido tantetan. Alabaina, aktibazioa jasaten dutenean, aurrerago aipatutako miofibroblastoen fenotipoa erakusten dute. Pankreako zelula izartsuak (ingelesez *Pancreatic Stellate Cell*, PSC) eta gibeleko zelula izartsuak (ingelesez *Hepatic Stellate Cell*, HSC) fibrosia eragiteaz gain minbiziaren progresioa errazten dutela frogatu da bai tumorearen hazkuntza areagotuz, bai tumorearen kontrako organismoaren mekanismoen edota terapia desberdinen aurka jokatuz (Liu, R. X. et al., 2017; McCarroll et al., 2014; Tommelein et al., 2015; von Ahrens et al., 2017). Are gehiago, PSC eta HSCek metastasi prozesuan laguntzen dutela ere behatu da (Huang et al., 2019; Xu, Z. et al., 2014).

PSC eta HSCen aktibazioa tumore zelulek edota tumorea infiltratu duten immunitate zelulek jariatutako hazkuntza faktoreek, zein TMEko gainerako zelulek jariatutako zitokinek eragindakoa izaten da (Allam et al., 2017; Kalluri, 2016; Tsuchida & Friedman, 2017). Ondorioz, PSC eta HSCak matrizea birmoldatzen hasten dira eta ECM zurrunagoa eratzen dute (Attieh & Vignjevic, 2016). Horregatik, CRC-ko gibeleko metastasiaren eta batez ere PCAren ezaugarrietako bat fibrosia da (Sherman, 2018). Modu honetan, bai PSC, bai HSCek kimioterapikoekiko erresistentzian garrantzia dutela frogatu dute jariatutako kolageno ugariaren ondorioz sortutako ECM zurrunak, kimioterapia tumore zeluletaraino heltzea galarazten baitute (Liang, C. et al., 2018). Are gehiago, ECMaren zurruntasunak tumoreetan eratzen den hipoxia maila ere handitu egiten du angiogenesia areagotuz (Couvelard et al., 2005; Valfre di Bonzo et al., 2009) eta ROSen metaketa eraginez (Arvelo & Cotte, 2009) minbizi desberdinetan eta baita pankrea eta gibelean ere. Bestalde, ECMa birmoldatzeaz gain, CAFek endotelio baskularraren hazkuntza faktorea (ingelesez *Vascular Endothelial Growth Factor*, VEGF) ekoizten dute angiogenesia are gehiago bultzatzeko (Valfre di Bonzo et al., 2009). Molekula honek zelula endotelialen erreklutamendua eragiten du odol baso berriak eratzeko (Olaso et al., 2003) eta horrekin batera tumorearen hazkuntza areagotzeko.

Azkenik, aipagarria da CAFek immunitate zelulak erreklutatzeko gaitasuna daukatela (Kalluri, 2016; Sherman, 2018) eta, aldi berean, immunosupresioa bultzatu dezaketela makrofagoen metaketa bultzatuz (Takahashi et al., 2017) edota linfozito zitotoxikoen hazkuntza geldituz (Aras & Zaidi, 2017).

### 2.1.3. Immunitate-sistemako zelulak

Immunitate-sistema organismoan sartzen diren gorputz arrotzak deuseztatzeaz arduratzen diren zelula mota desberdinez osaturik dago. Minbiziaren hasierako faseetan immunitate-sistemako zelulek, tumore-zelulak hautematen dituzte eta beraien aurka jotzen dute organismoa osasuntsu mantentzeko. Hala ere, zoritxarrez, gaixotasunak aurrera egitea lortzen badu, tumorea garatu ahala immunitate zelulek aldaketa fenotipikoa jasaten dute eta tumorearen aldeko funtzioak betetzen hasten dira (Henze & Mazzone, 2016). Tumorearen barnean infiltratzen diren immunitate zelulak linfozitoak, Natural Killer zelulak (NK), makrofagoak, neutrofiloak eta zelula dendritikoak dira besteak beste (Ben-Baruch, 2006; Gonzalez et al., 2018).

Hasteko, minbiziaren aurkako terapia berrien ikerketetan linfozitoek garrantzia handia dutela behatu da; haien artean, T linfozito zitotoxikoek (ingelesez *Cytotoxic T* cell, $T_c$), T linfozito laguntzaileek (ingelesez *T helper cell*, $T_h$) eta T linfozito erregulatzaileek (ingelesez *Regulatory T cell*, $T_{reg}$)(Ruffell et al., 2010) dute eginkizun nagusia. Lehenengoek, zelula arrotzak ezagutu eta apoptosira bultzatzen dituzte, bigarrenek, bestelako immunitate zelulak estimulatzen dituzte eta erantzun immunea koordinatzen dute eta hirugarrenek, erantzun immunologikoa murriztu egiten dute edota prozesuari amaiera ematen diote. Bestalde, TMEan NK zelula izeneko linfozito berezi batzuk ere aurki daitezke. NK zelulen eta T linfozitoen arteko desberdintasun nagusia espezifikotasuna da; T linfozitoek antigeno zehatz bat ezagutzen duten bitartean, NK zelulek transformaturik edo infektatuta dagoen edozein zelula lisatzeko gaitasuna dute perforina edota granzima izeneko entzima litikoak jariatuz (Gonzalez et al., 2018). Linfozitoen kasuan, aktibazio errezeptoreek antigeno desberdinak ezagutzen dituzte, zeintzuek zelula arrotz baten epitopoekin bat egitean, erantzun immunea pizten duten. Zehazki, zelulek antigeno arrotzak I klaseko Histokonpatibilitate Konplexu Nagusiaren (ingelesez *Major Histocompatibility Complex,* MHC) peptido antigenikoekin batera aurkezten dituzte, bi osagaiez eratutako konplexu hau izaten delarik linfozitoek ezagutzen dutena. Minbizi zelulek mutaziodun proteinak, onkogene, zein gene tumore supresoreen proteinak, gainespresaturiko genen produktuak edota organo zehatz batean espresatzen ez diren proteinak aurkezten dituzte tumore antigeno bezala. $T_c$ linfozitoek, beraien errezeptoreen bidez antigeno hauek ezagutu egiten dituzte eta aktibatu egiten dira zelula horren lisia eragiteko. NK zelulen kasuan, aldiz, aktibazio eta inhibizio errezeptoreak daude. $T_c$ linfozitoetan ez bezala, NK zeluletan I klaseko MHCa ezagutzen duen errezeptoreek erantzun immunearen inhibizioa eragiten dute, eta horregatik zelula hauek bestelako aktibazio errezeptoreak ere aurkezten dituzte. NKek I klaseko MHCaren peptido antigenikoak ezagutzen dituenean, zelula horiek berezko zelulatzat identifikatuko ditu eta ez du beraien aurka egingo, hau da, erantzun immunea inhibitu egingo da. Modu berean, zelula arrotz batek I klaseko MHC antigenoen espresioa murrizturik aurkezten badu eta aktibazio errezeptoreek ezagutzen dituzten ligandoen kopurua ugariagoa bada, inhibizio seinalea galdu egingo da eta ezohikoa den zelula hori lisatu egingo du.

Hortaz, tumorearen aurkako erantzunari dagokionez $T_c$ eta NK zelulak biziki aztertu izan dira, minbizi zelulak zuzenean hiltzeko gaitasuna dutelako (Ruffell et al., 2010). Ostera, gainerako linfozitoek ere tumorearen garapenean

garrantzia dutela behatu da. Adibidez, minbizi batzuen estroman $T_{reg}$ ugari dagoela behatu izan da, ingurumen immunosupresorea sortuz, Tc-en inaktibazioaz arduratzen baitira(Ohue & Nishikawa, 2019). Modu berean $T_h$-ek ere tumorearen hazkuntza baldintzatu dezakete, izan ere, kaltetutako zelulak hiltzeaz gain, makrofagoak eta bestelako zelula efektoreak erreklutatzeaz arduratzen baitira (Knutson & Disis, 2005). Dena dela, kontutan izan behar baita, linfozitoak ez direla beraien kabuz aritzen eta ingurunean aurkituko dituzten zitokina eta ligandoen arabera jokatuko dutela tumorearen aurka edo bere alde eginez.

TMEko immunitate zelulekin jarraituz, kalteturiko ehunetara lehenengo heltzen diren zelulen artean neutrofiloak daude. TMEko zelula estromalek CXC motako errezeptoreen bidez zelula hauek erreklutatzen dituzte eta batez ere patogenoak ezabatzeaz arduratzen dira. Minbizi batzuetan neutrofiloek tumorea eta metastasiaren aurkako funtzioak betetzen dituztela behatu da, baina beste kasu batzuetan tumorearen inbasioa, angiogenesia eta zelulen proliferazioa areagotu egiten duela ere egiaztatu da (Gonzalez et al., 2018). Horregatik, zelula hauek minbizian betetzen duten papera zein den argitzeko gehiago ikertzea beharrezkoa da.

Beste alde batetik, zelula dendritikoek (ingelesez *Dentritic Cell*, DC) ere beraien zeregina dute TMEan. Zelula hauek antigeno aurkezle bezala aritzen dira eta batez ere T linfozitoen tumorearen aurkako erantzuna bultzatzeko beharrezkoak dira. Baldintza normaletan DCak inaktibaturik badaude ere, patogeno edota kaltetutako ehunek hauen aktibazioa induzitu dezakete estimulu desberdinen bitartez. Modu honetan, zelula hauek edozein antigeno atzeman dezakete (patogeno batena edo tumorearena) eta I zein II motako MHCarekin batera aurkezten dute. Ostean, DCek nodulu linfatikoetaraino migratzen dute, non molekula koestimulatzaileekin batera T linfozitoen erantzuna bultzatzen duen. Hortaz, linfozitoak desberdindu egingo dira aurkeztutako antigenoarekiko espezifikoak diren $T_c$ linfozitoak emateko eta hedatu egingo dira organismoan zehar (Lee & Radford, 2019). Hala ere, minbizian DCek ez dute beti aipaturiko funtzioa behar bezala betetzen, adibidez, baldintza hipoxikoetan. Gainera, tumoreak DCak zelula immunosupresore bilakatu ditzakeela behatu izan da eta $T_c$-en hedapena bultzatu ordez, DCek T linfozito horien baztertzea eta $T_{reg}$-en hedapena suspertu lezakete (Veglia & Gabrilovich, 2017).

Immunitatearekin jarraituz, TMEari dagokionez gehien aztertu izan diren immunitate-sistemako zelulak makrofagoak dira, zehazki, minbiziari loturiko makrofago (ingelesez *Tumor-associated Macrophage*, TAM) deiturikoak. Nahiz eta hasiera batean minbiziaren aurka jo, makrofagoek beraien fenotipoa aldatu egin dezakete tumorearen eraginez eraldatuta dagoen ingurumenaren kausaz. Zentzu honetan, makrofagoek M1 edo M2 motako fenotipoa aurkeztu dezakete. Lehenengoek, funtzio efektorea edota antigeno aurkezle funtzioa izaten dute, hau da, patogeno eta tumore zelulen aurrean erantzun immunea bultzatzen dute organismoa defendatzeko. Bigarrenek, aldiz, hantura prozesua gelditu egiten dute eta ehunak birmoldatzen dituzte, aldi berean angiogenesia suspertzen dutelarik (Allavena et al., 2008; Mantovani, A. et al., 2002). Hau kontuan izanik, TAMek M2 motako makrofagoen antzerako funtzioak betetzen dituzte, azken finean immunosupresioa eragiten dutelarik tumore zelulen proliferazioa bultzatuz (Mantovani, A. et al., 2002). M2rako polarizazioa batez ere tumorearen inguruan eratzen den egoera inflamatorio kronikoaren ondorioa da (Ben-Baruch, 2006). Etengabeko hantura prozesua dela eta, kanpo mediora faktore pro-tumorigenikoak jariatzen dira eta azkenean TAMek minbizi zelulen proliferazioa, matrize estrazelularraren berrantolaketa proteolitikoa, angiogenesia eta inbasioa sustatu, zein metastasiaren sorreran laguntzeko gaitasuna lortzen dute (Aras & Zaidi, 2017; Prenen & Mazzone, 2019). Zentzu honetan, TAMek jariatutako granulinak HSCak aktibatzen dituztela behatu izan da, fibrosia sustatuz gibelean eta azken finean metastasirako bidea erraztuz (Nielsen et al., 2016). Gainera, aipatu dugun moduan, TAMek immunosupresioa eragin dezakete. Esaterako, TAMek linfozitoen funtzioa modulatzeko gaitasuna dute, adibidez, $T_c$en erantzuna inhibitzeko edota $T_{reg}$en erreklutamendua eragiteko (Aras & Zaidi, 2017; Chen et al., 2019). Are gehiago, CAFek jariatutako faktoreek TAMetan eragiten dutela behatu da, zeintzuek T linfozitoen proliferazioa gelditu egiten duen (Takahashi et al., 2017). Laburbilduz, nahiz eta immunitate-sistemako zelulek organismoa osasuntsu mantentzeko diharduten TMEko elementu desberdinen arabera beraien portaera aldatu eta tumorearen garapena sustatu dezakete.

### 2.1.4. Zelula endotelialak

Zelula endotelialak odol hodiak barrukaldetik estaltzen dituzten zelulak dira, endotelioa osatuz. Endotelio jarraietan, zelula endotelialak bata bestearekin hertsiki loturik daude. Aldiz, digestio-hodiak, gibelak, pankreak, giltzurrunetako glomeruluek eta guruinek endotelio fenestratua aurkezten

dute, non zelula endotelialen jarraitasuna eten egiten den zenbait puntutan. Endotelio mota honek poroak dauzka organoetako zelulen eta odolaren arteko komunikazioa bermatzeko.

Ehun osasuntsuetan, zelula endotelialek odolaren fluxua erregulatzeaz gain, odol hodien iragazkortasuna eta leukozitoen kieszentzia kontrolatzen dute. Aldiz, egoera patologikoetan edo zauriren bat gertatutakoak zelula hauek aktibatu egiten dira eta inflamazio prozesuaren parte bihurtzen dira. Horretarako, zelula endotelialek odol fluxua handiagotu egiten dute leukozitoak kaltea dagoen gunera hel daitezen eta beraien aktibazioa bultzatzen dute (Pober & Sessa, 2014). Era berean, aktibatutako zelula endotelialek zitokina proinflamatorioak eta adhesio molekulak espresatzen dituzte immunitate zelulen erreklutamendu eta atxikidura errazteko (Hsu et al., 2019). Honekin erlazionatuta eta inflamazio prozesuek minbiziaren sorrera erraztu dezaketela kontuan izanik, zelula endotelialek ere eragina izan dezakete tumorearen garapenean.

Bestalde, zelula endotelialak angiogenesiaz ere arduratzen dira. Ehun osasuntsu batean angiogenesia beharrezkoa da enbrioien garapenean eta zaurien sendaketa prozesuetan. Dena dela, nahitaezko prozesua bada ere, angiogenesiak minbiziaren hazkuntza bultzatu dezake. Tumorea eratzen hasten denean odol basoak honen periferian kokaturik egoten dira. Modu honetan, tumorea garatuz doan heinean, hau zenbat eta handiagoa izan, oxigenoa eta nutrienteak tumorearen erdialdeko zeluletara heltzea zailagoa da. Hori dela eta, hipoxiak eta nutrienteen gabeziak odol baso berrien beharrizana areagotzen dute eta ondorioz, angiogenesi prozesua aktibatu egiten da. Horretarako, tumore zelulek VEGF ekoizten dute, zeinak aurretik bertan zeuden odol basoetatik abiatuz, kapilar berriak sortaraztea eragiten duen. Hazkuntza faktore hau gehiegi jariatuz gero, odol basoak iragazkorragoak bilakatzen dira eta honek azken finean metastasia erraztu dezake, minbizi zelulei odolera pasatzeko aukera errazten zaielako (Maishi & Hida, 2017).

Amaitzeko, zelula endotelialek hazkuntza faktore transformatzailea (ingelesez *Transforming Growth Factor*, TGF) TGF-β1 and TGF-β2 ekoizten dituztela ere behatu da zeinak epitelialetik mesenkimalerako trantsizioa (ingelesez *Epithelial-to-Mesenchimal Transition*, EMT) eragiten duen adibidez PCAn edota gibeleko minbizian (Rawal et al., 2019; Shenoy & Lu, 2016). Prozesu honen bidez, zelula epitelialak zelula mesenkimal bihurtzen dira, hau da,

desberdintzapena galtzen dute beste zelula mota bat bihurtzeko gaitasuna lortzen dutelarik.

## 2.2. INGURUMEN INFLAMATORIOA

Inflamazioa edo hantura infekzio, zauri edota trauma baten aurrean immunitate-sistemak ematen duen erantzuna da organismoa babesteko helburuarekin. Hala ere, kasu batzuetan erreakzio hori, eta baita orbaintzea ere, denbora luzez mantendu egiten da eta ondorioz minbizia sortu liteke.

Beraz, ehunaren kaltea somatzean seinale kimikoen sare bat sortzen da zeinak inflamazio prozesua hasten duen ehuna birmodelatzeko. Hanturak zitokina eta kemokina desberdinen jariapena bultzatzen du, linfozito, makrofago eta fibroblasto bezalako zelulek mina dagoen lekuraino migra dezaten organismoa patogenoengandik babesteko eta azkenean zauria ixteko (Coussens & Werb, 2002). Zitokinak zelula desberdinek gainerako zelulekin komunikatzeko jariatzen dituzten molekula proteikoak dira, proliferazioa, desberdintzapena, mugimendua, biziraupena eta heriotza erregulatzen dutenak. Enbriogenesia, zelulen metabolismoa, hematopoiesia, inflamazioa, erantzun immunea eta beste hainbat prozesutan parte hartzen dute. Hasiera batean immunitate-sistemako zelulek soilik jariatzen zituztela uste zen arren, gaur egun jakina da bestelako zelulek ere zitokinak ekoizteko gai direla. Hori dela eta, TMEko zelula bakoitzak zitokina jakin batzuk ekoiztuko ditu beraien beharrizanak aurrera eraman ahal izateko. Honekin erlazionatuta, aipatzekoak dira zitokinen pleiotropia eta erredundantzia propietateak, hau da, zitokina desberdinek funtzio berdina izan dezakete edota zitokina berdinak zelula desberdinetan modu desberdinean joka dezake (Chung, 2009). Hortaz, askotan nahiko korapilatsua izaten da molekula hauen funtzioa zehaztea eta taldetan sailkatzea.

Tumorearekin erlazionaturik dauden zelulei dagokienez, funtsean, inflamazioa, immunitatea eta tumorearen garapena arautzeaz arduratzen dira. Horregatik, nahiz eta zitokinak nagusiki linfozito eta makrofagoek jariatzen dituzten, bestelako zelulek ere zitokinak ekoizteko gaitasuna dute, esaterako, zelula endotelialek, fibroblasto aktibatuek eta tumore zelulek (Allam et al., 2017; Dehne et al., 2017; Ino et al., 2013; Komohara & Takeya, 2017; Singh, R. et al., 2017; Tsuchida & Friedman, 2017).

Zitokina hauek guztiak etengabe daude elkarrekintzan ehunen funtzionamendu egokia bermatzeko. Linfozitoek, esaterako, interleukinak (IL)

ekoizten dituzte, inflamazioaren erregulazioan parte hartzen duten molekulak hain zuzen. Batzuek hantura areagotu egiten duten bitartean, besteek molekula antiinflamatorio gisa jokatzen dute. Hala ere, maila altuagoan edo baxuagoan aurkitzen diren arabera, zenbaitek kontrako efektua izan dezakete. Adibidez, nahiz eta IL-6a beharrezkoa den hantura prozesuetan, minbizi mota gehienetan IL-6aren maila altuak antzeman dira (Kumari et al., 2016). Bestalde, IL-1βak inflamazio akutu kasuetan organismoari babesa eskaintzen dion arren, inflamazio kronikoan neoangiogenesia sustatzen du eta gainera, minbiziari loturiko fibroblastoetan ere eragina dauka seinale antiapoptotikoak suspertu ditzakeelarik (Bent et al., 2018). Era berean, IL-10a immunoerregulatzailea bada ere, tumoreari loturik agertzen diren makrofagoek jariatutako IL-10ak immunosupresioa eragiten duela behatu da (Sawa-Wejksza & Kandefer-Szerszen, 2018; Shurin et al., 2013).

Honekin erlazionatuta, alfa tumore nekrosi faktoreak (ingelesez *Tumor Necrosis Factor Alpha*, TNF-α) molekula proinflamatorio eta antiinflamatorio bezala jokatzen du bai infekzio, bai ehunen konponketan (Josephs et al., 2018). Funtsean tumorearen kontrako aktibitatea du T linfozitoen bidezko erantzun immunologikoa bultzatuz. Tumorea haziz doan heinean, ordea, TMEan TNF-α maila altua agertuz gero, minbiziaren garapena areagotu dezake (Balkwill, 2006). Modu honetan, faktore honen espresioa deregulaturik dagoenean tumorigenesia sustatzen da (Landskron et al., 2014). Besteak beste, zelulen transformazioa eragin, biziraupena handitu eta metastasia erraztu egiten dituela behatu da (Sethi et al., 2008).

Bestelako zitokina batzuk hazkuntza faktoreak dira. Fibroblastoek TMEan duten funtzioa azaltzen den atalean (2.1.2.) VEGF molekula aipatzen da. Hazkuntza faktore hau funtsezkoa da ehunak konpontzerako orduan organismo osasuntsu batean. TMEan ordea, gainespresaturik agertzen da (Costache et al., 2015) angiogenesia eta fibroblasto aktibatuen proliferazioa bultzatzen duelarik tumorearen hazkuntza errazteko (Apte et al., 2013; Tsuchida & Friedman, 2017). Hazkuntza faktoreekin jarraituz, minbiziarekin erlazionatzen den beste mokelula bat EMTan parte hartzen duen TGF-β hazkuntza faktorea da. Hantura prozesuetan TGF-β konfigurazio inaktiboarekin jariatzen da eta ondoren, gibeleko zein pankreako HSC eta PSCek aktibatu egiten dute. Horiek horrela, TGF-β fibrosiaren arduradun nagusienetarikoa da, kolagenoaren jariapena bultzatzen baitu (Sherman, 2018). Dena dela, molekula hau, tumoreak ez ezik, CAFek eta immunitate zelulek ere ekoizten dute (Kalluri, 2016; Landskron et al., 2014). Printzipioz

propietate antiinflamatorio eta immunosupresoreak ditu, alabaina, tumorigenesi fasearen eta tumore motaren arabera jokabide desberdina izan dezake. Gaixotasunaren hasieran ziklo zelularra geldituz eta apoptosia eraginez tumore supresore bezala jarduten duen bitartean, tumorea garaturik dagoenean EMTa eta inbasioa suspertzen ditu (Landskron et al., 2014). Minbiziari lotuta ere, aipagarria da gamma-interferoia (IFN-γ). Orohar linfozito aktibatuek jariatzen dute eta makrofagoen aktibazioa induzituz hantura areagotzen du. Nahiz eta inflamazioa eraginez tumorearen hazkuntza faboratzeko joera izan, bere aurka ere jokatu dezakeela behatu da bere ahalmen antiproliferatzailea eta proapoptotikoari esker (Castro et al., 2018). Hauez gain, zitokina deritzen molekula multzoaren barneko talde berezi bat kemokinak dira, TMEan funtsezkoak direnak. Kemokinak kimiotaxia induzitzen duten molekulak dira, CC edo CXC familiako polipeptidoek hain zuzen ere. Kimiotaxi horren bidez immunitate-sistemako zelulen erreklutamendua eta zelulen migrazioa eragiten dute (Guerreiro et al., 2011). Dena dela, immunitate-sistemaz gain tumorearen garapenean ere lagungarri izan daitezke beraien errezeptoreekin interakzionatzen dutenean hazkuntza faktoreen jariapena bultzatu eta bestelako zelulak erakarri ditzaketelako (Murooka et al., 2005).

Zitokinak ez ezik, bestelako molekula eta entzimak ere lanean dihardute TMEan. Aurrerago azaldu den bezala, kolagenoaren ekoizpenarekin batera ECMaren moldaketan MMPek eta TIMPak oinarrizkoak dira. Batek ECMko proteinak degradatzen dituen bitartean, besteak proteasa horiek inhibitzen ditu ehunaren homeostasia bermatzeko. Minbizian aitzitik, MMPen espresioa handiagotu egiten da, tumore zelulen migrazioa errazten dutelarik (Phillips et al., 2003; Sherman, 2018). Bestalde, inflamazioarekin erlazionaturik ziklooxigenasak (ingelesez *Cyclooxygenase*, COX) ere badaude, zehazki, COX-2aren gainespresioa minbiziarekin erlazionatu izan da izan ere inflamazioa, zelulen proliferazioa eta angiogenesia eragiten baititu (Breinig et al., 2007; Hermanova et al., 2008; Roelofs et al., 2014).

## 2.3. INGURUMEN FIBROTIKOA

ECMa makromolekula desberdinez osaturik dagoen estruktura da, ehun bateko zelulen artean dagoen espazioa betetzen duena, sostengua eskainiz. Gehienbat, kolagenoa izaten da elementu nagusia, baina glikoproteinez, elastinez, fibronektinez eta lamininez ere osaturik dago sare fibrilar bat eratzen dutelarik (Theocharis et al., 2016). Gainera, ECMa hazkuntza

faktoreen gordailua ere bada. Beraz, ECMa zelulen euskarri izanik, integrinak bezalako atxikidura proteinen bidez, zelulak matrizeko lamininetara lotzen dira.

Tumore baten garapenean ECMaren osagaiak aldatu egiten dira bere hazkuntza errazteko (Lu et al., 2011). Lehenago azaldu den moduan, prozesu honetan fibroblastoek, makrofagoek eta tumore zelulak hartzen dute parte, baina batez ere zelula izartsuak dira garrantzia handiena dutenak. Hauek kolagenoarekiko errezeptoreak espresatzen dituzte zelulen adhesioa, proliferazioa, migrazioa eta abar erregulatzeko eta horrez gain, MMPak eta kolagenoa jariatzen dituzte ECMa desegin eta berregiteko eta aldi berean zelulen migrazioa errazteko. Horrez gain, tumore zelulak indar mekanikoaz ere baliatzen dira, hau da, hazkuntza azkarra dela eta, tumore zelulak matrizearen egitura apurtzeko gai dira. Are gehiago, inbadipodio deritzen F-aktinazko egitura zelularrak ere erabiltzen dituzte ECMko egiturak bultzatzeko (Walker et al., 2018).

Aurreko atalean azaldu den bezala, tumore-zelulek bidalitako seinaleak jarraituz PSC eta HSCak matrize ugari jariatzen hasten dira. Alde batetik, zelula hauek jariaturiko kolageno zuntzen antolaketak minbiziaren inbasioa ere erraztu dezakeela behatu izan da (Walker et al., 2018). Bestetik, PSC eta HSCen joera ECM zurrunagoa eratzea dela ondorioztatu da, kolagenoa eta fibronektina gehiago ekoiztuz (Attieh & Vignjevic, 2016). Honekin batera, ikerketa desberdinetan zelula izartsuek fibrosia eragiteaz gain minbiziaren progresioa errazten dutela frogatu da bai tumorearen hazkuntza areagotuz, bai tumorearen kontrako organismoaren mekanismoen edota terapia desberdinen aurka jokatuz (Liu, R. X. et al., 2017; McCarroll et al., 2014; Tommelein et al., 2015; von Ahrens et al., 2017). ECMaren zurruntasunak TMEra oxigenoa, nutrienteak eta farmakoak heltzea oztopatu egiten du eta horrek minbiziaren hazkuntza indartu dezake (Liang, C. et al., 2018). Are gehiago, PSC eta HSCek metastasi prozesuan laguntzen dutela ere behatu da (Huang et al., 2019; Xu, L. et al., 2014).

## 2.4. INGURUMEN OXIDATIBOA

TMEan garrantzia duen beste elementu bat ROSak dira. Molekula hauek zelulen metabolismo prozesu normalaren ondorio gisa sortzen dira, baina erradiazio ultramoreak, dietako osagai batzuek, tabakoak, inguruneko poluitzaileek eta beste hainbat agentek ere sor ditzakete (de Sa Junior et al., 2017; Prasad et al., 2017). Bestalde, hantura kronikoaren ondorioz ere

inflamazio zelulek edota zelula epitelialek ROSen eraketa areagotu dezakete, zeinak minbiziaren garapena bultzatzen duen (Murata, 2018).

ROSak maila baxuan zelulen seinalizazio-bide batzuen erregulaziorako eta homeostasia mantentzeko beharrezkoak diren arren, beraien kontzentrazioa altua denean toxiko bilakatzen dira zelulentzat (Glasauer & Chandel, 2014). ROSek dauzkaten erradikal libreen ondorioz oso erreaktiboak dira, ingurune oxidatiboa eratzen duten estres oxidatibo deritzon egoera sustatzen dutelarik. Estres oxidatibo horren kausaz zelulak hil egin daitezke. Dena dela, organismoak antioxidatzaile desberdinak dauzka eskuragarri ROS hauen efektu toxikoa deuseztatzeko, esaterako entzima endogenoak (superoxido dismutasa, katalasa, glutation peroxidasa...) edota dieta bidez hartzen diren konposatu exogenoak (polifenolak, flabonoideak, bitaminak, mineralak...) (He et al., 2017). Nolanahi ere, baliabide horiek ez dira beti nahikoak izaten eta ROSen maila altuek transkripzio faktore, kinasa, hazkuntza faktore, zitokina eta beste proteina batzuen jokabide normala aldatu dezakete gaixotasun neurodegeneratibo edota minbizia sortuz (Prasad et al., 2017). Honekin erlazionatuta, ROS maila altuek mutagenesia areagotu dezaketela behatu izan da (Liao et al., 2019) eta baita EMTa eragin ere (Jiang et al., 2017).

# 3. PANKREAKO MINBIZIA

## 3.1 Pankreako minbizia

Aurrerago azaldu dugun bezala, PCA ezagutzen den minbizi agresiboenetariko bat da. PCAen % 80, bai emakume, bai gizonetan, 60 urtetik gorakoetan garatzen da (Ilic & Ilic, 2016) eta batez ere, herrialde garatuetan agertzen da. Ikerketa batzuen arabera, diabetes mellitusak PCA izatea areagotu dezakeela ondorioztatu da (Li, D., 2012). Era berean, pankreatitisa, eta batez ere pankreatitis kronikoa duten pazienteek ere PCA pairatzeko arrisku handiagoa dutela ondorioztatu dute, izan ere gaixo hauetako % 4k minbizia garatu zuela behatu baita (Kudo et al., 2011). Bestalde, herentzia genetikoak, tabakoak, elikadurak, obesitateak zein bizimodu motak ere minbizi honen agerpenean eragina izan dezakeela frogatu da (Ilic & Ilic, 2016; Lowenfels et al., 2000).

Tumorea hasierako fasean aurkituz gero kirurgia bidez erauzi daitekeen arren, normalean, gainerako organoetara hedatzen den arte ez da detektagarria izaten eta ordurako, metastasirako tratamendu bakarrak kimioterapia edota erradioterapia izaten dira (Neoptolemos et al., 2018). Edonola ere, gaur

eguneko terapiek ez dute gaixoa sendatzen, bere biziraupena handitu baizik. Hala eta guztiz ere, PCA sufritzen dutenen artean 5 urteko bizi itxaropena % 2-9 ingurukoa da soilik (Ilic & Ilic, 2016), izan ere, hilkortasun-tasa handi honen kausa garrantzitsuena gaixoek farmako kimioterapeutikoekiko garatzen duten erresistentzia izaten baita.

## 3.2. Pankrea eta bere antolaketa zelularra

Pankrea digestio-sistema eta sistema endokrinoan parte hartzen duen organoa da, hiru ataletan banatzen dena: burua, gorputza eta buztana. Gizakietan burua duodenotik hurbilen dagoen partea da eta buztana ileo eta bareraino luzatzen da. Saguen pankreak, berriz, itxura difusoa aurkezten du eta urdailak, duodenoak, jeiuno proximalak eta bareak inguratuta agertzen da (4. Irudia).




**4. Irudia. Gizakiaren eta saguaren pankrea**. Pankrea, urdaila eta hestea inguratuz ageri den arren, itxura desberdina du gizakietan eta saguetan. A) Gizakiaren pankreak forma zehatz bat du hiru zatitan bereiz daitekeena: burua, gorputza eta buztana. B) Saguaren pankreak aldiz, egitura lausoa dauka. *Irudiak BioRender.com bidez sortutakoak dira.*

Pankreak aorta abdominaletik ateratzen diren enbor zeliakotik eta goiko arteria mesenterikotik jasotzen du odola. Hauek biek adarkapen ugari dituzte organoa inguratzen dutelarik, irrigazioa bermatzeko.

Bai gizakietan, bai saguetan, organo honek funtzio exokrinoa eta endokrinoa burutzen ditu azinoetan eta Langerhans irletan hurrenez hurren. Eremu exokrinoak zuku pankreatiko deritzon digestio entzimez osatutako jariakina ekoizten du hainbat entzimaz osaturik dagoena, hala nola, proteasa desberdinak proteinen lotura peptidikoak apurtzeko (tripsinogenoa, kimotripsinogenoa eta prokarboxiaminopeptidasa), amilasa pankreatikoa polisakaridoak disakarido bihurtzeko eta, lipasa pankreatikoa triglizeridoak hidrolizatu eta monoglizerido eta gantz azidoak emateko. Pankreak zuku pankreatikoa ekoizten duenean, jariakina hodi pankreatikora bideratzen da, zeinak duodenoko pareta zeharkatzen duen. Azkenik, zuku pankreatikoa hestean isurtzen da entzimek bertan beraien funtzioa gauzatu dezaten.

Alde endokrinoari dagokionez, pankrearen funtzio nagusietako bat odolean aurkitzen den glukosa kantitatea erregulatzea da. Horretarako, Langerhans irletako zelula pankreatikoek hormona ugari isurtzen dituzte, hala nola, intsulina, glukagoia eta somatostatina (5. Irudia). Hormona hauek pankreako zainetara isuriko dira eta ostean, porta eta bareko zainetara bideratuko dira




**5. Irudia. Pankrearen sistema endokrinoaren funtzionamendua.** Odolean dagoen glukogeno kantitatearen arabera pankreak intsulina edo glukogenoa ekoizten du. Glukosa maila altua denean, pankreak jariatutako intsulinak glukosaren metaketa eragiten du gibelean glukagoi moduan eta zelulek glukosaren bereganatzea bultzatzen dute glukosa maila jaisten den arte. Aldiz, odolean glukosa gutxi badago, pankreak glukogenoa jariatzen du, zeinak gibelean metatutako glukagoiaren metabolismoa aktibatzen duen glukosa molekulak odolera aska daitezen. *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.*

bertatik dagokion gunera hel daitezen, batez ere gibelera. Odoleko glukosa kontzentrazioa altua denean, pankreak intsulina ekoizten du, zeinak zelulek glukosa hori barneratzea eta metatzea erraztuko duen glukogenogenesi prozesuaren bidez. Bestalde, odoleko glukosa maila baxua denean, pankreak glukagoia jariatzen du, gibelean dauden glukosa erreserbak odolera aska daitezen glukogenolisiaren bitartez. Azkenik somatostatinak bai intsulina, bai glukagoiaren ekoizpena erregulatzen ditu (5. Irudia).

Horiek horrela, pankreak funtzio desberdinak betetzen dituenez gero, zelula mota ugariz osaturik dago. Gehienbat (% 95) atal exokrinoko zelula azinarrek osatzen dute, digestio entzimen sintesi, metaketa eta jariapenaren arduradunak direlarik (6. Irudia). Hauez gain, zelula zentro-azinarrak ere badaude, ura eta elektrolitoak jariatzen dituztenak urdaileko azidotasuna neutralizatzeko. Pankrearen osagai exokrinoarekin bukatzeko, azinoekin komunikatuta zelula duktalak daude. Hauek, duktu izeneko egitura tubularrak eratzen dituzte zelula exokrinoen produktuak bertara isur daitezen (6. Irudia).




**6. Irudia. Pankrea exokrino eta endokrinoaren egitura histologikoa.** A) Sagu pankrearen egitura histologikoaren eskema. B) Sagu pankrearen argazki histologikoa. Pankrea gehien bat jariapen pankreatikoa ekoizten duten azino izeneko zelula multzoez osaturik dago. Zelula hauen jariakina duktuetara bidaltzen da gero hesteraino bideratzeko. Bestalde, pankrean sakabanaturik hormonak jariatzen dituzten Langerhans islote izeneko egiturak ere bereiz daitezke, zelula desberdinez osatuak. Hauen kasuan, jariapena odol basoetara bideratzen da. *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.*

Beste alde batetik, pankrean hormonak jariatzeaz arduratzen diren zelula endokrinoak aurki daitezke Langerhansen irla deritzen egiturak eratuz, organo osoaren % 1-2 hartzen dutelarik (6. Irudia). Bertan ugarienak intsulina ekoizten duten β zelulak dira (7. Irudia). Jarraian α, δ eta PP zelulak daude, zeintzuek glukagoia, somatostatina eta polipeptido pankreatikoa jariatzen duten hurrenez hurren. Are gehiago, pankrean odol basoak eratzen dituzten zelula endotelialak daude (6. Irudia). Zelula hauek T linfozitoen infiltrazioa erregulatzeaz gain, hormonak beraien helbururaino bideratzen dituzte batez ere organismoaren glukosa maila erregulatzeko. Zentzu honetan, aurretik azaldu den moduan, pankreako endotelioa fenestraduna da, hau da, zelula endotelialen artean tarteak daude aipatutako substantzien iragazkortasuna errazteko.




**7. Irudia. Saguetako ehun pankreatikoko Langerhans irlen egituraren eskema.** α zelulek glukagoia ekoizten dute eta irlen periferian kokatzen dira; β zelulek Langerhans irlen gehiengo partea betetzen dute eta intsulina ekoizteaz arduratzen dira; δ eta PP zelulak ez dira hain ugariak eta somatostatina eta polipeptido pankreatikoa jariatzen dituzte. *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.*

Azkenik, pankrean, immunitate-sistemako zelulak eta PSCak ere aurki daitezke, kalteen aurrean elementu arrotzak deuseztatzeaz eta ehuna berrantolatzeaz arduratzen direnak.

## 3.3 Pankreako minbiziaren mikroingurumena

Minbizi guztietan bezala, tumore zelulekin batera, TMEko elementuek gaixotasunaren garapenean eragina dute. Zentzu honetan, PCAren ezaugarri bereizgarrienak desmoplasia eta immunosupresioa dira (Ren, B. et al., 2018) eta lehenago aipatu den moduan, faktore hauek biak TMEko zelulek baldintzatzen dituzte neurri handi batean. Desmoplasia PSCek eragiten dute, beraiek baitira ECMaren jariapenaren arduradunak. Pankreako CAFak bereziak izanik, PSCek MMPak eta TIMPak ez ezik kolagenoa ere jariatzen dute. Etengabeko ekoizpen horrek, ehunaren zurruntasuna eragiten du, zeinak odol-hodien egituraren zein antolaketaren aldaketa eragingo duen. Ondorioz, odola eta berarekin batera oxigenoa ez da modu egokian heltzen zelula guztietara eta azkenean hipoxia eta estres oxidatiboa sortzen dira. Aldi berean, honek hipoxiaren eraginez aktibatzen diren geneen espresioa suspertzen du eta tumore zelulen biziraupena eta inbasioa indartzen dute (Arvelo & Cotte, 2009; Liang, C. et al., 2018). Gainera, aurrerago aipatu dugun bezala, oxigenoa ez ezik, farmakoak ere ezin izango dira behar bezala heldu tumore zelula guztietara ECMaren egiturarengatik (Apte et al., 2013). Are gehiago, ECMaren zurruntasunak tumoreetan eratzen den hipoxia maila ere handitu egiten du angiogenesia areagotuz (Couvelard et al., 2005; Valfre di Bonzo et al., 2009). Zentzu honetan, kontuan izan behar da hipoxia baldintzapean gene espezifikoak aktibatzen direla, horien artean angiogenesia bultzatzen dutenak. Adibidez, minbizi mota askotan, PCA barne, 1-hipoxia bidezko faktore induzitzaileak (ingelesez *Hipoxia Inducible Factor*, HIF) VEGFaren transkripzioa eragiten du (Couvelard et al., 2005), zeinak aldi berean, tumorearen inbasioa erraztuko duen. Hala ere, Liang eta bere kolaboratzaileek desmoplasiak eragindako ondorioen konplexutasuna azaldu zuten, izan ere kasu batzuetan CAFen delezioak matrizeko kolageno kantitatea murriztu bazuen ere, ez zen aldaketarik behatu kimioterapikoen perfusioari dagokionez (Liang, C. et al., 2018). Honekin erlazionaturik, PSCek garraiatzaile eta seinalizazio-bide desberdinetako geneen espresioa aldatu dezaketela behatu izan da (Gnanamony & Gondi, 2017; Hesler et al., 2016) zeinak farmakoen helduera ere oztopatu dezaketen. Eta ez hori bakarrik, Hessman eta bere kolaboratzaileek burututako ikerketa batean PSCek genzitabina kimioterapikoa beraien zitoplasman gordetzeko ahalmena zutela egiaztatu zuten (Hessmann et al., 2018). Zentzu honetan, TAMek ere kimioerresistentzian garrantzia dutela behatu da, EMTa bultzatzen baitute (Kuwada et al., 2018).

Bestalde, PCAn ematen den beste ezaugarri nagusia immunosupresioa da. Tumore-zelulek, adibidez, beraien desegonkortasun genetikoaren eraginez, $T_c$-ek ezagutzen dituzten antigenoak galdu ditzakete (Martinez-Bosch et al., 2018). Eta ez hori bakarrik, ikerketa desberdinen arabera, tumore zelulez gain, hezur-muinetik eratorritako zelula supresoreak (ingelesez *Myeloid Derived Suppressor Cells*, MDSCs), $T_{reg}$-ak, TAMak eta PSCak ere immunosupresioaren arduradunak dira (Li, C. et al., 2020; Ren, B. et al., 2018; Schnurr et al., 2015). Zelula hauek jariatzen dituzten zitokinek eta hazkuntza faktoreek immunitate-sistemaren erantzuna geldiarazi dezakete eta apoptosiaren saihespena erraztu dezakete. Are gehiago, zelula endotelialek angiogenesia sustatzen duten faktoreen aurrean (VEGF esaterako) $T_c$-en tumorerako sarrera ekiditen du $T_{reg}$-en infiltrazioa ahalbidetzen duen bitartean (Motz et al., 2014).

Aurreko guztia laburbilduz, PCAren garapena aztertzerako orduan beharrezkoa da TMEko guztiak aintzakotzat hartzea ez baitute uneoro modu berdinean jokatzen.

# 4. KOLON-ONDESTEKO MINBIZIAREN METASTASI HEPATIKOA

## 4.1. Kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoa

CRCa munduan diagnostikatzen diren minbizi guztietatik hirugarrena da prebalentziari dagokionez (GLOBOCAN, 2018). Eta are gehiago, Espainia mailan heriotza gehien eragiten dituen minbizia da (SEOM, 2018). Normalean 50 urtetik gorako pertsonetan azaltzen da, batez ere 70 urtetik gorakoetan, eta pronostikoa zelulen hedapenaren araberakoa da, izan ere gaixotasuna duten pertsonetatik erdiak metastasia jasaten baitu (Paschos et al., 2009).

Aldaketa genetiko eta epigenetikoez gain, CRCa nutrizio ohiturekin oso erlazionaturik dago. Mendebaldeko bizimodua daramatenen artean gehiago azaltzen da gantz zein karbohidrato ugaridun dietaren ondorioz. Okela gorri eta alkohol asko kontsumitzeak adibidez, minbizi modu honen agerpena areagotu dezake eta baita bizimodu sedentarioak eta tabakoa erretzeak ere (Bishehsari et al., 2014).

Kasu gehienetan tumorea heste lodian bakarrik eratzen da, zeina kirurgia bidez erauzi daitekeen. Hala ere, pazienteen % 50ak minbizia berriro pairatzen

du, baina kasu honetan metastasiarekin, batez ere gibelean. Zentzu honetan, gibela metastasia jasaten duen organorik ohikoena izaten da, odolaren % 75 iragazten baitu.

Zentzu honetan CRCaren metastasi hepatikoaren arrazoi pisutxuenetako bat, hesteetako odola bertan iragaztearen ondorio izaten da. Tumore-zelulak beraz kolon edo ondestetik askatu eta odolaren bidez gibeleko sinusoideetaraino hel daiteke, non atxikita geratu daitezkeen (Takeda et al., 2002; Van den Eynden et al., 2013). Hesteko tumoreak bezala, gibelekoak ere kirurgia bidez erauzi daitezke batzuetan. Hala era guztiz ere, gaixo hauek askoz jota 5 urteko biziraupena izaten dute (Valderrama-Trevino et al., 2017).

## 4.2. Gibela eta bere antolaketa zelularra

Gibela, organismoaren barne organorik handiena da, barrunbe abdominalaren eskuin aldeko goiko partean kokaturik dagoena. Oso organo garrantzitsua da, bizi-funtzio ugari betetzen baititu. Hauen artean aipagarria da odoleko glukosaren erregulazioaz arduratzen dela pankrearekin batera. Laburbilduz, gluzemia altua denean pankreak intsulina ekoizten du glukosa gibelean metatu dadin, eta aldiz, kontzentrazioa baxua denean, pankreak glukagoia jariatzen du, gibelean metaturik dagoen glukogenotik glukosa hondarrak askatzeko (5. irudia). Bestalde, lipidoen β-oxidazioa ere gibelean ematen da energia ATP moduan lortzeko. Are gehiago, lipidoen garraiorako proteinen eta kolesterolaren ekoizpena ez ezik, proteinen transaminazio eta desaminazioa ere gibelean gertatzen dira. Horrez gain, organo honek organismoarentzat arrotzak diren agenteak edo xenobiotikoak zein produktu toxikoak identifikatzen ditu eta prozesu kimiko eta metabolikoen bidez eraldatu egiten ditu gorputzetik kanporatu ahal izateko. Dena dela, gibelak bestelako funtzio batzuk ere betetzen ditu, hala nola, behazunaren ekoizpena, odoleko plasmako proteinen sintesia, bitamina zein glukogenoaren metaketa eta, immunitate sistemako faktoreen ekoizpena eta odolaren iragazketa besteak beste.

Bai gizaki, bai saguetan gibela lau lobuluz osaturik dago. Gizakietan eskuinekoa, ezkerrekoa, karratua eta kaudatua bereiz daitezke eta saguetan aldiz, eskuinekoa, ezkerrekoa, kaudatua eta mediala (8. irudia). Aldi berean, lobulu hauetako bakoitza, ehun konektiboz inguratutako lobuluxka izeneko segmentu poliedrikotan banaturik dago eta berezko arteria eta zain antolaketa du (9. irudia). Horrez gain, gibelari loturik behazun-xixku deritzon zakua dago non behazuna metatzen den (8. irudia). Kasu honetan ere,

segmentu guztiak behazuna garraiatzen duten konduktuen bidez konektaturik daude. Kanal horiek hepatozitoek ekoiztutako behazuna behazun-xixkura edota eta duodenora garraiatzeko erabiltzen dira. Behazuna, hondakinen garraioa eta elikagaien digestioa laguntzen duen substantzia da gantz azidoen emultsionatzaile bezala jarduten duelarik.




**8 Irudia. Giza eta sagu gibelaren arteko desberdintasunak**. A) Gizakiaren gibelean ezkerreko lobulua eta eskuinekoa bereiz daitezke, azken hau lobulu kaudatua eta lobulu karratua izeneko beste bi zatitan bereizten delarik. B) Saguetan, aldiz, ezkerreko eta eskuineko lobuluez gain, lobulu kaudatua eta mediala daude. Kasu bietan behazun xixkua ere behatu daiteke organoaren barnean. *Irudiak Amparo Hidalgo Galianak egindakoa dira (Ig: ahg_ilustracion).*

Hain organo garrantzitsua izanik, gibelak, alde batetik, arteria hepatikotik datorren odol oxigenatua jasotzen du eta bestetik, porta zain hepatikotik datorren nutrienteetan aberatsa den odol desoxigenatua ere jasotzen du, hots, urdail, pankrea, bare eta hesteetatik ateratzen den odola biltzen du (9. irudia). Behin bertan, gibela odoleko nutrienteen metabolismoaz arduratzen da. Horregatik garrantzitsua da lobuluxka hepatiko bakoitzak bere odol-sistema antolatua izatea (9. irudia). Modu horretan, lobuluxken artean arteria hepatikoaren adar bat, porta zainaren beste adar bat eta behazun-hodi bat ageri dira porta hirukotea deituriko egiturak eratuz. Porta hirukote horiek adarkatu egiten dira eta lobuluxketan barneratzen dira sinusoide hepatikoetarantz. Sinusoide horien bitartez, gibeleko zelulek kanpoko oxigenoa, nutrienteak eta substantzia toxikoak bereganatzen dituzte beraien funtzioa betetzeko. Azkenik, sinusoideetan barrena igaro den odola,

lobuluxketako erdiko zainetan jasotzen da gero zain hepatikora bideratzeko (8. irudia). Beraz, gibelera heltzen den odol guztia sinusoide hepatikoko kapilareetan zehar pasatuz iragazten da eta ostean, zain hepatikoetan biltzen da azpiproduktuak kaba zainera bideratzeko (9. irudia). Bukatzeko beheko kaba zain honen bitartez odola giltzurruneraino bideratzen da hodakinak gernuaren bidez kanporatzekoiraizteko edo bestela behazunarekin batera odola konduktu hepatikora jariatzen da, hestetik pasatu ostean gorotzen bitartez kanporatzeko.

Bere funtzioak aurrera eraman ahal izateko, gibelak hainbat zelula desberdinez osaturiko egitura konplexua dauka. Alde batetik, parenkima hepatikoa osatzen duten hepatozitoak daude. Hauek gibeleko zelula ugarienak dira (% 80) eta proteinen sintesia eta metaketa, azukre eta lipidoen metabolismoa, behazunaren ekoizpena eta agente toxikoen katabolismoa burutzen dute. Beste alde batetik, gibelaren osagai ez- parenkimala dago, gibel sinusoideetako zelula endotelialez (ingelesez *Liver Sinusoidal Endothelial Cells*, LSEC), HSC-z eta immunitate-sistemaren parte diren zelulez osaturik.

LSECak gibelaren zirkulazio baskularra gaineztatzen duten zelulak dira, hau da, sinusoide hepatikoaren endotelioa osatzen dute. Zelula hauek gainerako zelula endotelialekiko desberdinak dira: ez dute xafla basalik aurkezten eta fenestra izeneko poroak dituzte. Fenestrei esker odola eta parenkima hepatikoko zelulek jariakin, solutu eta partikulen elkartrukea gauzatu dezakete sinusoidea eta hepatozitoen artean aurkitzen den Disseren espazioan eta xafla basalaren gabeziak ere solutuak bertara zuzenean igarotzea ahalbidetzen du. Horrez gain, LSECek immunitate zelulen atxikipena bermatzen dute aurkezten dituzten adhesio molekulei esker. Bestalde, zelula hauek antigeno aurkezle bezala jokatzeko gaitasuna dute (Shetty et al., 2018), izan ere, $T_c$-en aktibazioa eragiten baitu gibelean (Knolle & Wohlleber, 2016). Dena dela, LSECek Tc linfozito aktibatuen inhibizoa eta $T_{reg}$-en indukzioa ere eragin dezakete (Eggert & Greten, 2017).

Bestalde, HSCek gibelaren % 5-8 betetzen dute. Zelula hauek Disseren espazioan aurkitzen dira eta A bitamina pilatzen dute, organismoan metatzen den erretinoideen % 95 hain zuzen. Horrez gain, ECMko proteinak jariatzen dituzte, hala nola, kolagenoa eta MMPak homeostasia mantentzeko eta sinusoide hepatikoko zelula endotelialei sostengua emateko. Gainera, sinusoideen uzkurketan parte hartzen dute odol fluxua erregulatzeko.




**9. Irudia. Gibeleko zirkulazioaren eta lobuluxka hepatikoen eskema.** A) Gibeleko zirkulazioa. Arteria hepatikoak oxigenodun odola helarazten dio gibelari eta porta zain hepatikoak urdail, pankrea, barea eta hesteetatik nutrientez beterik datorrena. Odol hori iragazi denean, hondakinak zain hepatikoetatik beheko kaba zainera edo behazunarekin batera konduktu hepatikora bideratzen dira kanporatzeko. *Irudia BioRender.com bidez sortutakoa da.* B) Lobuluxka hepatikoen eskema. Gibela lobuluxka izeneko egituratan banaturik dago. Lobuluxka hauetako bakoitzak behazun hodia, porta zainak eta arteria hepatikoak eratzen duten hirukote portalarekin komunikaturik daude, zeinak nutriente eta oxigenotan aberatsa den odola hepatozitoetaraino bideratzen duen, odola sinusoide hepatikoetara drainatuz. Behin hepatozitoek odol hori iragazi ostean, lobuluxka erdiko zain hepatikoaren adarkapen batek odola berriro biltzen du hondakinak kanporatzeko. *Irudia Amparo Hidalgo Galianak egindakoa da (Ig: ahg_ilustracion).*

Gibeleko zelulekin bukatzeko, organoaren sistema fagozitiko mononuklearraren barnean, gibeleko bertako makrofagoak edo Kupffer zelulez (ingelesez *Kupffer Cells*, KC) aurki daitzeke. Endotelioari atxikiturik daude eta beraien funtzioen artean eritrozito zaharkituen eta elementu arrotzen fagozitosia eta antigenoen aurkezpena daude. Hauez gain, gibeleko immunitatea mantentzen, linfozitoak, neutrofiloak, Pit deritzen NK motako zelulak eta T errezeptorea daramaten NK (NKT) zelulak aurki daitezke besteak beste (Peng et al., 2016; Van den Eynden et al., 2013). Pit zelulak sinusoide hepatikoan kokatzen dira, zelula endotelialekin eta KC zelulekin kontaktuan. Patogeno edo tumore-zelula bat atzematean Pit zelulek perforinak eta granzimak jariatzen dituzte zitolitikoki elementu arrotza ezabatzeko. NKT zelulak, ordea, MHCa ezagutzen duten T errezeptorea aurkezten dituztenez gero, T linfozitoak bezalakoak dira (Nakatani et al., 2004).

## 4.3. Kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoaren mikroingurumena.

Aurreko atalean azaldu dugun bezala gibela funtzio ugari betetzen dituen organoa da, beraz, orotariko zelulak aurki daitezke gibeleko tumore baten mikroingurumenean. Gibeleko metastasiaren garapena lau fase nagusitan sailkatu daiteke: lehenengoan (fase mikrobaskularra) tumore zelula sinusoideko odol-hodietara atxikitu eta estrabasatu egiten da; bigarrenean (fase estrabaskularra), estromako zelulak mikrometastasia dagoen zonaldera hurbiltzen dira; hirugarrenean (fase angiogenikoa) zelula endotelialak erreklutatzen dira tumorea baskularizatzeko eta laugarrenean (hazkuntza fasea) tumore metastatikoaren hazkuntza gertatzen da (Van den Eynden et al., 2013). Hortaz, metastasi prozesuaren fasearen arabera, zelula batzuek edo besteek izango dute garrantzia handiagoa tumorearen garapenean.

Behin gibelera helduta, tumore zelulek aurkitzen dituzten lehenengo zelulak LSECak, makrofagoak eta, batez ere, KCak dira. Printzipioz, hauek, minbizi zelulak ezabatzeko gaitasuna dute, baina deuseztatze prozesua ondo gertatu ez bada, tumore zelulek KCak aktibatu ditzakete. Egoera berri honetan, KCek zitokina pro-inflammatorioak jariatzen hasten dira, hala nola IL-1 eta TNF-α, zeintzuek LSECen adhesio molekulen espresioa emendatu egingo duten eta beraz, tumore zelulak atxikitu egingo zaizkie, estrabasazioa ahalbidetuz (Clark, A. M. et al., 2016). Hala ere, kontuan izan behar da LSECek ere bestelako zelulekin interakzionatzen dutela eta beraz, prozesu hau beste bide batzuetatik ere aktiba daitekeela.

Ondoren, gibeleko metastasiaren fase estrabaskularrean, organoa inbaditzen hasi diren minbizi zelulek gibeleko zelula estromalen erreklutamendua bultzatzen dute. Horietatik lehendabizi heltzen direnen artean HSCak daude, zitokinak, hazkuntza faktoreak, MMPak eta I eta III motako kolagenoa ekoizten dituztenak besteak beste (Tsuchida & Friedman, 2017; Van den Eynden et al., 2013). PCAn bezala, fibrosia metastasi hepatiko batzuen ezaugarrietako bat da, kasu honetan, HSCek jariaturiko eta kolagenoaren eta HSC zein KCek ekoiztutako MMPen ondorioz gertatzen dena (Matsumura et al., 2014; Van den Eynden et al., 2013). Ekoizpen hori mikroingurumeneko gainerako zelulek bultza dezakete batez ere β Tumore Hazkuntza-Faktorearen (ingelesez *Tumor Growth Factor β*, TGF-β) bidez. Gainera, VEGFak ere HSCen jariapena sustatzen duela behatu izan da angiogenesiarekin batera (Tsuchida & Friedman, 2017). Azken hau metastasiaren hirugarren fasearen oinarria da. Aurrerago azaldu dugun bezala, tumorea hazten doan heinean inguruneko oxigenoa agortu egingo da eta odol baso berriak sortzeko beharra izango du minbiziak. Tumore zelulek, zein hipoxia egoerak zitokina eta hazkuntza-faktore pro-angiogenikoen ekoizpena bultzatuko dute zelula endotelialak erreklutatzeko (Takeda et al., 2002).

Amaitzeko, kolon-ondesteko metastasi hepatikoaren mikroinguruneko zelulek immunoerregulazioan duten papera aipatu behar da. Lehenago adierazi den bezala, makrofagoak zelula arrotzak sutsitzeaz arduratzen diren arren, minbizi zelulen presentzian, TAMek fenotipo pro-inflamatorioa eta immunosupresorea aurkeztu dezakete. Alde batetik TMEko zelula desberdinen erreklutamendua bultzatu dezakete hantura egoera mantentzeko eta bestetik, $T_c$, $T_h$ eta NK zelulak inhibitu ditzakete $T_{reg}$-ak induzitzen dituen bitartean erantzun immunea blokeatzeko (Cortese et al., 2019). Hitz gutxitan, minbiziaren garapena TMEko zelulek eta beraien jariakinen arteko elkarrekintzek zehaztuko dute.

# 5. MINBIZIAREN AURKAKO TRATAMENDUAK

Zoritxarrez, minbizia maiz sortzen den gaitza da. Kasu batzuetan gaixotasunaren agerpena goiz detektatzeko gai gara prebentzio programei esker, baina beste askotan ez daukagu gaixotasuna bera edota metastasia aurresateko markatzailerik. Are gehiago, nahiz eta tumorea aurkitu, sarritan ez daukagu gaixotasuna guztiz desagertarazteko metodorik, batez ere tumore-zelulak organismoko gainerako organoetara barreiatu badira.

Minbiziaren tratamendurako erabiltzen diren terapien artean kirurgia, erradioterapia eta kimioterapia dira metodo ezagunenak. Tumore motaren eta kokapenaren arabera, tratamendu bat edo bestea aukeratzen da gaixotasunaren aurka jotzeko. Aitzitik, askotan ez da posible izaten tumorea kirurgia bidez erauztea edota erradiazioa tumorearen kontra zuzentzea, horregatik, kimioterapia da kasu gehienetan erabiltzen dena. Edonola ere, kasu batzuetan minbiziaren aurka egiteko erabiltzen diren agente kimioterapikoek ez dute esperotako efektua izaten tumoreak aurkezten duen kimioerresistentzia dela eta. Gainera, farmako horiek organismo guztian eragiten dutenez gero, zehar-efektu ugari sortarazten dituzte eta beraz, gaixoen ongizatea bermatzea ez da posible izaten. Hori dela eta, bai kimioterapiaren eragina indartzeko, zein gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, gaur egun tratamendu konbinatuak ematen dira, hau da, medikamentu kimioterapikoak beste farmako batzuekin edota osagarri nutrizionalekin batera ematen dira.

Gibel eta pankreako inflamazio kronikoak minbizia sor dezakeela ezaguna da aurrerago aipatu dugun moduan. Organismo batean zauri edo kalteren bat gertatzen denean hantura prozesua aktibatzen da sendaketarako, non alde batetik, immunitate zelulak erreklutatzen diren edozein agente arrotz deuseztatzeko eta bestetik, fibroblastoak ere bai ehuna konpontzeko. Prozesua aurrera joan ahala ROSak sortzen dira, zeintzuek hantura areagotu egin dezaketen (Coussens & Werb, 2002). Horiek horrela, minbizi zelulak dauden zonaldea etengabeko hantura prozesuan badago, TMEak asaldaturik jarraituko du zelula tumoralen alde jokatuz, eta azkenean minbizia garatuko da. Horregatik, eta lehenago azaldutako faktoreak kontuan izanda, terapia berriak erabiltzen hasi dira zuzenean tumore zelulen aurka bakarrik eraso egin beharrean, TMEak minbiziari eskaintzen dion laguntza ere murrizteko eta kimioerresistentziari aurre egin ahal izateko. Adibide bezala, konposatu antioxidatzaileak daude, ROSen aurka jokatzen dutenak, eta baita farmako antiinflamatorio eta immunomodulatzaileak ere hantura egoera iraunkor hori erregulatu ahal izateko.

## 5.1. Kimioterapia

Aipatu dugunez, minbizia tratatzeko ohiko modua kimioterapia erabiltzea da kontrolik gabeko hazkuntzan dauden zelulak gelditu edota hiltzeko. Baina zoritxarrez tumore zelulak etengabe aldatzen ari dira eta kimioterapiarekiko erresistentzia garatu dezakete (Phi et al., 2018; Yeldag et al., 2018).

Pankreari dagokionez, gehien erabilitako agente kimioterapikoak FOLFIRINOX (azido folinikoa, 5-fluorouraziloa, irinotekan eta oxaliplatinoa,), paklitaxela eta genzitabina dira (Borazanci & Von Hoff, 2014). Duela urte batzuk, paklitaxela nab-paklitaxel (ingelesez *nanoparticle albumin-bound paclitaxel*) bezala erabiltzen hasi zen, lehenik bularreko metastasirako (Fu et al., 2009), eta denborarekin beste minbizi batzuetarako erabiltzen hasi da. Halaber, azken urteotan genzitabina eta paklitaxel agente bien konbinazioa erabili izan da, bata zitotoxikoa eta bestea zitostatikoa, zeinak PCA duten gaixoen bizi-itxaropena luzatzea lortu duen (Von Hoff et al., 2013). Hala ere, aurrerago aipatu dugun moduan, PCA kimioerresistentea izaten da maiz. Ikertzaile desberdinek TAMek genzitabina, paklitaxela eta beste kimioterapiko batzuen efektua murriztu egiten dutela ikusi dute (Mantovani, G. et al., 2006; Weizman et al., 2014) kimioerresistentzia areagotu egiten delarik. Honen aurka kimioterapiarekin batera erradioterapia erabiltzen ari dira, konklusio zehatzik lortu gabe (Landau & Kalnicki, 2018).

CRCaren metastasi hepatikorako, aldiz, gehien erabiltzen diren kimioterapikoak irinotekan, 5-fluorouraziloa, oxaliplatinoa eta kapezitabina dira (Grapsa et al., 2015). Hasiera batean banaka ematen ziren arren, gaurko joera beraien arteko konbinazioak erabiltzea da, FOLFOX (Azido folinikoa, 5-fluorouraziloa eta oxaliplatinoa), FOLFIRI (Azido folinikoa, 5-fluorouraziloa eta irinotekan) edo FOLFIRINOX moduan (Fujita et al., 2015). Kimioerresistentziak alabaina arazoa izaten jarraitzen du. Irinotekanek adibidez, hakuntza faktore epidermalaren errezeptorearen (ingelesez *Epidermal Growth Factor Receptor*, EGFR) aktibazioa bultzatzen du, zeinak beste funtzio batzuez gain, zelulen proliferazioa eta onkogeneen espresioa eragiten duen (Petitprez & Larsen, 2013). Bestalde, kimioterapiko hauen efektua areagotzeko gaur egun, VEGF zein EGFRen aurkako antigorputzak ematen zaizkie (bevacizumab eta zetuximab) kimioterapiarekin batera, edota baita regorafenib izeneko tirosina kinasen inhibitzailea (Vogel et al., 2017), kimioerresistentzia induzitzen duten faktoreak nolabait blokeatzeko eta minbiziaren hazkuntza geldiarazteko (Sueur et al., 2016).

Dena dela, pazienteek zeharkako-efektuak pairatzen dituzte (Borazanci & Von Hoff, 2014; Van den Eynden et al., 2013). Beraz, ikertzaileak hori ekiditeko, droga berriak bilatzen ari dira, minbizi zelulentzako toxikoak direnak, baina zelula normalentzako kalterik eragiten ez dutenak hain zuzen ere.

## 5.2. Mikronutriente naturalen efektua minbizian

Antzinatik gaixotasunak sendatzeko naturak eskaintzen dituen produktuak erabili izan dira. Gaur egun, aldiz, sendagai gehienak sintesi kimikoaren bidez sortzen ditugun arren, asko landareetatik eratorriak dira. Arrazoi horregatik, minbizia tratatzeko konposatu naturalak aztertzen hasi ziren.

Mikronutriente naturalen arloan aipatzekoak dira esaterako flabonoideak edo landareetatik datozen polifenolak, bitaminak eta mineralak. Espezia askok ere, adibidez, kurkuma, jengibrea, azafraia, piperbeltza, piperminak eta abarrek minbizia prebenitzeko eta tratatzeko gai izan daitezkeen biologikoki aktiboak diren osagaiak eskaintzen dituze (Zheng et al., 2016). Orokorrean, molekula hauek propietate immunomodulatzaileak, antioxidatzaileak eta antiinflamatorioak dituztela esan liteke eta horregatik, minbiziaren tratamenduan lagungarriak izan daitezkeela uste da. Polifenolei dagokienez, te berdearen epigalokatektina-3-galatoa (EGCG), agente antiinflamatorio, immunomodulatzaile eta antioxidatzailea da proliferazio zelularra inhibitu eta apoptosia areagotu egiten dituena minbizi desberdinetan (de Carvalho et al., 2020; Maruyama et al., 2014; Shirakami & Shimizu, 2018; Yang & Wang, 2010). Bestalde, erregalizak daukan azido glizirrizikoak propietate antiinflamatorioaz gain, minbizi zelulen apoptosia eragiten du eta biriketako minbizian ere metastasia galarazten du (Gol'dberg et al., 2008; Khazraei-Moradian et al., 2017; Wang, Z. Y. & Nixon, 2001). Metastasiarekin erlazionaturik, polifenolek, bitaminek eta bestelako molekulek minbizi zelulen migrazioa ekiditen duela ere frogatu da (AlQathama & Prieto, 2015; Davis-Yadley & Malafa, 2015; Niedzwiecki et al., 2016; Suh et al., 2018). Beste adibibe bat aipatzeko, piperminek daukaten kapsaizinak minbizian parte hartzen duten geneen espresioa aldatzen duela ikusi da CRCn, PCAn eta bularreko zein prostatako minbizietan besteak beste, tumorearen aurka egiteko gaitasuna aurkeztuz (Chapa-Oliver & Mejia-Teniente, 2016). Gainera, mikronutrienteek minbizi kasu batzuetan deregulaturik dauden geneak lehengo egoera osasuntsura itzultzeko gaitasuna daukate (Ratovitski, 2017). Aipatutako osagai naturalez gain eta bitaminetan zentratuz, B motako bitaminen gabeziak minbiziaren sorrera eragin dezakeela behatu da, elementu hauek DNAren osaketan parte hartzen dutelako (Ames & Wakimoto, 2002). Horrez gain, B6 bitaminak p53 tumoreen gene supresorea aktibatzen duela ere ezaguna da (Zhang et al., 2014). Are gehiago, pantotenako kaltzikoak (B5 bitamina) metastasia murriztu eta apoptosi maila igo egin zuen saguen obulutegiko minbizian (Penet et al., 2016). Bestalde, β-karotenoak (A bitamina) eta α-tokoferolak (E bitamina)

tumoreak berriro agertzea ekidin eta tumoreen gene supresorea aktibatzen dute (Lamson & Brignall, 1999).

Halaber, tumore zeluletan eragina izateaz gain, mikronutrienteek TMEan ere aldaketak sortzen dituztela behatu da zeina beharrezkoa den bai tumorearen garapenerako, bai metastasia sortzeko. Zentzu horretan, polifenolek immunitatea erregulatu dezakete, hala nola NK zelulak aktibatuz, TAMak suprimituz, Treg-en aktibazioa deuseztatuz eta Tc-ena suspertuz (de Carvalho et al., 2020). Bestetik, kurkuminak ere immunosupresioari aurre egiten dio immunitate-sistemako zelula zitolitikoen galera saihestuz eta erantzun immunea geldiarazten duten zelulen kantitatea murriztuz (Pan et al., 2019). Era berean, hipoxiak eragindako EMTa ere ekiditen du (Zubair et al., 2017). Horrez gain, β-karotenoa immunoerregulatzaile bezala aztertu zen NK zelulen aktibitatea suspertzen duela ikusi baitzuten (Pan et al., 2019). Jarraiki, flabonoideak ere beste adibide on bat dira, izan ere CAFen efektu pro-tumorala modu desberdinetan inhibitu dezaketela behatu baita. Esaterako, CAFek jariatzen dituzten hazkuntza faktore, zein MMPen espresioa erregulatu dezakete eta modu berean kolagenoaren ekoizpena murriztuarazi dezakete TMEaren birmodelazioa bultzatuz (Hu et al., 2017; Sartippour et al., 2002; Suh et al., 2018).

Laburbilduz, hainbat konposatuk minbiziaren aurkako propietateak dituztela frogatu denez (Lichota & Gwozdzinski, 2018), elementu hauek minbizia tratatzeko erabiltzen diren oinarrizko terapiekin batera emateak zein eragin izan dezakeen aztertzea gero eta arruntagoa da.

## 5.3. Mikronutriente naturalak kimioterapiaren osagarri bezala

Esan bezala, mikronutriente naturalek minbiziaren aurka egiteko gaitasuna dute. Gainera, substantzia naturalak diren heinean, ez dute zehar-efekturik eragiten. Horrek guztiak produktu naturalak kimioterapiarekin batera erabiltzera bultzatu ditu onkologia arloko ikertzaileak, bai kimioterapiaren eragina indartzeko, bai zehar efektuak arintzeko eta azken finean gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko.

Horiek horrela, osagarri nutrizionalak ordura arte ezarritako terapiekin konbinatuta ematen hasi ziren, zeinak kasu askotan pazienteen pronostikoen hobekuntza eragin zuen. Azido glizirrizikoak esaterako, terapia zitostatikoen eraginkortasuna hobetu zuela frogatu zen tumore desberdinetan (Gol'dberg et al., 2008). Kurkuminak baita, ezaugarri antiinflamatorio eta

antioxidantzaileez gain, ondesteko kartzinomarako erabilitako irinotekanarekiko kimioerresistentzia murrizten duela ikusi zen (Su, X. et al., 2017). Kapsaizinak ere 5-fluorouraziloararekiko sentikortasuna areagotzen duela ondorioztatu zen saguen kolangiokartzinoman (Hong et al., 2015) eta baita leukemia mieloideko zeluletan ere (Clark, R. & Lee, 2016). Horrez gain, azido askorbikoak (C bitamina) ere genzitabina kimioterapikoarekin batera ematerakoan bere efektu antitumorala indartu egiten duela ikusi zen PCAn (Espey et al., 2011) eta baita oxaliplatino zein irinotekanena giza CRC-ko zeluletan (Pires et al., 2018).

Orain arte aipatutakoa aintzakotzat harturik, ukaezina da produktu naturalek berezko propietateak dituztela minbizi zelulen eta TMEaren elementu pro-tumoralen aurka egiteko maila desberdinetan. Horregatik, ezaugarri horiek produktu naturalak terapia osagarri bezala erabiltzeko bultzada eragin du.

## 5.4. Ocoxin

Ocoxin (Catalysis S.L.) te berdez, azido glizirrizikoz, B6, B12 eta C bitaminez, aminoazidoz eta mineralez osaturiko nutrizio osagarri bat da propietate antiinflamatorio, immunomudulatzaile eta antioxidatzaileak dituena. Beste izendapen batzuk ere izan ditu: *Oncoxin*, *Ocoxin + Viusid eta Ocoxin Oral Solution*. Jarabe honen osagai desberdinek funtzio antitumorala daukatela frogatu da eta hortaz, elementu guztien konbinazioak efektu hori indartu dezakeen aztertu nahi izan da.

Azken urteotan konposatu hau minbizi eredu desberdinetan frogatu da *in vitro* eta *in vivo*, esaterako kartzinoma hepatozelularrean (ingelesez *Hepatocellular carcinoma*, HCC), leukemia mieloide akutuan (ingelesez *Acute Myeloid Leukemia*, AML), zelula txikietako birikako minbizian (ingelesez *Small-Cell Lung Cancer*, SCLC) eta bularreko minbizian (Diaz-Rodriguez et al., 2016; Diaz-Rodriguez et al., 2017; Díaz-Rodríguez et al., 2018; Hernandez-Garcia et al., 2015). Gainera, emaitza onak lortu izan direnez, orain entsegu klinikoak egiten ari dira.

# II. HIPOTESIA ETA HELBURUAK

# II. HYPOTHESIS AND OBJECTIVES

# II.I. HIPOTESIA

Jakinik tumorearen mikroingurumeneko elementuek kimioterapiaren eraginkortasuna murrizten dutela eta konposatu antioxidatzaile, antiinflamatzaile eta immunoerregulatzaileek minbiziaren garapenaren aurka jokatzen dutela hurrengo **hipotesia** proposatzen da:

Ocoxin konposatu naturalak propietate *propietate antiinflamatorio, antioxidatzaile eta immunoerregulatzaileak dituela eta minbiziaren garapenean tumorearen mikroingurumeneko zelulek*

# II.II. HELBURUAK

Lan honen **helburu nagusia** honakoa da:

Ocoxinen efektua ikertzea pankreako minbiziaren eta kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoaren garapenean eta tumore hauen mikroingurumenean, bai bakarrik erabilita, baita ohiko kimioterapikoekin batera konbinaturik hauen eraginkortasunean eraginik duen aztertzeko.

Horretarako hurrengo **helburu zehatzak** ezarri ziren:

1. Ocoxinek minbizi zelulen bideragarritasunean, migrazioan eta ziklo zelularrean *in vitro* nola eragiten duen ikertzea.
2. Ocoxinek PCA eta CRCaren metastasi hepatikoko zelulen espresio genikoan eragiten duen aztertzea.
3. Ocoxinek PCAren eta CRCaren metastasi hepatikoaren garapenean duen efektua *in vivo* behatzea.
4. Ocoxinek PCAko eta CRCaren metastasi hepatikoko tumoreen mikroingurumenearen elementuen gain duen eragina *in vivo* aztertzea.
5. Ocoxinek zitokinen profilean *in vivo* aldaketak sorrarazten dituen analizatzea.
6. Ocoxinek kimioterapiaren zitotoxizitatea areagotzen duen behatzea.
7. Ocoxinek estromak eragindako kimioerresistentzia *in vitro* eta *in vivo* deusezten duen aztertzea.

# III. MATERIALAK ETA METODOAK

# III. MATERIALS AND METHODS

# III.I. MATERIALAK / MATERIALS

## 1. OCOXIN

Ocoxin (Catalysis S.L., Spain) propietate antiinflamatorio, immunomudulatzaile eta antioxidatzaileak dituen mikronutriente nutrizional desberdinen konbinazioaren ondorioz sorturiko konposatua da. Bere osagaien artean elementu naturalen estraktuak, bitaminak, aminoazidoak eta mineralak daude batez ere. Konposizio zehatza eta osagai bakoitzaren kontzentrazioak hurrengo taulan bilduta daude (1. taula):

**1. Taula. Ocoxin konposatuaren konposizioa (100 ml-ko).**

| Osagaiak | Components | Kontzentrazioa |
|---|---|---|
| **Glizina** | **Glycine** | 2 g |
| **Glukosamina** | **Glucosamine** | 2 g |
| **Azido malikoa** | **Malic acid** | 1,2 g |
| **Arginina** | **Arginine** | 640 mg |
| **Zisteina** | **Cysteine** | 204 mg |
| **Glizirrizinato monoamonikoa** | **Monoammonium glycyrrhizinate** | 200 mg |
| **Azido askorbikoa** | **Ascorbic acid** | 120 mg |
| **Zink sulfatoa** | **Zink sulphate** | 80 mg |
| **Te berdearen estraktua** | **Green Tea extract** | 25 mg |
| **Kaltzio pantotenatoa** | **Calcium pantothenate** | 12 mg |
| **Piridoxina** | **Pyridoxine** | 4 mg |
| **Manganeso sulfatoa** | **Manganese sulfate** | 4 mg |
| **Kanela estraktua** | **Cinnamon extract** | 3 mg |
| **Azido folikoa** | **Folic acid** | 400 µg |
| **Zianokobalamina** | **Cyanocobalamin** | 2 µg |

## 2. FARMAKOAK

### 2.1. Barbiturikoak

#### 2.1.1. Nembutal

Nembutala edo pentobarbital sodikoa (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) denbora laburreko anestesikoa da. Espezie handietan sedatzaile edo hipnotiko bezala dihardu eta espezie txikietan anestesia orokor bezala erabiltzen da. Eutanasiarako ere erabili ohi da dosi altuetan. Kasu honetan, saguen kirurgia hasi aurretik animaliak anestesiatzeko erabili zen 50 mg / sagu Kg dosiarekin.

## 2.2. Kimioterapikoak

### 2.2.1. Irinotekan

Irinotekana (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) CRCko, PCAko edota biriketako minbizien aurka erabiltzen den konposatu zitotoxikoa da, DNA Topoisomerasa I-a inhibitzen du eta DNAren kate sinpleetan kalteak eragiten ditu, erreplikazioa blokeatuz. Lan honetan irinotekana alde batetik *in vitro* entseguetan 50 µMeko kontzentrazioarekin erabili zen eta bestetik, CRCtik eratorritako metastasi hepatikoa garatu zuten saguak *in vivo* tratatzeko ere erabili zen 20 mg / sagu Kg dosiarekin.

### 2.2.2. Genzitabina

Genzitabina (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) kimioterapian erabiltzen den farmakoa da. Zelula barnean metabolizatzen denean ahalmen zitotoxikoa duten 2 nukleosido sortzen dira, eta beraz DNAren sintesia galarazten du zelulen apoptosia induzituz. Ordura arte biriketako minbizia, pankreakoa, bularrekoa, obariokoa eta puxikakoa tratatzeko erabili izan da gizakietan. Lan honetan PCAko zelula lerro desberdinak genzitabina 1µM-ko dosiarekin tratatu ziren, bakarrik eta paklitaxelarekin batera.

### 2.2.3. Paklitaxel

Paklitaxela (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) PCA, bularreko minbizia, biriketakoa, prostatakoa, melanoma eta beste hainbat tumore tratazeko erabiltzen den kimioterapikoa da. Konposatu honek tubulina dimeroetatik abiatuz mikrotubuluen muntaia estimulatzen du, aldi berean hauen despolimerizazioa ekidituz, hau da, mikrotubuluak egonkortzen ditu. Ondorioz, paklitaxelak ardatz mitotikoaren eraketa eragozten du, zelulen zatiketa blokeatu egiten delarik. Lan honetan farmako hau PCAko zelula lerro desberdinak tratatzeko erabili zen 1µM-ko dosiarekin, bai bakarrik eta bai genzitabinarekin konbinatuta.

# 3. ZELULA LERROAK

## 3.1. Tumore zelulak

### 3.1.1 Sagu zelulak

#### *3.1.1.1 C26*

C26 zelulak (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia), CT26 edo MCA26 bezala ere ezagutzen direnak, 1,2-dimetil hidrazinaren eraginpean egondako BALB/c saguetan sortutako koloneko adenokartzinomatik erauzitakoak dira. Zelula lerro honek tumoreak sortzeko gaitasuna du bai injektatzen diren gunean eta baita metastasia eragiteko ere. BALB/c saguekiko singenikoak izanik, C26 zelulak CRCaren metastasi hepatikodun *in vivo* sagu-eredua sortzeko erabili zen. Horrez gain, Ocoxinen zitotoxizitatea aztertu zen zelula hauetan bai bera bakarrik, bai irinotekanekin konbinaturik.

#### *3.1.1.2. 266-6*

266-6 zelulak (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia) sagu transgenikoen azino pankreatikoetatik erauzita daude. Sagu transgeniko hauek 40 tximu birusaren (ingelesez *Simian Virus 40,* SV40) T antigeno txiki eta handia kodifikatzen duen gene arrotz bat daramate arratoiaren elastasa I genearen barruan, elastasa I genearen espresioa erregulatzen duten elementuekin batera. Elastasa sagu fetuaren garapenaren 14. egunean espresatzen da, pankreako zelula azinarrak desberdintzen hasten direnean hain zuzen ere. Azterketen arabera, gene hau azinoetan bakarrik esperesatzen da. Ocoxinek zelula hauetan eragiten duen zitotoxizitatea aztertzeaz aparte, 266-6 zelulak C57BL/6J saguekiko singenikoak izanik, PCAren *in vivo* eredua garatzeko erabili ziren.

### 3.1.2 Giza zelulak

Minbizia hain gaixotasun heterogeneoa izanik, PCAn Ocoxin konposatuaren zitotoxizitatea eta honek paklitaxel edota genzitabina kimioterapikoekin izan dezakeen sinergia aztertzeko, zelula-lerro desberdinak erabili ziren.

#### *3.1.2.1. BxPC-3*

61 urteko emakume baten adenokartzinoma pankreatikotik erauzitako zelula tumorigenikoak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia). Zelula hauek morfologia epiteliala aurkezten dute eta ama-zelulen markatzaile ugari

espresatzen dituzte. Gainera, ez dute PCA zeluletan ohikoa den KRAS mutazioa aurkezten eta muzina, zein faktore proangiogenikoak ekoizten dituzte. Bestalde, zelula hauek, zelula osasuntsuek baino SMAD4 gene tumore supresorearen kopia gutxiago dituzte.

*3.1.2.2. Capan-2*

Duktuetako adenokartzinoma pankreatikodun 56 urteko gizon bateko pankreatik erauzitako zelulak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia). Morfologia epiteliala aurkezten dute eta KRAS onkogenearen mutazioa daramate. Zehazki 12. kodoiean GGT sekuentzia GTT bihurtu da eta beraz, glizina ordez, valina daukate. Horrez gain, zelula hauek EGFR gainespresatu egiten dute, SMAD4 genearen espresioa zelula osasuntsuenaren bezalakoa den bitartean.

*3.1.2.3. CFPAC-1*

CFPAC-1 zelula lerroa (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia) 26 urteko fibrosi kistikodun paziente baten sortutako pankreako adenokartzinoma duktaletik erauzi zen. Fibrosi kistikoa duten gaixoek kasu askotan pankreatitis idiopatikoa aurkezten dute, zeinak pankreako minbizia eragin dezakeen. Horrez gain pazienteak metastasia zeukan gibelean, hots CFPAC-1 zelulek metastasia eragin dezakete. Morfologiari dagokionez, itxura epiteliala aurkezten dute eta pankreako zelula duktalen bereigazgarri diren zitokeratina zein antigeno onkofetalak espresatzen dituzte. Bestalde, zelula hauek fibrosis kistikoaren CF genearen fenilalanina-508aren delezioa, SMAD4 genearen kopien murrizketa eta Capan-2 zelulek duten KRAS genearen mutazio berdina aurkezten dituzte.

*3.1.2.4. HPAF-II*

Zelula lerro hau adenokartzinoma pankreatiko primarioa eta gibel, diafragma eta nodulu linfatikoetan metastasia zeukan 44 urteko paziente bateko fluido aszitiko peritonealetik erauzitako adenokartzinoma panreatikoko zelulak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia). HPAF-IIak zelula pleomorfikoak dira eta Muc 1 eta Muc 4 muzina geneak espresatzen dituzte, hauetako lehenengoa gainespresatzen duelarik. Gainera KRAS genearen mutazioa daramate 12. kodoiean non GGT GAT bihurtzen den, hau da, glizina ordez azido aspartikoa dute eta aldi berean, genearen kopiak anplifikaturik daude.

*3.1.2.5. Panc10.05*

Pankrearen buruan adenokartzinoma pankreatikoa zeukan gizon batengandik erauzitako zelulak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia). Bestalde, HPAF-II zelulen KRAS onkogenearen mutazio berbera daramate.

*3.1.2.6. SW1990*

Pankrea exokrinoan garatutako adenokartzinoma pankreatikodun gizaki baten bareko metastasitik erauzitako zelulak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U., Espainia). SW1990 zelulek ere HPAF-II eta Panc 10.05 zelulen KRAS onkogenearen mutazio berdina daramate eta hauek ere SMAD4 genearen kopien murrizketa aurkezten dute.

## 3.2. Zelula ez-tumoralak

### 3.2.1. Sagu zelulak

*3.2.1.1 BALB/3T3 clone A31*

BALB/3T3 clone A31 (edo 3T3) zelulak, BALB/c enbrioietatik erauzitako fibroblastoak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U. Bartzelona, Espainia). Alde batetik, zelula estromal osasuntsu gisa erabili ziren zitotoxizitate frogak egiteko eta bestetik, beraiek ekoiztutako faktore soluigarrietan aberatsa den medioa jaso zen estromaren eragina ikertzeko sagu tumore zelulen aurrean eta baita kimioerresistentzia aztertzeko ere.

*3.2.1.2 J774A.1*

Zelula hauek BALB/c saguen likido aszitikotik erauzitako makrofagoak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U. Bartzelona, Espainia). Ezaugarri bereizgarri bezala, IL-5 ekoizten dute. Zelula osasuntsu gisa erabili ziren zitotoxizitatea aztertzeko.

### 3.2.2. Giza zelulak

*3.2.2.1 MRC-5*

MRC-5 zelulak giza biriketatik erauzitako fibroblastoak dira (ATCC, LLGC Standards S.L.U. Bartzelona, Espainia). 3T3 zelulen moduan, hauek jariaturiko

faktore soluigarridun medioa batu egin zen tumore zelulengan eragiten zuen efektua eta kimioerresistentzia aztertzeko.

# 4. ZELULEN HAZKUNTZA ETA MANTENURAKO MEDIO ETA OSAGARRIAK

## 4.1. Hazkuntza medioak

### 4.1.1 RPMI-1640

RPMI-1640 hazkuntza medioa (Gibco, Estatu Batuak) zelula guztien hazkuntzarako eta tratamenduetarako erabili zen. Hazkuntza medio hau hainbat zelula mota hazteko erabilgarria dela frogatu da, hauen artean ugaztun zelulak eta minbizi zelulak. RPMI-1640 medioaren ezaugarri bereizgarriak glutation agente erreduktorea eta glukosa (2 g/L) zein bitaminen kontzentrazio altua dira (biotina, B12 bitamina eta azido folikoak duen azido para-aminobenzoikoa). Horrez gain, hazkuntza medio honek fenol gorria darama medioaren pH-a begi bistaz antzemateko. Kultiboko zelulen metabolitoen jariapenaren ondorioz medioaren pH-a azidifikatzen bada, fenol gorriak hori kolorea hartuko du.

Kultibo medio honek ez dauka proteinarik, lipidorik, ezta hazkuntza faktorerik ere. Hori dela eta, normalean gehigarri bat behar izaten du, kasu gehienetan behi serum fetala (ingelesez *Fetal Bovine Serum*, FBS) erabiltzen delarik % 10eko kontzentrazioarekin. Halaber, mikroorganismo arrotzek eragindako kutsadura ekiditeko, medioari antibiotiko eta antimikotikoak gehitzen zaizkio.

## 4.2. Zelulen mantenurako osagaiak

### 4.2.1 Antibiotiko eta antimikotikoak

#### *4.2.1.1. Antibiotiko-antimikotikoak (100X)*

Bakterio eta onddoen kutsadura ekiditeko kultibo medioari antibiotiko-antimikotiko soluzioa gehitu zitzaion (Gibco, Estatu Batuak). Honen osagarriak penizilina (100 U/ml), estreptomizina (100 µg/ml) eta anfoterizina B (0.25µg/ml) dira. Penizilina eta estreptomizinak bakterio Gram positivo eta Gram negatiboak hiltzen dituzte eta anfoterizinak onddo eta legamien hazkuntza ekiditen du.

*4.2.1.2 Gentamizina*

Gentamizina (Gibco, Estatu Batuak) espektro zabaleko antibiotikoa da mikroorganismo Gram-positibo eta Gram-negatiboen hazkuntza inhibitzen dituena, baita Pseudomonas, Proteus, Staphylococcus eta Streptococcus andui erresistenteen kasuan. Animaliengandik zuzenean lortutako zelulen kasuan, hots, kultibo primarioetan, antibiotiko hau erabili zen kultiboak babes handiagoa izan zezan. Lan honetan saguen gibeletatik erauzitako esplanteetako zelulak kultibatzerakoan erabili zen kutsadurak ekiditeko.

### 4.2.2 Behi-Serum fetala (FBS)

FBSa (Gibco, Estatu Batuak) hazkuntza faktoreak, aminoazidoak, lípidoak eta hormonak daramatzan soluzio bat da. Txahal fetuei odola erauzi ostean, odolari eritrozitoak, fibrinogenoa eta koagulazio proteinak kentzen zaizkio seruma lortzeko. FBSa erabili aurretik 30 minutuz 52 ºC-tan berotzen zen immunitate sistemako konplementuaren proteinak eta hazkuntzaren inhibitzaile ezezagunak inaktibatzeko.

FBSa RPMI-1640 hazkuntza medioaren osagarri bezala erabili zen eta baita immunomarkaketak egiteko bufferrak prestatzeko ere.

### 4.2.3 Giza intsulina birkonbinantea

Pankreak intsulina jariatzen duenez, zelula batzuk hobeto hazten dira intsulinaren presentzian. Lan honetan giza intsulina birkonbinantea (Invitrogen, Estatu Batuak) 10 U/ml kontzentrazioarekin erabili zen Panc10.05 zelulen hazkuntzarako.

### 4.2.4 Zelulen kultiborako soluzioak

*4.2.4.1 Azido etilendiaminotetraazetikodun fosfato gatz tanpoia 4mM (PBS-EDTA)*

Etilenodiaminatetraazetiko azidoaren (EDTAren) (Panreac Quimica SLU, Spain) ahalmen kelanteari esker, $Ca^{2+}$ ioiekin lotzen da eta zelulen arteko loturak apurtu egiten dira. Fosfato gatz tanpoiarekin (ingelesez *Phosphate Buffered Saline*, PBS) diluitzen da 4 mMeko kontzentraziodun etilenodiaminotetraazetikodun fosfato gatz tanpoia (PBS-EDTA) prestatzeko.

Soluzio hau zelulak plastikozko fraskoetatik desitsasteko erabili zen. PBSaren konposizioa 6.6.1. atalean aurki daiteke.

### 4.2.5 Matrize estrazelularreko proteinak

#### *4.2.5.1. I motako kolagenoa*

I motako kolagenoa (Gibco, Estatu Batuak) matrize estrazelularreko osagai nagusia da. Ehun konektiboan oso ugaria da eta organoetan ere aurki daiteke ehun desberdinei egitura emanez. Matrize estrazelularreko kolagenoak nutrienteen garraioa errazten du eta zelulei bertan finkatzeko edota migratzeko aukera ematen die. Hori dela eta, C26 zelulak kultibatzeko erabili zen 10 µl/ml kontzentrazioarekin substratura hobeto atxiki zitezen.

#### *4.2.5.2 Txerri azaleko gelatina*

Txerri azaleko gelatina (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) kolagenoa berotuz lortzen da. Tenperatura altuaren ondorioz, kolagenoaren helize hirukoitza destolestu egiten da eta estruktura makromolekular desordenatu bat bezala antolatzen da. Egitura berri honek disolbatzeko erresistentzia eta uzkurketa eta espantsio propietate desberdinak ditu. Gelatina % 0,1eko kontzentrazioarekin erabili zen zelulen matrize estrazelularra bailitzan 266-6 zelulak substratuarekiko hobeto lotzeko.

### 4.2.6 Entzimak

#### *4.2.6.1. Tripsina-EDTA % 0,05*

Tripsina (Gibco, Estatu Batuak) txerri pankreasetik erauzitako proteasa bat da zeinak lotura peptidikoak desegiten dituen. Entzima hau kultibo zelularretan zelulak fraskoetatik askatzeko erabiltzen da. Zehazki tripsina hau 0,53 mM EDTAtan diluituta dago eta % 0,05eko kontzentrazioa du.

# 5. ANIMALIAK

Lan honetan azalduko diren prozedurak EHU/UPV-ko animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearengatik (AEEB) onartuak izan ziren eta esperimentaziorako eta beste helburu zientifikoetarako erabilitako animalien zainketa eta ostatu baldintzak ezartzen dituzten zuzendaritza-kontseiluaren 86/609/EEC direktiba, europako parlamentuaren 2003/65/EC direktiba,

Europako batzordearen 2007/526/CE gomendioa eta estatu mailako RD 53/2013 legea jarraituz burutu dira.

Animalia guztiak EHU/UPV-ko animaliategian mantendu ziren karraskarientzako pentsua eta ura *ad libitum* hartzeko aukera zutelarik.

## 5.1. BALB/c

CRC-ko metastasiko *in vivo* eredu esperimentala 8 asteko adina zuten BALB/c sagu arrekin (Charles River, Espainia) garatu zen garatzeko. Sagu andui hau Bagg albino izeneko saguetatik eratorritakoa da eta batez ere minbizi eta immunologiako ikerketetan erabiltzen da. Lan honetan andui hau erabili zen CRC-ko C26 zelulak hauekiko singenikoak direlako.

## 5.2. C57BL/6J

8 asteko adina zuten C57BL/6J sagu arrak Charles River laborategietan (Espainia) erosi ziren. Sagua andui hau ikerketarako gehien erabiltzen dena da eta bere genoma sekuentziatu diren sagu genometatik lehena izan zen. Tumore batzuekiko erresistenteak diren arren, mutazio gehienak espresatzeko gai dira animalia hauek. Lan honetan, andui hau PCAko *in vivo* eredua garatzeko erabili ziren, PCAko 266-6 minbizi zelulak animalia hauekiko singenikoak baitira.

# 6. SOLUZIO ETA ERREAKTIBO OROKORRAK

## 6.1 Tanpoiak

### 6.1.1. Fosfato gatz tanpoia (PBS)

PBSa zelulen kultiboetarako erabiltzen den soluzio amortiguatzailea da, zelulen kultiboetan pH eta presio osmotikoa ingurune fisiologikoetan bezala manentzea ahalbidetzen duena.

PBSa zelulen garbiketak egiteko erabili zen eta baita zelulak bizirik mantentzeko animalietan inokulatu aurretik. Bestalde, immunohistokimikarako soluzioak eta blokeatzaileak prestatzeko zein garbiketak egiteko ere erabili zen. Tanpoiaren konposaketa 2. taulan ikus daiteke:

**2. Taula. PBS tanpoiaren konposizioa litroko.**

| Substantzia | Kontzentrazioa |
|---|---|
| **NaCl (Sigma-Aldrich, Estatu batuak)** | 8,0 g/l |
| **KCl (Sigma-Aldrich, Estatu batuak)** | 0,2 g/l |
| **$Na_2HPO_4 \cdot 12\ H_2O$ (Sigma-Aldrich, Estatu batuak)** | 2,9 g/l |
| **$KH_2PO_4$ (Sigma-Aldrich, Estatu batuak)** | 0,2 g/l |
| **$H_2O$** | 1 l bete arte |

*Soluzio honen pHa 7,4ra doitu zen*

### 6.1.2. Tris tanpoia

Soluzio amortiguatzaile hau prozesu askotarako erabiltzen da, hala nola, elektroforesi tekniketan edota DNAren erauzketan esaterako. Lan honetan 0,1Meko Tris tanpoia (3. taula) zink soluzio fixatzailea prestatzeko erabili zen:

**3. Taula. Tris tanpoiaren konposizioa litroko 0,1M.**

| Substantzia | Kontzentrazioa |
|---|---|
| **Tris HCl (Sigma-Aldrich, Estatu batuak)** | 15,76 g/l |
| **$H_2O$** | 1 l bete arte |

*Soluzio honen pHa 6,4ra doitu zen*

## 6.2 Detergenteak

Zelulak lisatzeko, proteinak solubilizatzeko eta garbiketa tanpoietan erabiltzen dira.

### 6.2.1 Triton X-100

Triton-X (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) detergente ez-ionikoa da. Zelulen mintzeko proteinak iragazkortzeko erabili zen immunohistokimika entseguetan.

### 6.2.2 Tween 20

Tween-20 (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) detergente ez-ionikoa da Entzimei loturiko immunoabsortzio entseguetarako (ingelesez *Enzyme-Linked ImmunoSorbent Assay*, ELISA), Western Bloterako edota immunoentseguetarako tanpoi desberdinei gehitzen zaiona emultsionatzaile moduan jarduteko. Lan honetan sodio-zitrato tanpoia prestatzeko erabili zen.

## 6.3 Erreaktibo orokorrak

### 6.3.1. Dimetilsulfoxidoa (DMSO)

Dimetil sulfoxidoa (DMSO) (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak) substantzia organikoa da, disolbatzaile bezala, kriobabesgarri bezala edota medikamentu bezala erabiltzen dena zenbait kasutan inflamazioa eta mina murrizteko. Alde batetik liofilizaturik dauden tratamenduetarako farmakoak disolbatzeko erabili zen. Bestetik, zelulen izozketa prozesurako ere erabili zen. DMSOa zelulen bigeruza lipidikoan metatzen da eta urak zeharka ditzakeen poroak eratzen ditu. Poro horiei esker, zeluletako urak bertatik ateratzeko aukera du, izozte prozesuan sortzen diren izotz kristalak medio estrazelularrean sortuko direlarik eta ez zelula barnean.

# 7. FIXATZAILEAK

## 7.1 Formalina

Formalina (Panreac Quimica SLU, Espainia) metanolarekin estabilizatu den % 35-40ko purutasuna duen formaldehidoa da. Agente honek proteinetako hidrogeno loturen apurketa eragiten du eta sare erretikular polipeptidikoa eratzen da ehuna fixatu egiten delarik. Formalina, saguetatik erauzitako gibelak fixatzeko erabili zen.

## 7.2 Zink soluzioa

Zink soluzioa *in vivo* entseguetako saguetatik erauzitako gibelak parafinatan sartu baino lehenago organoak fixatzeko erabili zen. Antigeno batzuk (batez ere immunitate zelulekin erlazionaturi daudenak) formaldehidoarekiko sentikorrak izanik, ordezko metodo bezala hau erabili zen. Zink soluzioa prestatzeko hurrengo kantitateak erabili ziren (4. taula):

**4. Taula. Zink soluzioaren konposizioa litroko.**

| **Substantzia** | Kontzentrazioa |
|---|---|
| **$Ca(CH_3COO)_2$ (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak)** | 0,5 g/l |
| **$Zn(O_2CCH_3)_2$ (Merck, Alemania)** | 5 g/l |
| **$ZnCl_2$ (Merck, Alemania)** | 5 g/l |
| **Tris tanpoia 0,1M pH 7,4 (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak)** | 1 l bete harte |

# 8. ALKOHOLAK ETA DISOLBATZAILEAK

## 8.1. β-merkaptoetanola

β-merkaptoetanola edo 2-merkaptoetanola, etilenglikola eta 1,2-etanoditiolaren arteko molekula hibridoa da disulfuro zubiak erreduzitzen dituena. Hori dela eta, proteinak desnaturalizatzeko edota RNA isolatzeko protokoloetan erabiltzen da zelulen lisiaren ondorioz askatutako erribonukleasak deuseztatzeko eta beraz RNAren degradazioa ekiditeko.

## 8.2.Etanola

Etanola (Panreac Quimica SLU, Espainia) edo alkohol etilikoa prozedura askotarako erabiltzen da. Lan honetan alde batetik RNAren erauzketa gauzatzeko erabili zen. TRIzol™-a eta kloroformoaren metodoaren ostean fase akuosoan aurkitzen den RNA jasotzean etanola gehitzen zaio, zeinak azido nukleikoen prezipitazioa eragingo duen. Bestalde, histologiarako ere erabili zen laginen deshidratazio eta hidratazioa gauzatzeko.

## 8.3. Metanola

Metanolak (Panreac Quimica SLU, Espainia) edo alkohol metilikoak zelulak iragazkortu egiten dituenez, oso erabilia da oso erabilia da azido nukleikoak fixatzeko. Lan honetan alde batetik, zelulak fixatzeko erabili zen, eta bestetik izoztutako organoengandik egindako mozketak fixatzeko ere bai immunofluoreszentzia teknikekin hasi aurretik.

## 8.4. Isopropanola

Isopropanola (Panreac Quimica SLU, Espainia) edo alkohol isopropilikoa RNAren erauzketa prozesuan ere erabili zen. RNA ez da isopropanoletan soluigarria, hortaz, lagina daukan likidoari isopropanola gehituz gero, RNA soluzio horretatik atera eta prezipitatu egiten da.

## 8.5 Zitrosola

Zitrosola (Panreac Quimica SLU, Espainia) zitrikoen azaletik lortzen den disolbatzaile apolarra da, 1,8(9) P-menthadienoa hain zuzen ere. Xilenoaren ordez erabiltzen da histologian ehunen deshidrataziorako.

# 9. TINDATZAILEAK

## 9.1 Kristal bioleta

Kristal bioleta (Merck, Alemania) tindatzaile alkalinoa da zelulak tindatzeko eta mikrobiologian bakterio Gram positibo eta negatiboak bereizteko erabiltzen dena. Azido-base indikatzaile bezala ere erabiltzen da kolorea berdetik (pH 0,5) urdinera (pH 2) aldatzen duelarik. Kasu honetan, kristal bioleta migrazioa burutu zuten zelulak tindatzeko erabili zen, kuantifikazioa burutu ahal izateko.

## 9.2 Harrisen hematoxilina eta eosina

Harrisen hematoxilina (Merck, Alemania) tindatzaile basikoa da, estruktura azidoak kolore urdinez edo purpuraz tindatzen ditu. Lagin histologikoetan zelulen nukleoak tindatzen dituenez, ehunari kontrastea emateko erabili zen bai tindaketa histologikoetan, bai immunohistokimikako entseguetako laginetan. Eosina (Merck, Alemania), aldiz, tindatzaile azidoa izanik, estruktura basikoak kolore arrosaz tindatzen ditu, hala nola, zitoplasma, kolagenoa edota zuntz muskularrak. Normalean hematoxilinarekin batera erabiltzen da kontraste-tindatzaile bezala, hematoxilina-eosina (H&E) deritzon tindaketa burutzeko. Eosina ehunak tindatu eta estrukturak bereizteko erabili zen tindaketa histologikoetan.

# 10. ANTIGORPUTZAK

## 10.1. Antigorputz primarioak

### 10.1.1. Anti-Muskulu Leuneko Alfa Aktina (α-SMA) antigorputz monoklonala

Anti-α-SMA antigorputz monoklonal honek (Agilent Technologies, Estatu Batuak) muskulu leun baskularretan, miofibroblastoetan eta zelula mioepitelial zein horietatik eratorritako zeluletan espresatzen den α-SMA ezagutzen du. Lan honetan saguen gibeleko tumoreetako HSCak behatzeko erabili zen, izan ere, fibroblasto aktibatu hauek α-SMA espresatzen baitute (5. taula).

### 10.1.2. Anti-Caspasa-3 antigorputz poliklonala

Caspasa-3 apoptosiarekin erlazionaturik dagoen proteína da. Caspasa-3 32 kDa-eko proentzima inaktibo bezala sintetizatzen da, eta zelula apoptosian dagoenean, prozesatu egiten da 17 eta 12 kDa-eko bi subunitate emanez. Anti-Caspasa-3 antigorputza (Abcam, Erresuma Batua) proentzima inaktiboari lotzen zaio. Lan honetan sagu tumore zelulen apoptosi maila aztertzeko erabili zen (5. taula).

### 10.1.3. Anti-ki67 antigorputz monoklonala

Ki-67 proteina nuklearra da, ziklo zelularraren fase aktiboetan ($G_1$, S, $G_2$ eta M) espresatzen dena. Lan honetan anti-Ki-67 antigorputza (Abcam, Erresuma Batua) sagu zelulen proliferazioa detektatzeko erabili zen (5. taula).

### 10.1.4. Anti-F4/80 antigorputz monoklonala

Anti-F4/80 antigorputza (AbD Serotec, Erresuma Batua) makrofago helduen eta mikrogliaren markatzaile gisa erabiltzen da. Lan honetan saguen gibeleko tumoreetan gertatzen den makrofagoen erreklutamendua ikertzeko erabili zen (5. taula).

### 10.1.5. Anti-SV40aren T antigeno handiaren antigorputz monoklonala

Anti-SV40aren T antigeno handia (Abcam, Erresuma Batua) saguen PCAko 266-6 zelulen markatzaile gisa erabili zen, zelula hauek SV40aren T antigeno handiaren transgenea espresatzen baitute (5. taula).

**5. Taula. Sagu ehunetan analisi immunohistokimikoak egiteko erabilitako antigorputz primarioen zerrenda.**

| Antigorputza | Non ekoiztua | Zeren aurka | Klona | Etxe komertziala |
|---|---|---|---|---|
| **Anti- Caspase-3** | Untxia | Sagua | Poliklonala | Abcam |
| **Anti- α-SMA** | Sagua | Sagua | 1A4 | Agilent Technologies |
| **Anti-F4/80** | Arratoia | Sagua | A3-1 | AbD Serotec |
| **Anti Ki-67** | Untxia | Sagua | SP6 | Abcam |
| **Anti-SV 40 T antigen** | Sagua | Sagua | PAb416 | Abcam |

*Antigorputz guztiak 1:100 diluituta erabili ziren*

## 10.2. Antigorputz sekundarioak

### 10.2.1 Biotinadun antigorputz sekundarioak

Immunohistokimikan antigenoen detekziorako erabiltzen den kromogenoetako bat DABa da, zeinak hidrogeno peroxidoarekin batera HRP entzimarekin erreakzionatzen duen kolorea emateko. Hori kontuan izanik, antigorputz primarioen kokapena detektatzeko, antigorputz sekundarioei estreptabidina-HRP izeneko konplexu bat gehitzen zaie, zeinak DABaren oxidazioa eragingo duen hidrogeno peroxidoaren presentzian eta beraz, antigorputza dagoen tokian kolorea emango duen. Hala ere, estreptabidina-HRP konplexua ez da berez antigorputz sekundarioarekin lotzen, eta hortaz, antigorputz hauei biotina molekula atxikitzen zaie, zeinak estreptabidinarekiko afinitate handia daukan.

*10.2.1.1 Arratoiaren IgGen (H+L) aurkako antigorputz sekundario biotinilatua*

Biotinadun arratoiaren aurkako antigorputz sekundarioa (Invitrogen, Estatu Batuak) espezifikoa da arratoien G immunoglobulinen (IgG) kate astun eta arinekiko (ingelesez *Heavy and Light*, H+L). Antigorputz honek sagu ehunari loturiko arratoi antigorputz primarioak ezagutuko ditu. Zehazki, lan honetan anti-F4/80 antigorputz primarioa detektatzeko erabili zen (6. taula).

*10.2.1.2. Saguaren IgGen (H+L) aurkako antigorputz sekundario biotinilatua*

Saguaren aurkako biotinadun antigorputz sekundarioa (Invitrogen, Estatu Batuak) espezifikoa da saguaren IgGen H+L kateekiko, hortaz sagu antigorputz primarioei lotuko zaie. Lan honetan anti-α-SMA antigorputz primarioa detektatzeko erabili zen (6. taula).

*10.2.1.3. Untxiaren IgGen (H+L) aurkako antigorputz sekundario biotinilatua*

Biotinadun untxiaren aurkako (Invitrogen, Estatu Batuak) antigorputz sekundarioa espezifikoa da untxiaren IgGen H+L kateekiko. Antigorputz honek sagu ehunari loturiko untxi antigorputz primarioak ezagutuko ditu. Lan honetan anti-Caspasa-3 eta anti-Ki67 antigorputz primarioak detektatzeko erabili ziren (6. taula).

### 10.2.2 Fluoreszentziadun antigorputz sekundarioak

*10.2.2.1. Saguaren aurkako Alexa Fluor® 488dun antigorputz sekundarioa.*

Saguaren aurkako Alexa Fluor® 488dun (Abcam, Erresuma Batua) antigorputza espezifikoa da saguaren IgGen H+L kateekiko. Gainera, Alexa Fluor® 488 izeneko fluorokromoa darama, zeinak 495 nm-ko uhin luzeerako argirekin kitzikatuz, kolore berdea ematen duen 519 nm-tan. Zehatzago, lan honetan anti-SV40aren T antigeno handiaren antigorputz primarioa detektatzeko erabili zen (6. taula).

**6. Taula. Analisi immunohistokimikoak egiteko erabilitako antigorputz sekundarioen zerrenda.**

| Antigorputza | Non ekoiztua | Diluzioa | Etxe komertziala |
|---|---|---|---|
| **Anti-arratoia (biotinaduna)** | Ahuntza | 1:2000 | Invitrogen |
| **Anti-sagua (biotinaduna)** | Ahuntza | 1:1000 | Invitrogen |
| **Anti-untxia (biotinaduna)** | Ahuntza | 1:8000 | Invitrogen |
| **Anti-sagua (Alexa Fluor® 488duna)** | Ahuntza | 1:2000 | Abcam |

## 10.3. Antigorputz blokeatzaileak

### 10.3.1. Sagu IgGen F(ab)$_2$ fragmentuaren aurkako antigorputza

IgGa organismoak berak sortzen duen antigorputz bat da, ehunetan oso ugaria dena. Immunoglobulina guztiek bezala, antigorputzek bi gune dituzte: antigenoa ezagutzen duen F(ab) (ingelesez *Fragment antigen binding*) guneez gain, muturra eta immunitate sistemako zelulekin lotzen den F(c) (ingelesez *Fragment crystallizable*) muturra hain zuzen. Immunomarkaketa entseguetan sagu-antigorputz sekundarioak sagu-ehuneko laginetan erabiltzen direnean lotura inezpezifikoak gertatzen dira. Antigorputz sekundarioak antigorputz primarioa ezagutuko duen arren, saguaren ehunak dituen IgG endogenoak ere ezagutuko ditu eta beraz, antigorputz primarioarekin ez-ezik ehunarekin ere zuzenean lotuko da. Hori saihesteko, antigorputz primarioa erabiltzen hasi aurretik, saguen antigorputzak ezagutzen dituzten IgG endogenoak blokeatu egin ziren sagu IgGen F(ab)$_2$ fragmentuaren aurkako antigorputzak erabiliz (Invitrogen, Estatu Batuak). Informazio gehiago aurki daiteke 7. taulan.

**7. Taula. Analisi immunohistokimikoak egiteko erabilitako antigorputzen zerrenda.**

| Antigorputza | Non ekoiztua | Zeren aurka | Diluzioa | Etxe komertziala |
|---|---|---|---|---|
| **Anti-sagu IgGen F(ab)$_2$ fragmentua** | **Untxia** | Sagua | 1:500 | Invitrogen |

# 11. HISTOLOGIA ETA IMMUNOHISTOKIMIKARAKO MATERIALAK

## 11.1. Immunohistokimikarako tanpoiak eta blokeatzaileak

### 11.1.1. Peroxidasa endogenoaren blokeatzailea

Immunomarkaketa prozesuan antigorputz sekundarioari Estreptabidina-Peroxidasa sustratoa gehitzen zaio, zeinak geroago DABarekin erreakzionatuko duen. DABa peroxidasaren presentzian oxidatu egiten denez, antigorputz sekundarioa dagoen lekuan kolore marroidun prezipitatua sortuko da. Hala ere, laginak berak peroxidasa endogenoa duenez, immunomarkateta prozesua hasi baino lehen laginari hidrogeno peroxidoa gehitu zitzaion peroxidasa aktibitatea blokeatzeko. Horretarako % 3ko $H_2O_2$ (Panreac Quimica SLU, Espainia) duen PBSa prestatu zen. Ondorioz, ehunean dagoen peroxidasa endogeno horrek, guk gehitutako $H_2O_2$-arekin erreakzionatuko du eta beraz, peroxidasa agortu egingo da.

### 11.1.2. Proteina inespezifikoen blokeatzailea

Antigorputzak erabiltzen diren edozein teknikatan, erabilitako antigorputza gure interesekoa den proteinara bakarrik lotzeko, laginaren gune inespezifikoak blokeatzea beharrezkoa da. Antigorputzek, antigenoarekin lotzen den F(ab)$_2$ guneez gain, Fc guneak ere badituzte, zeinak laginetako immunitate zelulen Fc errezeptoreekin lotzen diren. Hori ekiditeko % 5 FBS-dun PBSa erabiltzen da, FBSak gune inespezifiko horietan atxikituko diren antigorputz ugari baititu.

### 11.1.3 Antigenoen aurkezpenerako Sodio-zitrato Tanpoia 10 mM

Aldehidoen bidezko organoen fixapena dela eta, ehunetan proteinen lotura gurutzatuak eratzen dira eta askotan gune antigenikoak ezkutatu egiten dira.

Ondorioz, immunohistokimikarako erabilitako antigorputzak ez dira antigenoarekin lotzen eta emaitza negativo faltsuak lortzen dira. Hori saihesteko, antigenoen berreskurapenerako soluzioa erabiltzen da. Kasu honetan pH 6dun 10 mMeko sodio-zitrato tanpoia erabili zen (8. taula), zeinak proteinen arteko lotura gurutzatuak desegiten dituen, antigenoen epitopoak agerian utziz.

**8. Taula. Sodio zitrato tanpoiaren konposizioa litroko (10mM).**

| **Substantzia** | Kontzentrazioa |
|---|---|
| **$C_6H_5Na_3O_7$ . $2H_2O$ (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak)** | 2,94 g/l |
| **Tween 20 (% 0,05) (Sigma-Aldrich, Estatu Batuak)** | 0,5 µl |
| **$H_2O$** | 1 litro bete arte |

*Soluzio honen pHa 6ra doitu zen*

## 11.2. Antigorputzen detekziorako sistemak eta blokeatzaileak

### 11.2.1. Estreptabidina eta basaerrefau-peroxidasa konplexua (Estreptabidina - HRP)

Estreptabidina eta basaerrefau-peroxidasa konplexua (ingelesez *Horseradish Peroxidase*, HRP) (Estreptabidina-HRP) (Thermo Scientific, Estatu Batuak) basaerrefautik erauzten den entzima bat da, immunomarkaketetan antigorputzak detektatzeko erabiltzen dena. Estreptabidinak biotinarekiko afinitatea duenez, konplexu hau biotinilaturik dagoen antigorputz sekundarioekin lotuko da. Bestalde, konplexu honen peroxidasak substratu kromogenikoekin erreakzionatzen duenez, laginari DAB bezalako substratuak gehitzen zaizkio zeinak hidrogeno peroxidoaren presentzian prezipitatu marroia sortuko duen eta horrek antigorputza kolore bidez detektatu ahal izateko aukera ematen du.

### 11.2.2. 3,3’-diaminobenzidine substratua (DAB)

3,3'-diaminobenzidine substratua (DAB) (Thermo Scientific, Estatu Batuak) bentzenoaren eratorri bat da immunohistokimikan kromogeno bezala erabiltzen dena. Hidrogeno peroxidoaren presentzian, peroxidasak DABa oxidatu egiten du prezipitatu marroia eratzen delarik.

Immunohistokimikan antigorputz sekundarioak estreptabidina-HRP konplexuarekin lotu ostean, laginari DAB gehitzen zaio, zeinak HRParekin

erreakzionatuko duen kolore marroia emanez. Kolore hori mikroskopio bidez behatu daiteke.

## 11.3. Muntai medioak

### 11.3.1 DPX muntai medioa

DPX muntai medioa (Merck, Alemania) distireno, plastifikatzailez eta xilenoz osaturiko erretxina tankerako soluzioa da tindaturik dagoen edota immunomarkaketa duen lagina mantentzeko erabiltzen dena. Porta eta estalkiaren artean jartzen de lagina kanpo-mediotik isolatzeko eta kontserbatzeko.

### 11.3.2. 4',6-diamino-2-fenilindoldun (DAPI) Fluoromount™ muntai medioa

4',6-diamino-2-fenilindoldun (DAPI) Fluoromount™-a (Thermo Fisher, Estatu Batuak) fluoreszentziarekin markaturik dauden laginak muntatzeko erabiltzen da. DAPIa koloratzaile fluoreszentea da DNAren adenina eta timina base nitrogenatuetan aberatsa den zonaldeetan itsasten dena. Nahiz eta kontzentrazio altutan zelula biziak tindatu ahal dituen, normalean fixatutako zelulen edo ehunetako zelulen nukleoak markatzeko erabiltzen da, hortaz kontraste tindatzaile bezala erabili ohi da fluoreszenteki markaturik dauden ehunetan. Kate bikoitzeko DNAri lotzen zaionean absorbantzia maximoa 358 nm-tan dauka (ultramorea) eta 461nm-tan igortzen du kolore urdinarekin. RNArekin lotzen denean, ordea, 500 nm-tan emititzen du argia. Lan honetan, muntai medio hau pankreako lagin batzuk muntatzeko erabili zen non DAPIak kontraste tindatzaile bezala jardun zuen ehunean CFSEarekin markaturik zeuden zelulak desberdintzeko.

## 11.4. Histologiarako erabilitako bestelako materialak

### 11.4.1 Parafina

Parafina (Thermo Scientific, Estatu Batuak) hidrokarburo saturatuz osarturiko argizari itxurako substantzia da, giro tenperaturan solidoa dena. Histologian, ehunak parafinatan inkluditzen dira denbora luzez mantendu ahal izateko. Horretarako ehunak parafina berotan sartzen dira parafinak zirrikitu guztiak

bete ditzan eta behin parafina hoztean solido bihurtzen denez, ehun fixatuak bloke batean geratzen dira ondo kontserbatuta.

#### 11.4.2 Poli-L-lisina

Poli-L-Lisina edo Polilisina (Sigma, Estatu Batuak) bakterioen hartzidura prosezuan sortzen den homopolimeroa da. Zelulen adhesioa hobetzen laguntzen du kultibo-sustratoaren azalerako kargak aldatuz. Lan honetan immunomarkaketarako erabilitako portak gaineztatzeko erabili zen, ehunak hobeto itsas zitezen.

#### 11.4.3. Tissue-Tek® OCT™ konposatua

Tissue-Tek® OCT™ konposatua (Sakura Finetek Europe B.V, Herbehereak) erretxina bat da laginak izozturik eta mozketarako prest egonik gordetzea ahalbidetzen duena. Alkohol polibinilikoz, polietilenglikolez eta bestelako osagai ez-erreaktiboz osaturik dago. Agente kriobabesgarri moduan dihardu izotz kristalen eraketa saihestuz ehunetan. Kasu honetan konposatu hau pankreak izozturik mantentzeko erabili zen, organoan bertan fluoreszentzia bidez CFSEarekin markaturik zeuden zelulak mikroskopioan zuzenean behatu ahal izateko.

# 12. ZELULEN ENTSEGUETARAKO MATERIALAK

## 12.1. Zelulen entseguetarako erreaktiboak

#### 12.1.1. Karboxifluoreszein sukzinimidil esterra (CFSE)

Karboxifluoreszein sukzinimidil esterra (CFSE) zunda fluoreszentea da, hainbat entsegutan erabili daitekeena, hala nola zelulen bideragarritasuna aztertzeko, bizirik dauden zelulak fluoreszenteki markatzeko, zelulen zikloan zatiketa maila aztertzeko eta abar. CFSEa (Invitrogen, Estatu Batuak) zelulen gainazaleko zein barnean dagoen DNAren amina libreekin kobalenteki lotzen da zelulari kalterik eragin gabe. Erreaktiboak daraman fluoreszeinari esker, CFSEaren presentzia behatu dezakegu zelula barnean fluoreszentzia bidez. Fluoroforo honek 520 nm-tan emititzen du argi maximoa. Aipatutako lotura kobalenteari esker, CFSEa beti DNAn itsatsita geratuko da, beraz, markatutako zelula bat zatitu egiten denean, zelula alaba bakoitzak CFSE horren karga erdia eramango du. Modu berean, zelula alaba horiek zatitzean, berriro ere zelula amak zeraman CFSEaren erdia izango dute. Fluoreszentzia bidez 8

belaunaldirarte bereiz daitezke, hortik aurrera ezin baitira zelulen autofluoreszentzia eta fluoreszeinarena desberdindu. Hori dela eta, lan honetan CFSEa Ocoxinekin trataturiko zelulen zatiketa maila aztertzeko erabili zen eta baita PCAko 266-6 zelulak fluoreszenteki markatzeko ere, gero hauek saguei inokulatu ostean histologikoki detektatu ahal izateko.

### 12.1.2. PrestoBlue™

PrestoBlue™ (Molecular probes, Estatu Batuak) agentea zelulen biabilitatea ezagutzeko erabiltzen da. Konposatu honek resazurina darama, kolore urdineko koloratzaile bat, zeina zelulen barnean sartzen den inolako kalterik sortu gabe. Behin zelulen barnean egonik, zelulen ahalmen erreduktorearen eta erreduzkioa eragiten duten bestelako erreazkio kimikoen ondorioz, substantziaren pHa aldatu egiten da PrestoBlue™-k kolore arrosa hartzen duelarik. Kolore aldaketa hori absorbantzia bidez neurtu daiteke 570 nm and 620 nm-tan.

## 12.2. Zelulen entseguetarako kitak

### 12.2.1. DNA FxCycle™ PI/RNasa soluzio kita

DNA FxCycle™ PI/RNasa soluzio kita (Invitrogen, Estatu Batuak) zelulen zikloa fluxu zitometria bidez aztertzeko prestaturik dago eta alde batetik propidio ioduroa (PI) dauka eta bestetik A RNasa. PIa zelula barnera sartu eta DNAren base pareen artean interkalatzen den agente fluoreszentea da, argia 617 nm-tan igortzen duelarik. Horretarako, kitak daraman DNasa gabeko A RNasak zelulak iragazkortu egiten ditu gero PIa barnera sar dadin. Metodo honen bidez ziklo zelularraren faseak aztertu daitezke; zelulak barnean daukan DNA kantitatearen arabera PI gehiago edo gutxiago atxikituko da eta hortaz, fase desberdinak bereiztu ahal izango dira.

### 12.2.2. Annexina V-FITC apoptosiaren detekziorako kita.

Annexin V-FITC kita (Invitrogen, Estatu Batuak) zelulen apoptosia aztertzeko erabiltzen da. Anexina V proteina bat da, zelulen mintzeko fosfatidilserinekin lotzen dena. Aldi berean, proteina hau fluoreszeina-5-Isotiozianato (FITC) fluorokromoarekin markaturik daude, zeinak argi berde-horia igortzen duen, emisio maximoa 518 nm-tan daukalarik. Zelula osasuntsuetan fosfatidilserina mintzeko alde zitosolikoan aurkitzen den arren, apoptosi prozesua hasten denean, zelulen mintza bere egitura galtzen hasten da eta fosfatidilserinak

alde estrazelularrera translokatzen dira. Hortaz, molekula hauek zelulen kanpoko aldean egonik, annexina bertara lotu egingo da eta fluoreszeinari esker, fluoreszentzia bidez, zelulak apoptosi prozesuan dauden ala ez jakin ahal izango dugu. Bestalde, kit honek PI ere badarama, aurreko kitean azaldu dugun moduan, DNAren base pareen artean interkalatzen dena. Apoptosiaren azken faseetan, hots, nekrosian, zelulen mintza guztiz iragazkortzen denez, PIak zelula nekrotikoen DNA markatu egiten du, apoptosia eta nekrosia desberdintzea ahalbidetuz.

# 13. POLIMERASAREN KATE-ERREAKZIO KUANTITATIBO ETA MIKROARRAY ENTSEGUETARAKO MATERIALAK

## 13.1. RNAren erauzketarako materialak

### 13.1.1. RNAren erauzketarako erreaktiboak

#### *13.1.1.1. TRIzol™*

TRIzol™-a (Invitrogen, Estatu Batuak) zelulak lisatzeko erabili zen. Bere printzipio aktiboen artean guanidina tiozianatoa eta fenola aurki daitezke besteak beste. Guanidina tiozianatoak proteinak desnaturalizatzen ditu, RNasak eta proteína erribosomalak barne. Bestalde, fenolak azido nukleikoak disolbatzen laguntzen du. TRIzol™-arekin tratatu ostean, laginari kloroformoa gehitzen zaio RNA erauzi ahal izateko.

#### *13.1.1.2. Kloroformoa*

Kloroformoa (Sigma-Aldrich, Estatu batuak) TRIzol™-aren bidezko zelulen lisiaren ondorioz jasotako DNAren homogeneizatua edota proteinak RNArengandik bereizteko erabili zen. TRIzol™-arekin tratatu ostean, laginari kloroformoa gehitzen zaio, zeinak homogeneizatua hiru fasetan banatzen duen. Fase akuosoan azido nukleikoak geratuko dira, eta fase organikoan proteinak zein lipidoak egongo dira.

### 13.1.2. RNAren erauzketarako entzimak

#### *13.1.2.1. Erribonukleasa inhibitzailea*

Erribonukleasa edo RNasa (Invitrogen, Estatu Batuak), RNAren hidrolisia katalizatzen duen entzima da. RNArekin lan egitean RNasa inhibitzailea

erabiltzen da saiodietan, pipeta puntetan edota beste agente batzuetan egon daitekeen RNAsak inaktibatzeko eta beraz, RNAren egitura kontsebatzeko bere degradazioa saihestuz.

### 13.1.3. RNAren erauzketarako kitak

#### *13.1.3.1. Purelink™ RNA mini kita:*

Purelink™ RNA mini kita (Invitrogen, Estatu Batuak) kalitate altuko RNA isolatzeko erabiltzen da. Gibeleko tumore esplanteetatik RNA TRIzol™ eta kloroformoaren bidez erauzi ostean, kit hau lortutako RNA purifikatzeko erabili zen. Kit honek β-merkaptoetanoldun soluzioa erabiltzen du laginak lisatzeko eta proteinak desnaturalizatzeko zeinak aldi berean guanidinio isotiozianato agente kaotropikoa daukan, RNA RNAsa endogenoengandik babesten duena. Ondoren, kitak zutabe batzuk dakartza lisatutakoa bertatik pasatu eta homogenizatzeko. Ostean, DNA genomikoa kentzeko DNAsa bidezko tratamendua erabili beharrean, kitak silizez osatutako mintza daukaten zutabeak dauzka, non zentrifugazio bidez lagina bertatik igaro eta RNA itsatsita geratzen den. Bukatzeko kitak RNasa gabeko ura ere badakar mintzari atxikiturik dagoen RNA eluitzeko.

#### *13.1.3.2. Norgen FFPE RNA purification kita*

FFPE RNA Purification Kita (Norgen, Canada) parafinatan sartutako laginetatik RNA erauzteko erabili zen. Fixapen prozesuak eta laginak parafinatan sartzeak ehunetan RNA eta proteinen arteko elkargurutzamenduak sortzea eragiten du. Ondorioz, RNA fragmentatu egiten da, batez ere denborak aurrera egin ahala. Kit honi esker, fixapen prozesuak eragindako aldaketak partzialki lehengora bihurtu ditzake kalitate oneko RNA erauztea ahalbidetuz. Kit hau zutabeen bidezko kromatografian oinarriturik dago; zutabeetan aurkitzen den erretsina bereziari esker RNA gainerako osagaietatik banatzen da kontzentrazio ionikoen arabera eta zutabean atxikituta geratzen da. Zutabeez gain, kit honek laginak desparafinatzeko xileno eta etanola dakartza, eta baita laginaren digestiorako K proteinasa. Entzima honek aminoazido aromatikoen arteko talde karboxilikoen lotura peptidikoak apurtzen ditu, azido nukleikoak proteinengandik aske uztziz. Gainera, kitak proteinen lisirako eta garbiketak gauzatzeko soluzio eta tanpoiak ere badauzka. Bukatzeko, DNA genomikoaren kutsapena saihesteko RNasarik gabeko DNasa eta RNA zutabetik askatzeko eluzio soluzioa ere badakar kit honek.

## 13.2. Alderantzizko Transkripzio eta Polimerasaren Kate-erreakzio kuantitatiborako materialak

### 13.2.1. Alderantzizko Transkripzio eta Polimerasaren Kate-erreakzio kuantitatiborako erreaktiboak

*13.2.3.1. SYBR® Green Master Mix kita*

SYBR® Green Master Mixa (BioRad, Estatu Batuak) RNAtik abiatuta DNAren anplifikazioa monitorizatzeko erabiltzen da alderantzizko transkripziodun (ingelesez *retrotranscription*, RT) polimerasaren kate-erreakzio kuantitatiboko (ingelesez Quantitative P*olymerase Chain Reaction*, qPCR) entseguetan edo RT-qPCRetan. SYBR® Green koloratzaile fluoreszentea da, kate bikoitzeko DNAri lotzen zaiona. PCR prozesuko ziklo bakoitzean DNA desnaturatu, primerrekin hibridatu eta luzatu egiten da. Behin luzapena amaituta kate bikoitzeko DNA lortzen denez, SYBR® Green konposatuak anplifikatu den DNA hori markatu egingo du. Fluoreszentziaren intentsitatea DNA kantitatearen araberakoa izango da.

### 13.2.2. Alderantzizko Transkripzio eta Polimerasaren Kate-erreakzio kuantitatiborako kitak

*13.2.1.1. iScript™ cDNA Synthesis kita*

iScript™ cDNA synthesis kita (BioRad, Estatu Batuak) RNAtik abiatuz kate bakarreko DNA osagarria (ingelesez *complementary DNA*, cDNA) sintetizatzeko erabili zen qPCR analisietarako. Hasteko, kit honek alderantzizko transkriptasa dauka, zeinak mRNA oinarritzat hartuz cDNA sortzeko gaitasuna duen desoxinukleotidoak (dNTPak) lotuz. Horrez gain, RNasa inhibitzailea ere ba dauka RNA mantentzeko eta gainera oligo(dT) deritzen deoxitiminaz osaturiko oligonukleotidoak (primerrak) ere badaramatza RTa egingo duen entzimak zuzenean mRNAtik abiatuz cDNA sintetizatzeko.

*13.2.1.2. Platinum™ Multiplex PCR Master Mix 2x*

Platinum™ Multiplex PCR Master Mix 2x kita (Applied Biosystems, Estatu Batuak) aldi berean DNA sekuentzia desberdinak anplifikatzeko erabiltzen da. Zehazki, 50 - 2500 base paretako DNA zatiak anplifikatzeko optimizaturik dago. Horretarako, kit honek Taq DNA polimerasa dakar gure lagina primer

desberdinekin batera termozikladorean anplifikatzeko. Bestalde, DNAren anplifikazio prozesuan guanina eta zitosina kantitate altua duten DNA fragmentuak ez dira beti ondo erreplikatzen. Adenina eta timinarekin erkatuz, guanina eta zitosinen arteko loturak engonkorragoak dira, eta hortaz, harizpiak banatzeko tenperatura altuagoak behar dituzte. Arazo horri aurre egiteko kitak guanina eta zitosina ugari duten DNA moldeen anplifikazioa errazteko soluzio bat dakar.

### 13.2.3 Primerrak

Primerrak 20 nukleotido inguruz osaturiko molekulak dira, DNAren gune ezagunen erreplikaziorako abiapuntu bezala jokatzen dutenak. Horretarako, primerra molde bezala erabiltzen duen katean kokatzen da eta DNA polimerasari esker desoxinukleotido askeak beraien artean lotuz DNA moldearen kate osagarria sortzen da. Erreplikazioa DNAren kate bietan gertatzeko "forward" eta "reverse" primerrak (Thermo Scientific, Estatu batuak) erabiltzen dira gene bakoitzerako (9. taula):

**9. Taula. qPCRa burutzeko erabilitako primerren sekuentziak.**

| Izena | Sekuentzia (5'-3') |
|---|---|
| **COX2** | (forward) TGCACTATGGTTACAAAAGCTGG<br>(reverse) TCGGAAGCTCCTTATTTCCCTT |
| **GAPDH** | (forward) GTATGACTCCACTCACGGCAA<br>(reverse) CTTCCCATTCTCGGCCTTG |
| **IL1β** | (forward) CTGTGACTCATGGGATGATGATG<br>(reverse) GCCTGTAGTGCAGTTGTCTAAT |
| **IL6** | (forward) TCTATACCACTTCACAAGTCGGA<br>(reverse) GAATTGCCATTGCACAACTCTTT |
| **INFγ** | (forward) TTCTTCAGCAACAGCAAGGC<br>(reverse) TGTGGGTTGTTGACCCTCAAA |
| **S15** | (forward) TTCCGCAAGTTCACCTACC<br>(reverse) CGGGCCGGCCATGCTTTACG |
| **SV40 T** | (forward) AAGCTCCAACCCCTTTACCG<br>(reverse) ACATCAATGCTCACACGACG |
| **TNF-α** | (forward) CCAGTGTGGGAAGTGTCTT<br>(reverse) AAGCAAAAGAGGAGGCAACA |

## 13.3. Mikroarraia gauzatzeko materialak

### 13.3.1. Mikroarraia gauzatzeko entzimak

*13.3.1.1. AffinityScript™ erretrotranskriptasa*

Mikroarraiarekin hasi aurretik *AffinityScript™* alderantzizko transkriptasa (Agilent Technologies, Estatu Batuak) erabili zen RNAren RTa gauzatu eta cDNA lortzeko.

### 13.3.2. Mikroarraia gauzatzeko kitak

*13.3.2.1. Low Input Quick Amp Labeling Kit, One Color kita*

Low Input Quick Amp Labeling Kit, One Color kita (Agilent Technologies, Estatu Batuak) cDNAtik abiatuz cRNA sintetizatu eta anplifikatzeko erabiltzen da. Kit honek, alde batetik T7 RNA polimerasa darama cDNA molde gisa erabiliz RNA sortzeko. RNAren sintesi pozesuan nukleotido trifosfato arruntak (ATP, GTP eta TTP) zein trifosfato nukleotidoak zianina-3 fluoroforodun zitidinarekin (Cy3-CTP) konjugaturik erabiliko dira cRNA markatua lortzeko.

*13.3.2.2. RNeasy Mini kita*

Rneasy Mini kita (Qiagen, Alemania) zianinarekin markatutako RNA osagarria (ingelesez *complementary RNA*, cRNA) purifikatzeko erabili zen lagina zutabeetatik pasatuz. Purelink™ RNA mini kitaren kasuan bezala (ikusi Materialetako 13.1.3.1. atala) kit honek guanidina isotiozianatoaren bidezko zelulen lisia erabiltzen du 2-merkaptoetanolaren beharrik gabe eta silize mintzak dituzten zutabeak erabiltzen ditu RNAren purifikaziorako.

# 14. ELISA ENTSEGUETARAKO KITAK

Kit hauetako bakoitzaren plakak detektatu nahi dugun molekularen aurkako atzemate-antigorputza dakar aldez aurretik atxikituta. Bestalde, lotutako substratuaren detekziorako biotinadun detekzio-antigorputza ere badakar. Are gehiago, kitak detekzio-antigorputzaren biotinarekin lotuko den estreptabidina-HRP konplexua ere badauka. Horrez gain, kit hauek 3,3',5,5'-tetrametilbentzidina (TMB) kromogenoa daramate, estreptabidina-HRP konplexuarekin erreakzionatu ostean kolorea ematen duena. Bukatzeko, azken bi hauen arteko erreakzioa gelditzeko kit hauek azido sulfuriko soluzioa daukate. Lan honetan erabilitako kiten zerrenda 10. taulan ikus daiteke.

**10. Taula. ELISA kiten zerrenda**

| Izena |
| --- |
| **Mouse IL-1β CytoSet™ (Invitrogen, Estatu Batuak)** |
| **Mouse IL-10 CytoSet™ (Invitrogen, Estatu Batuak)** |
| **Mouse IFγ CytoSet™ (Invitrogen, Estatu Batuak)** |
| **Mouse IL-12 ELISA (Invitrogen, Estatu Batuak)** |

# III.II. METODOAK / METHODS

## 1. *IN VITRO* ENTSEGUAK

### 1.1. Zelula-lerroen kultiboa.

CRCko metastasi hepatikoa eta bere mikroingurumena aztertzeko sagu kolon kartzinomako C26 zelulak erabili ziren, 3T3 fibroblasto eta J774A.1 makrofagoekin batera. Bestalde, PCAri dagokionez, sagu adenokartzinoma pankreatikoko 266-6 zelulak eta giza PCAko BxPC-3, Capan-2, CFPAC-1, HPAF-II, MRC-5, Panc 10.05, SW1990 zelulak eta MRC-5 fibroblastoak erabili ziren.

Zelula guztiak % 10 FBS, penizilina (100 U/ml), anfoterizina B (0,25µg /ml) eta estreptomizinaz (100 µg/ml) osatutako RPMI-1640 hazkuntza-mediotan hazi ziren T75 flaskoetan eta 37 ºC eta % 5 $CO_2$ baldintzapetan inkubatu ziren. Hemendik aurrera kultibo medio honi hazkuntza edo kultibo medio osatua deituko zaio. Kasu guztietan flaskoa % 80 bete zenean, medio zaharra kendu eta PBSarekin garbitu zen. Ondoren, bai C26, bai 3T3 zelulak % 4ko EDTArekin altxatu ziren, 266-6ak eta giza zelulak (BxPC-3, Capan-2, CFPAc-1, HPAF-II, MRC-5, Panc 10.05, SW1990) tripsina-EDTArekin eta J774A.1ak, aldiz, arraspa baten bidez. Altxatutako zelulak zentrifugazio hodi batera pasatu ondoren, flaskoak berriro PBSarekin gabitu ziren bertan geratutako zelulak berreskuratzeko. Ostean, zentrifugazio hodiko zelulei medio osoa gehitu zitzaien FBSak tripsina-EDTAren eragina inaktiba zedin eta hodiak errotore baskulatzailedun zentrifugan sartu ziren 10 minutuz, 4 ºC-tan eta 125 G-ko azelerazioarekin zelula osasuntsuen kasuan eta 430 G-rekin minbizi zelulen kasuan. Bukatzeko zentrifugazio hodietako gainjalkina baztertu egin zen eta pelleta RPMI-1640arekin birsuspenditu zen behar zen zelula kontzentrazioa lortzeko. Zelula lerroa mantentzeko, zentrifugazioaren ondoren lortutako zelulak 1:10 diluitu eta flaskoetan hazi ziren berriro ere hazkuntza medio osatuarekin. Minbizi zelulak 10. pasera arte soilik mantentzen ziren beraien etengabeko hazkuntzaren ondoriozko kontaminazio edota mutazioak ekiditeko. Denbora hori igarotakoan, zelula horiek utzi eta berriak desizozten ziren. Aldiz, fibroblastoak eta makrofagoak 30 eta 20 pasera arte mantendu ziren gehienez hurrenez hurren.

Salbuespen bezala, Panc10.05 zelulei giza intsulina birkonbinantea (10 u/ml) gehitu zitzaien hazkuntza-medioan. Bestalde, giza PCAko zelulen hazkuntza

geldoa denez, 3-4 egunik behin medio zaharra kendu, PBSarekin garbitu eta medio berria gehitu zitzaien flaskoa % 80 bete zen arte.

Horrez gain, kasu batzuetan, flasko edo plakak aldez aurretik I motako kolagenoarekin edo gelatinarekin gaineztatu ziren fabrikatzailearen gomendioak jarraituz zelulak modu optimoan hazteko. C26en kasuan, esperimentu batzuetarako zelulak plaketan kultibatu baino lehen, hauek kolagenoz gaineztatu ziren zelulak hobeto itsas zitezen. Horretarako, plaken oinarria % 0,01 kolagenorekin gaineztatu ziren kultibo mediotan diluituta eta 30 minutuz inkubagailuan utzi ziren. Ordu erdi pasatutakoan, kolageno soberakina kendu egin zen flaskoetatik eta prozedurarekin jarraitu zen. Aldiz, 266-6 zelulen kasuan flaskoak gelatinaz gaineztatu ziren % 0,1 kontzentrazioarekin 4 ºC-tan 30 minutuz utziz.

## 1.2. Zelula-lerroen izozte eta desizoztea.

Lanean hasi baino lehen, zelula-lerro guztiak anplifikatu eta izoztu egin ziren edozein momentutan zelula berriak erabitzeko aukera izateko. Prozesu hau, zelulak erosi eta hasierako paseetan gauzatzen da, tumore zelulak izanik, mutazioen metaketa sahiesteko eta transformaziorik gabeko zelulen stocka izatea bermatzeko . Zelula erosi berriak lehenengo eta behin T25 flasko batean hazi ziren, eta gainazalaren % 80 betetakoan T75 flasko batean kultibatu ziren gehiago hazteko. Ostean, gainerako zelulekin moduan, behin T75 flaskoa % 80 beterik zegoenean zelulak altxatu, flaskoa PBSarekin garbitu eta zentrifugagailuaren bidez sendimentatu egin ziren. Gainjalkina baztertu egin zen eta hodiaren hondoko zelulak % 90 FBS eta % 10 DMSOz osaturiko mediotan eseki ziren izozte-hodietan sartzeko. Hodi horiek isopropanolez beteriko *Mr. Frostie* izeneko ontzian sartu ziren, zeinak -80 °C-tan dagoen ultraizozgailu batean sarturik, zelulen tenperatura gradualki jaisten duen kalte zelularra minimizatuz. Zehazki, hodien tenperatura minuturo 1 ºC jaisten da isopropanolari esker. Hurrengo egunean, izoztutako zelulak nitrogeno likidodun tankean sartu ziren bertan denbora luzez mantentzeko.

Bestalde, aurrerago aipatu dugun moduan, 10. pasera heldutakoan zelula berriak desizozten ziren transformazioa ekiditeko. Horretarako, nitrogeno likidotan mantendutako zelulak 37 °C-tan zegoen bainuan sartu ziren izozte-hodia etengabe mugituz eta ahal bezain laster, zelulak RPMI-1640tan diluitu ziren izozte-medioak daukan DMSOak zelulak kaltetu ez zitzan. Zentrifugatu ostean, pelleta hazkuntza medio osatuarekin eseki eta T25 flasko batean kultibatu ziren hazkuntza medio osatuarekin. Behin zelulak itsatsita

zeudenean, medio zaharra kendu eta medio osatu berria gehitu zitzaien desizozketan hildako zelulak kentzeko eta bizirik zeudenak baldintza optimoetan haz zitezen. Flaskoa % 80 beterik zegoenean T75 batean berriro kultibatu ziren aurreko atalean azaldu den bezala esperimentuekin aurrera jarraitzeko.

## 1.3. Fibroblastoek jariaturiko faktore soluigarrietan aberatsa den medioa lortzea.

Fibroblastoengandik faktore soluigarrietan aberatsa den medioa (ingelesez *Conditioned Medium*, CM) lortzeko, MRC-5 giza eta 3T3 sagu fibroblastoak lehenago deskribatu den bezala kultibatu ziren 24 orduz $2x10^5$ zelula/ml-ko kontzentrazioarekin. Ondoren, kultibo medio zaharra kendu, berriro ere medio berria gehitu eta 24 orduz inkubatu ziren. Azkenik, fibroblastoek jariatutako faktoredun kultibo-medioa jaso zen, zentrifugatu egin zen 10 minutuz 4 ºC-tan eta 125 G-ko abiadurarekin partikularik egotekotan hau baztertzeko eta -20°C-tan mantendu zen erabili arte (10. Irudia).




**10 Irudia. Fibroblastoek jariaturiko faktore soluigarrietan aberatsa den medioa lortzeko prozeduraren eskema.** Fibroblastoak plakan kultibatu eta 24 orduz inkubatu ziren (1). Ostean, kultibo medio zaharra berriztatu egin zen eta berriro beste 24 orduz inkubatu ziren (2). Denbora hori igarotakoan, fibroblastoek jariatutako faktoreak dituen kultibo medioak batu (3) eta zentrifugatu egin ziren (4). Bukatzeko -20 ºC-tan gorde ziren (5). *Irudia BioRender bidez sortutakoa da.*

## 1.4. Tratamenduak.

Ocoxinen efektuak *in vitro* aztertzeko, hasieran konposatuaren eta baita kimioterapikoen diluzio desberdinak erabili ziren (11. taula).

**11. Taula. Pankreako minbizi zelulak tratatzeko erabili ziren substantzien kontzentrazioak.**

| Substantzia | Kontzentrazioak |
|---|---|
| **Ocoxin** | 1:1000, 1:500, 1:200, 1:100, 1:50 ($V/V_f$) |
| **Paklitaxel** | Sagu zeluletan: 1, 2, 5, 10, 25, 50 (μM)<br>Giza zeluletan: 1, 5, 15, 30 (μM) |
| **Genzitabina** | Sagu zeluletan: 25, 50, 100, 200, 1000 (nM)<br>Giza zeluletan: 1, 2, 5 (μM) |
| **Aukeratutako dosiak** | **Ocoxin** 1:50 ($V/V_f$)<br>**Paklitaxe**l 1 μM<br>**Genzitabina** 1 μM |

Dosi horiek guztiak frogatu ostean, gainerako entseguetarako kimioterapiko zein Ocoxin diluzio bakarra aukeratu zen, independenteki edota konbinaturik erabiltzeko (12. taula).

**12. Taula. Kolon-ondesteko minbizi zelulak tratatzeko erabili diren substantzien kontzentrazioak.**

| Substantzia | Kontzentrazioak |
|---|---|
| **Ocoxin** | 1:500, 1:200; 1:150, 1:100, 1:75, 1:50, 1:10 ($V/V_f$) |
| **Irinotekan** | 5, 10, 25, 50, 75, 100 (μM) |
| **Aukeratutako dosiak** | **Ocoxin** 1:50 ($V/V_f$) eta 1:100 ($V/V_f$) entseguaren arabera<br>**Irinotekan** 50 μM |

Modu berean, esperimentu bakoitzerako tratamendu denbora desberdinak erabili ziren (13. Taula).

**13. Taula. *In vitro* entseguetarako erabilitako tratamendu denborak.**

| Entsegua | PCA | CRC | Zelula osasuntsuak |
|---|---|---|---|
| **Bideragarritasuna** | 48 ordu | 24 eta 48 ordu* | 24 ordu |
| **Apoptosia** | 48 ordu | - | - |
| **Migrazioa** | - | 18 ordu | 18 ordu |
| **Zatiketa zelularra** | 48 ordu | 48 ordu | - |
| **Ziklo zelularra** | 72 ordu | 72 ordu | - |

**CRC-ko zelulak Ocoxinekin bakarrik tratatu zirenean inkubazioa 24 ordukoa izan zen, aldiz, Ocoxin kimioterapiarekin konbinatuta erabili zenean 48 ordukoa.*

## 1.5. Zelulen bideragarritasun entseguak.

Hasteko, bideragarritasun entseguak egin ziren Ocoxinek zelula osasuntsuetan, zein minbizi zeluletan duen efektua aztertzeko. PCAko sagu zein giza-zelulak eta J774A.1ak mililitro bakoitzeko $5x10^4$ko konzentrazioarekin kultibatu ziren % 5 FBS, antibiotiko eta antimikotikoekin osatutako RPMI-1640 mediotan. Aldiz, 3T3 eta CRCko C26 zelulen kasuan serumaren kontzentrazioa % 0,5ekoa izan zen.

Beraz, Ocoxinek zelula osasuntsuetan zeukan eragina aztertzeko, 3T3 eta J774A.1 zelulen bideragarritasuna kuantifikatu zen Ocoxinen diluzio desberdinen presentzian (ikusi Metodoetako 1.4 atala). 24 ordu igaro ostean, zelulei *PrestoBlue™* gehitu zitzaien eta 2 ordu pasatu eta gero bideragarritasuna kuantifikatu zen.

Minbizi zelulen kasuan bestalde, dosi optimoa aukeratzeko asmoarekin, zelulak 24 orduz inkubatu ondoren, Ocoxin eta kimioterapiko kontzentrazio desberdinak (ikusi Metodoetako 1.4. atala) gehitu zitzaizkien bakoitza bere aldetik. Tratamendua bukatutakoan (24 edo 48 ordu ondoren) aurreko kasuan bezala, zelulei *PrestoBlue*™ gehitu zitzaien eta bideragarritasuna kuantifikatu zen. Dosi optimoak hautatu ostean (11. eta 12. taulak), entsegua errepikatu egin zen PCAko eta CRC-ko zeluletan Ocoxin eta kimioterapikoen (paklitaxel, genzitabina eta irinotekan) konbinazioa erabilita.

### 1.5.1 Zelulen bideragarritasuna fibroblastoengandik lortutako faktore soluigarrien presentzian hazitako minbizi zeluletan.

Fibroblastoek PCAko giza zelulengan duten eragina aztertzeko, zelula guztiak 96 putzuko plaketan kultibatu ziren baldintza normaletan edo fibroblastoengandik lortutako CMaren presentzian 1:2 proportzioan diluituta 24 orduz. Ostean, aurretik azaldutako prozedura berdinarekin jarraitu zen, hau da, zelulak konposatu eta konbinazio berdinekin tratatu ziren (berriro ere plaka erdia 1:2 CMrekin) eta 48 ordu igaro ostean *PrestoBlue*™ saiakuntzaren bidez absorbantzia neurtu zen (11. Irudia).




**11. Irudia. Zelulen bideragarritasun entseguaren eskema fibroblastoengandik lortutako faktore soluigarrien presentzian hazitako zeluletan.** Plaka batean kultibatutako zelulen erdia kultibo medio arruntarekin eta beste erdia fibroblastoen CMarekin 1:2 diluituta inkubatu zen 24 orduz (1). Ondoren, zelulei medio zaharra kendu eta aurreko egunekoa bezalako medio berria gehitu zitzaien tratamenduekin batera eta berriro ere beste 48 orduz kultibatu ziren. Azkenik zelulei PrestoBlue™ gehitu zitzaien eta 2 ordu igarotakoan absorbantzia neurtu zen (3). *Irudia BioRender bidez sortutakoa da.*

## 1.6. Zelulen migrazio entsegua.

Ocoxinek zelulen migrazio prozesuan duen eragina aztertzeko C26 minbizi zelulen, zein 3T3 fibroblasto, zein J774A.1 makrofagoen migrazio entsegua gauzatu zen. Horretarako, zelulak $2x10^5$ zelula/ml kontzentrazioarekin kultibatu ziren I motako kolagenoz estalitako 8µm-ko poro diametroko *Transwell* insertetan (Greiner Bio-One, Austria) 1:100 ($V/V_f$) Ocoxindun RPMI-1640 medioarekin eta 18 orduz kultibatu ziren. Ondoren, inserteko zelulak % 4 formalinarekin fixatu eta kristal bioletarekin tindatu ziren. Ostean, insertaren mintza moztu eta porta batean jarri zen migratutako zelulak zituen

mintzaren aldea gora begira egonik eta DPXarekin muntatu zen. Azkenik, inserteko mintz osoari argazkiak atera zitzaizkion eta zeharkatu zuten zelula guztien kopurua kuantifikatu zen *ImageJ* softwarea erabiliz (12. Irudia).




***12.*** **Irudia. Migrazio entseguaren eskema.** Zelulak aurretik kolagenoz estalitako *Transwell* insertetan kultibatu ziren Ocoxinen diluzio desberdinak zituzten medioekin (1). 18 ordu igaro ondoren insertak plakatik atera (2) eta % 4 formalinatan murgildu ziren zelulak fixatzeko eta ostean, kristal bioletarekin tindatu ziren (3). Bukatzeko, inserteko mintza moztu egin zen (4-5) eta porta batean muntatu zen (6). *Irudia BioRender bidez sortutakoa da.*

## 1.7. Zatiketa zelularraren analisia CFSE bidez

Ocoxinek zatiketa zelularrean aldaketarik eragiten zuen aztertzeko, zelulen zatiketa kopurua CFSE erabiliz aztertu zen. Horretarako, zelulak azaldutako prozesuaren bidez altxatu ostean, 10 mM CFSE gehitu zitzaien RPMI-1640tan diluituta eta 30 minutuz 37 °C-tan inkubatu ziren. Ondoren, zelulei FBS-dun kultibo medio osatua gehitu zitzaien CFSEa inaktibatzeko eta zentrifugatu egin ziren erreaktibo soberakinak deuseztatzeko. Azkenik CFSErekin markatutako zelula horietako alikuota bat baztertu eta CFSEak igorritako seinalea neurtu zen *Beckman Coulter Gallios*$^{TM}$ (Beckman Coulter, Estatu Batuak) zitometroaren bidez, oraindik zatitu ez diren zelulen fluoreszentzia maila ezagutzeko.

Gainerako zelulei dagokionez birsuspenditu egin ziren eta berriro medio osatuarekin kultibatu ziren flasko desberdinetan. 24 orduz hazten utzi ondoren, zelula horietako flasko bat hartu, zelulak altxatu, zentrifugatu, garbitu eta CFSEak igorritako seinalea neurtu zen, tratamendurik gabe zelulek duten zatiketa-maila zein den jakiteko. Ostean, gainerako zelulei Ocoxinen diluzio desberdinak gehitu zitzaizkien. 266-6 zelulen kasuan zelulak 48 orduz inkubatu ziren eta C26 zelulak aldiz 24 orduz bakarrik. Denbora hori igarotakoan, zelulak altxatu, zentrifugatu eta garbitu egin ziren CFSEaren fluoreszentzia neurtzeko.

Fluoreszentzia horren bidez, zelulen zatiketa maila aztertu zen kontuan hartuz zelula batek pairatzen duen zatiketa bakoitzeko CFSE kantitate erdia aurkeztuko duela.

## 1.8 Ziklo zelularraren analisia propidio ioduro bidez.

Ocoxinek minbizi zelulen ziklo zelularren gain duen efektua aztertzeko, zelulak 72 orduz tratatu ziren. Hauek PBSarekin garbitu ondoren, 4 °C-tan 15 minutuz % 70eko etanolarekin fixatu ziren. Gero, zelulen *DNA FxCycle™ PI/RNAse Solution kit*eko PI/RNAsa soluzioa erabiliz tindatu ziren ordu erdiz eta *Beckman Coulter Gallios*$^{TM}$ (Beckman Coulter, Estatu Batuak) zitometroaren bidez zelulek igorritako fluoreszentzia neurtu zen.

Fluoreszentziaren arabera ziklo zelularraren faseak 4 taldetan banatu ziren: Sub $G_1$, $G_0/G_1$, S eta $G_2$/M. Sub $G_1$ faseak apoptosia bezalako prozesuen bidez DNA kantitate murriztua eta beraz, PI fluoreszentzia gutxi aurkezten duten zelulen multzoa hartzen du. Bigarrenez, $G_0/G_1$ faseak hazkuntzan dauden zelulak hartzen ditu bere barnean, DNA kantitate arrunta azaltzen dutelarik. Hirugarrenez, S faseko edo sintesi faseko zelulen multzoa DNAren duplikazioarekin hasten diren zelulez osaturik dago, beraz hauen DNAren fluoreszentzia-maila aurrekoena baino altuagoa izango da. Azkenik, $G_2$/M faseak DNA kantitate bikoitza duten eta mitosirako prestatzen ari diren zelulak barne hartzen ditu, hortaz, fluoreszentzia maila altuena igorriko dutenak zelula hauek izango dira.

Baldintza hauek kontuan izanik *Weasel Software*a erabiliz (Weasel Software Ltd, Finlandia) ziklo zelularreko fase bakoitzean zeuden zelula kopurua zehaztu zen.

## 1.9. Apoptosiaren analisia fluxu-zitometria bidez.

Ocoxinek zikloa gelditu edo apoptosia areagotzen duen ikertzeko, hasteko zelulak hazkuntza medio osatuarekin 48 orduz kultibatu ziren $3x10^5$ zelula/ml kontzentrazioarekin. Ostean, kultibo medio zaharra deuseztatu ondoren, kultibo medio osatu berriari tratamendu desberdinak gehitu zitzaizkien (ikusi Metodoetako 1.4 atala) CMarekin eta CM-rik gabe eta zelulak beste 48 orduz inkubatu ziren. Denbora hori igarotakoan, zelulak tripsinarekin altxatu, PBSarekin garbitu eta tindatu egin ziren *Annexin V-FITC Apoptosis Detection kit*arekin fabrikatzailearen jarraibideen arabera. Horretarako zelulak $5x10^5$ zelula/ml kontzentrazioa lortu arte diluitu ziren eta Anexina V-FITC eta PIarekin inkubatu ziren 10 minutuz. Zelula hauek garbitu ostean *Beckman Coulter Gallios*$^{TM}$ (Beckman Coulter, Estatu Batuak) zitometroa erabiliz fluoreszentziaren igorpena neurtu zen 530 eta 575 nm-tan kitzikapen moduan 480 nm-ko uhin luzerako izpia erabiliz, eta *Weasel Softwarea*ren bidez (Weasel Software Ltd, Finlandia) fluoreszentzia mailak aztertu ziren. Modu honetan, guztira, lau zelula talde bereiztu ziren: Zelula biziak (fluoreszentzia igorpenik gabe), apoptosi goiztiarreko zelulak (FITC-rako positiboak), apoptosi berantiarreko zelulak (FITC eta PIrako positiboak) eta zelula nekrotikoak zein hildakoak (PIrako positiboak).

## 1.10. 266-6 zelulen SV40 T antigeno handiaren espresioaren egiaztatzea fluxu-zitometriaren bidez.

Adenokartzinoma pankreatikoaren *in vivo* eredu berriarekin hasi aurretik, 266-6 zelulek SV40aren T antigeno handia espresatzen zutela ziurtatu zen fluxu zitometroaren bidez. Hortaz, lehenengo eta behin zelulak metanol hotzarekin fixatu ziren 5 minutuz giro tenperaturan. Garbitu ostean, zelulak % 5eko FBS-dun PBS-tan inkubatu ziren 40 minutuz antigorputzen lotura inespezifikoa ekiditeko. Ondoren, zelulak SV40aren T antigeno handiaren aurkako antigorputzarekin inkubatu ziren 1:100 diluituta giro tenperaturan ordu batez. Jarraian garbiketak egin ziren eta saguaren aurkako Alexa Fluor 488 fluorokromodun antigorputz sekundarioarekin inkubatu ziren berriro ere beste ordu batez. Bukatzeko PBSarekin 266-6 zelulak garbitu eta zitometrotik pasatu ziren SV40aren T antigeno handiaren espresiorik zegoen frogatzeko. Markatzailearen presentzia baieztatzean, *in vivo* eredua gauzatu zen.

# 2. *IN VIVO* ENTSEGUAK

Jarraian azalduko diren prozedura guztiak EHU/UPV-ko animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordeak (AEEB) onartuak izan dira eta estatu mailako zein nazioarteko ikerketarako diren animalien zainketa eta babesa bermatzen duten jarraibideen arabera burutu ziren. Halaber, animaliak EHU/UPV-ko animaliategian mantendu ziren karraskarientzako pentsua eta ura *ad libitum* hartzeko aukera zutelarik.

## 2.1. Adenokartzinoma pankreatikoaren *in vivo* eredu esperimentalaren garapena

PCAren eredu esperimentala gauzatzeko, 6-8 astetako C57Bl/6J sagu arrak eskuratu ziren. Lehenik eta behin, *in vivo* ereduarekin animalia guztiekin batera hasi aurretik, 3 saguri CFSErekin markaturiko tumore zelulak (Ikusi Metodoetako 1.7 atala) inokulatu zitzaizkien. 48 ordu pasa ondoren animaliak sakrifikatu egin ziren eta pankreak *Tissue-Tek® OCT™*-tan sartu ziren izoztuta mantentzeko, beranduago 266-6 zelulen presentzia fluoresentzia bidez histologikoki baieztatu ahal izateko. Zelulak bertan zeudela egiaztatu ondoren, gainerako animaliekin prozedura berdina jarraitu zen. Horretarako, sagu guztiak 50 mg/kg pentobarbitalekin anestesiatu ziren injekzio intraperitoneal bidez. Ondoren, ebaketa bat egin zitzaien saguaren ezkerraldean, abdominaren altueran, eta peritoneoa moztu zen. Pankreak egitura difusoa aurkezten duenez, organoa aurkitzeko, lehenengo barea atera zen eta hesteari loturik agertzen den gantza jarraituz bertaraino heltzea lortu zen. Behin pankrea aurkituta, 266-6 zelulak inokulatu zitzaizkien, guztira $2x10^5$ zelula izanik, $2x10^6$ zelula/ml kontzentrazioarekin PBS-tan diluiturik eta jarraian ziztada gunea presioa eginez estali zen minutu batez zelulak kanpora atera ez zitezen. Amaitzeko, organo guztiak berriro gorputzean sartu eta peritoneoa eta azala hariarekin itxi ziren eta saguak esnatu arte itxaron zen. Animaliek beroa galtzea ekiditeko, anestesiapean zeuden bitartean tapaki elektriko baten gainean jarri ziren.

## 2.2. Kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoaren *in vivo* eredu esperimentalaren garapena.

Beste alde batetik, CRCko metastasi hepatikoaren *in vivo* eredu esperimentala garatzeko, 8 asteko BALB/c sagu arrak eskuratu ziren. Aurreko kasuan bezala, animaliak 50 mg/kg pentobarbitalekin anestesiatu ziren injekzio

intraperitoneal bidez eta ondoren, saguaren ezkerraldean ebaketa bat egin zen barea ateratzeko. Gero, barearen behe poloan $2x10^5$ zelula injektatu zitzaizkien $2x10^6$ zelula/ml kontzentrazioarekin eta amaitzerakoan orratzak utzitako zuloan presioa egin zen zelulak baretik ez ateratzeko. Azkenik, zauria hariarekin itxi zen eta saguak esnatu zirenean kaioletara bueltatu ziren. Kasu honetan ere, saguak tapaki elektriko baten gainean mantendu ziren esnatzen ziren arte.

## 2.3. Tratamenduen dosi eta patroien ezarpena

### 2.3.1. Ocoxinen tratamenduaren dosi eta patroiaren ezarpena

*In vivo* eredu egokiena aukeratzeko, lehenik eta behin dosi eta tratamendu patroi desberdinak frogatu ziren (13. Irudia). Horretarako, minbizi eredu bietan animaliak talde desberdinetan banatu ziren bakoitzak 7 animalia zituelarik:

Kontrol taldea: Tratatu gabeko saguez osaturiko taldea, minbiziaren garapen normala monitorizatzeko.

Halaber, tratatu gabeko hiru animalia tumore-zelulak inokulatu eta egun batzutara sakrifikatu egin ziren tumoreen garapena kontrolatzeko: PCAren *in vivo* ereduaren kasuan 17. eta 24. egunetan sakrifikatu ziren eta CRC-ko metastasiaren ereduan, aldiz, 7. egunean. Gainerako animaliak zelulak inokulatu eta 35 egun pasa ostean sakrifikatu ziren PCAko ereduan eta CRC-ko metastasiaren kasuan, aitzitik, 21 egun igarotakoan.

Tratamendu prenbentiboaren taldea: Taldeko honetako saguak tumore-zelulak inokulatu aurretik 10 egunez tratatu ziren bi ereduetan, Ocoxinek tumore zelulak itu-organora heldu baino lehenago eragin prebentiborik eskaintzen duen aztertzeko.

Tratamendu jarraiaren taldea: Talde honetako saguak egunero tratatu ziren tumorea inokulatu zitzaienetik sakrifikatu arte, itu-organoan estrabasatu ondoren, Ocoxinek garapen metastasikoan duen eragina aztertzeko. Hori dela eta, talde hau kolon ondesteko minbiziaren metastasiko *in vivo* ereduan bakarrik ezarri zen.

Tratamendu erregresiboaren taldea: Talde honetako saguek tumore zelulak inokulatu eta 7 egun beranduago hasi zuten tratamendua. Animaliak egunero

tratatu ziren sakrifikatu ziren arte, Ocoxinek jada ezarritako tumore-foku zein metastasiaren erregresioa eragiten duen aztertzeko.

Aldi berean, talde hauek azpitaldetan banatu ziren jasotako Ocoxin dosiaren arabera. PCAko minbizi ereduaren kasuan 100 µl eta 200 µl erabili ziren eta CRCko metastasi hepatikoaren *in vivo* ereduan 50 µl-ko dosia ere gehitu zen.




**13. Irudia.** ***In vivo*** **ereduetan erabilitako tratamenduen eskema.** Kolore argiz tratatamendurik jaso ez zuten periodoa eta kolore ilunez tratamendua jaso zuten denbora tartea. A) Adenokartzinoma pankreatikoko sagu ereduan erabilitako tratamenduen patroia. B) Kolon-ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoko sagu ereduan erabilitako tratamenduen patroia.

Aipatzekoa da tratamendua kanula intragastrikoen bidez eman zitzaiela saguei eta Ocoxinik jaso ez zutenen kasuan, animaliak kanulatu egin zirela tratamendu prozesuak eragindako estresa simulatzeko.

Amaitzeko sagu guztiak dislokazio zerbikal bidez sakrifikatu ziren eta odola atera zitzaien kaba zainetik. Sakrifizioaren ondoren, organoak erauzi egin ziren prozesamendu histologikorako.

### 2.3.2. Ocoxin eta irinotekanez osatutako tratamendu konbinatuaren dosi eta patroiaren ezarpena.

Ocoxinen dosi eta emate-patroi efektiboena zehaztu zirenean, Ocoxinen eragina aztertu zen irinotekan agente kimioterapeutikoarekin batera konplementu gisa erabiltzerakoan. Horretarako, tratamendu erregresiboko taldearen eredua jarraituz (ikusi Metodoetako 2.3.1. atala) 4 animalia multzo berri bereiztu ziren tratamenduaren arabera (14. taula). Ocoxinekin tratatutako saguei osagarri nutrizionala egunero ematen zitzaien kanula intragrastriko bidez eta irinotekana, aldiz, injekzio intraperitonealaren bitartez ematen zitzaien 2 egunik behin 14. taulan azaltzen diren dosiak erabilita.

Gainerako prozedura aurreko atalean azaldutako berdina izan zen.

**14. taula. Kolon ondesteko minbiziaren metastasi hepatikoko *in vivo* ereduan animaliekin erabili ziren tratamendua kolon-ondesteko minbiziaren ereduan frogatu ziren tratamenduen zerrenda.**

| **Tratamenduak** |
|---|
| **Kontrola (tratamendurik gabe)** |
| **Ocoxin 100 µl** |
| **Irinotekan 20 mg/Kg** |
| **Irinotekan 20 mg/Kg + Ocoxin 100 µl** |

## 2.4. Gibel esplanteetatik erauzitako tumore zelulen isolamendua.

Ocoxinek *in vivo* C26 zeluletan zuen eragina aztertzeko, tratamendu desberdinak jaso zituzten saguen gibeletako CRCaren tumore metastasikoak erauzi egin ziren (ikusi eredu esperimentala Metodoetako 2.2 atalean). Esplante horietatik banakako zelulak lortzeko tumoreak disgregazio mekanikoz zatitu ziren eta Petri plaketan % 0,05eko tripsina-EDTArekin inkubatu ziren disgregazio entzimatikorako 10 minutuz. Ondoren, 430 G eta 4 ºC-tan 10 minutuz zentrifugatu eta % 10eko FBS-dun RPMI-1640 medioarekin

eseki ziren, azkenik Petri plaketan kultibatzeko 0,1 µg/ml gentamizinarekin batera kutsadurak saihesteko (14. Irudia).

Disgregatutako lagin horietan gibel zelula primario desberdinak zeudenez, minbizi-zelulak bakarrik lortzeko asmoarekin eta gainerakoak baztertzeko kultiboa aste batez mantendu zen egun birik behin hazkuntza medioa aldatuz eta tumore zelulak hazkuntza-prozesuan zeudela egiaztatuz. Minbizi-zelulak hazten zeuden bitartean gainerako gibeleko zelula primarioak oso sentikorrak direnez, gehienak hil eta hazkuntza medioa aldatzen zen bakoitzean galdu egiten ziren. Hortaz, astebete igaro ondoren kultiboan tumore-zelulak bakarrik zeudela kontsideratu zen.




**14. Irudia. Gibel esplanteetatik tumore zelulak isolatzeko erabilitako teknikaren eskema.** Gibeletatik tumore makroskopikoak erauzi ziren eta disgregazio mekanikoz eta kimikoz zatitu ziren (1-2). Zelulak zentrifugatu ostean Petri plaka batean kultibatu ziren (3-4). Bi egunik behin medioa aldatu zitzaien hildako zelulak kentzeko (5-7) eta aste baten buruan tumore zelulen kultiboa lortu zen (8). *Irudia BioRender bidez sortutakoa da.*

# 3. ANALISI HISTOLOGIKOAK

## 3.1. Laginen prozesamendua.

Organoak saguengandik erauzi ondoren, alde batetik, pankreak % 3,7-4 v/v formaldehidotan fixatu ziren 24 orduz eta bestetik, gibelak zink soluziotan

mantendu ziren 12 orduz eta horren ostean % 50eko etanoletan murgildu ziren. Ondoren, organoak *Shandon Citadel 2000* (Thermo Scientific, Estatu Batuak) ehunen prozesatzailean sartu ziren, alkohol gradiente baten bitartez deshidratatzeko eta parafinaz betetzeko. Amaitzeko, pankrea zein gibelak parafinatan inkluditu ziren.

CRCko gibeleko metastasiaren *in vivo* eredutik lortutako parafinatan sartutako gibeletan 7 µm-ko lodieradun sei ebaketa egin ziren mikrotomoarekin beraien artean 500 µm-ko tartea zegoelarik organoaren azalera altuera desberdinetan aztertzeko asmoz. PCAko *in vivo* ereduko saguetatik erauzitako pankreetan ere, 7 µm-ko lodieradun sei ebaketa egin ziren altuera desberdinetan.

Hala ere, organo batzuk ez ziren zink soluziotan fixatu, *Tissue-Tek® OCT™*-tan inkluditu ziren izoztuta mantentzeko ondorengo analisietarako.

## 3.2. Fluoreszentziadun laginen prozesamendua.

Fluorezsentziarekin markaturiko zelulak daramatzan organoak aztertzeko, izoztutako organoen 10 µm-ko lodierako laginak moztu ziren kriostatoan eta % 70eko etanolarekin fixatu ziren. Ostean, DAPIdun *Fluoromount™*-a gehitu zitzaien zelulen nukleoak markatzeko eta lagina muntatzeko eta azkenik, *Zeiss Axioskop (Carl Zeiss Incorporated)* (Zeiss, Alemania) kameradun fluoreszentziazko mikroskopioan, *Cell*$^{A}$ programarekin 266-6 zelulen presentzia aztertu zen.

## 3.3. Hematoxilina eta Eosina tindaketa.

Hematoxilina eta eosina tindaketa egiteko, lehenengo eta behin sekzio histologikoak alkohol gradiente batetik pasatu ziren laginak desparafinatu eta berhidratatzeko eta ostean, hematoxilina eta eosinarekin tindatu ziren 15. taulako prozedura jarraituz. Ondoren eta laginak berriz ere alkohol gradientetik pasa ziren 15. taulako protokoloa alderantzizko noranzkoan jarraituz ehunak deshidratatzeko. Azkenik, sekzio histologikoak DPX muntai medioa erabiliz muntatu eta lehortutakoan *Olympus XC50* kameradun *Olympus BX50* mikroskopio optikoarekin eta Cell$^{A}$ programa erabiliz (Olympus Soft Imaging Solutions, Alemania) lagin guztiaren argazkiak atera ziren.

**15. taula. Parafinatan dauden laginen deshidratazio-berhidratazio prozedura eta hematoxilina-eosina tindaketaren protokoloak.**

| Alkohol gradientea | |
|---|---|
| **Substantzia** | **Denbora** |
| **Zitrosola** | 10 minutu (x2) |
| | 5 minutu |
| **100°ko etanola** | 10 segundu |
| **96°ko etanola** | 10 segundu (x2) |
| **70°ko etanola** | 10 segundu |
| **50°ko etanola** | 10 segundu |
| **Ur distilatua** | 5 minutu |

| H&E tindaketa | |
|---|---|
| **Substantzia** | **Denbora** |
| **Hematoxilina** | 2,5 minutu |
| **Ur distilatua** | 5 minutu (x2) |
| **% 0,5eko HCl** | 3 segundu |
| **Ur distilatua** | 5 minutu |
| **Eosina** | 25 segundu |
| **Ur distilatua** | 5 minutu |

Irudien analisiari dagokionez, *ImageJ* softwarea erabiliz lagin osoko tumore-foku kopurua eta hauek okupaturiko azalera kuantifikatu zen. Horretarako, 500 µm-ko tartea zuten hiru sekzio aztertu ziren organo bakoitzean eta batez bestekoa kalkulatu zen.

# 4. IMMUNOENTSEGUAK

## 4.1. Analisi immunohistokimikoak

Analisi immunohistokimikoekin hasi baino lehen, aurreko atalean azaldutako protokoloa jarraituz, ehunak desparafinatu eta berhidratatu egin ziren alkoholen gradientetik pasatuta. Behin laginak hidrataturik izanik, % 3ko $H_2O_2$ eta % 3ko FBS-tan inkubatu ziren, 40 minutuz bakoitza, peroxidasa endogenoa eta proteina inespezifikoak blokeatzeko. Ondoren, laginei antigorputza gehitu zitzaien % 0,1 Triton X-100dun PBStan diluituta ehuna iragazkortu eta antigorputza zelulen nukleoetaraino hel zedin. Zelulen proliferazioa aztertzeko anti-Ki-67 antigorputza erabili zen, apoptosirako anti-Caspasa-3 eta makrofagoen eta fibroblastoen infiltrazioa detektatzeko anti-F4/80 eta anti-α-SMA antigorputzak hurrenez hurren (ikusi Materialetako 10.1. atala). Salbuespen moduan anti-α-SMA antigorputza erabili aurretik α-SMAren kasuan, saguen immunoglobulina endogenoak blokeatu egin ziren immunoglobulinen F(ab) fragmentuaren aurkako antigorputzaren bidez 1:500 diluituta, beranduago erabiliko den antigorputz sekundarioa, bai ehuna saguarengandik erauzitakoak direnez, lotura inespezifikoak saihesteko. Laginak hurrengo egunera arte inkubatu ondoren garbiketak egin ziren eta bakoitzari dagokion antigorputz sekundarioa gehitu zitzaien (ikusi Materialetako 10.2. atala). Azkenik, antigenoen espresioa Estreptabidina-HRP eta 2-Solution DAB kitaren bitartez errebelatu ziren eta laginak DPXarekin muntatu ziren.

Lehortutakoan, sekzio bakoitzari argazkiak atera zitzaizkion bere osotasunean *Olympus XC50* kameradun *Olympus BX50* mikroskopio optikoarekin eta Cell$^{A}$ programa erabiliz (Olympus Soft Imaging Solutions, Alemania). Azkenik, tumoreak identifikatu egin ziren eta immunomarkaketa positiboa azaltzen zuen tumorearen azalera portzentaia kuantifikatu zen *ImageJ* softwarea erabiliz.

## 4.2. Plasmako zitokina-mailen analisia ELISA bidez

Adenokartzinoma pankreatikoaren sagu ereduari dagokionez, tratatu gabeko eta tratamendu erregresiboa jarraituz 100 µl eta 200 µl Ocoxin ($V/V_f$) jaso zuten saguetan (ikusi Metodoetako 2.3.1. atala) IL-1β, IL-10, IL-12 eta IFNγ zitokinak aztertu ziren ELISA bidez. Teknika honen oinarria antigorputzek daramatzaten entzimak dira, sustratuarekin erreakzionatzen dutenean, kolore-aldaketa bat sortzen dutenak hain zuzen. Labur esanda, entzimadun antigorputzak (atzemate-antigorputza) antigeno bat ezagutzen du (aztertu nahi den laginean) eta gero horri antigenoarekin lotuko den beste antigorputz bat (detekzio-antigorputza) gehitzen zaio, zeinak substratua daraman, azkenean entzima eta substratuaren arteko erreakzioak gertatuko delarik.

Animaliak sakrifikatzerakoan kaba zainetik odola atera zitzaien eta agente koagulatzailedun hodiak erabiliz, seruma erauzi zen zentrifugazio bitartez. Ostean, *Mouse IL-1β* and *IL-10 CytoSet*$^{TM}$ kitak eta *Mouse IFNγ* eta *IL-12 ELISA Set*ak erabiliz ELISA entseguak gauzatu ziren fabrikatzailearen arauak jarraituz. Horretarako atzemate-antigorputzez (anti-IL-1β, anti-IL-10, anti-IFNγ edo anti-IL-12) gainestalirik dauden plaketan gure lagina jarri zen eta ondoren, horri biotinadun detekzio-antigorputza (anti-IL-1β, anti-IL-10, anti-IFNγ edo anti-IL-12) gehitu zitzaion, aurretik harrapaturik geratu ziren antigenoekin lotzeko. 2 orduz inkubatu ostean, plakak garbitu eta estreptabidina-HRP konplexua gehitu zitzaien, detekzio-antigorputzaren biotinarekin lotuko dena eta ordu batez ikubatu ziren. Berriro ere garbiketak egin ostean, estreptabidina-HRP konplexuarekin erreakzionatzen duen TMB substratua gehitu zitzaien. TMBak kolore urdina aurkezten du, baina peroxidasarekin erreakzionatzean bere kolorea hori bihurtzen da. Substratu eta entzimaren arteko erreakzioa gelditzeko azido sulfurikoa gehitu zitzaien laginei eta bukatzeko, laginek igorritako argia *Multiscan Ex®* plaka irakurgailuan (Thermo Scientific, Estatu Batuak) aztertu zen 450 nm eta 620 nm-ko filtroak erabiliz.

# 5. ENTSEGU MOLEKULARRAK

## 5.1. Polimerasaren kate-erreakzio kuantitatiboa

Lan honetan, pankreako tumorearen garapena eta gibeleko zitokinen maila aztertzeko RT-qPCR teknika erabili zen, zeinak mRNA (RNA mezularia) kuantifikatzen duen. Pankrearen kasuan, PCAren hazkundea detektatzeko 266-6 zelulen SV40 birusaren T antigeno handia erabili zen PCAren markatzaile gisa (Ornitz et al., 1987). CRC-ko metastasidun gibelari dagokionez, aldiz, zitokina eta inflamazio-bitartekari desberdinak aztertu ziren: ziklooxigenasa-2 (COX2), IL-1β, IL-6, INFγ eta TNF-α.

Horretarako, RNA totala parafinatan inkluditutako sekzioetatik erauzi zen Norgen FFPE RNA Purification kitarekin, zeina zutabeen bidezko kromatografian oinarriturik dagoen. Hasteko, laginei parafina kentdu zitzaien xileno eta etanolaren bidez. Ondoren, laginak K proteinasa eta digestio tanpoiaren bidez digeritu ziren eta honen ostean, etanola eta beste tanpoi baten bidez, laginak lisatu eta zutabeetan jarri ziren. Zentrifugazio bidez lagina zutabeetatik igaro eta RNA bertan atxikiturik geratzen da gainerako osagaiak zutabearen gainean geratu edo zutabea zeharkatu eta galdu egiten direlarik. Pausu honen ostean, nahi izanez gero, DNA genomikoaren hondarrak deuseztatu daitezke RNAsarik gabeko DNAsa gehituz zutabeei. Bukatzeko, garbiketak egin ostean eluzio soluzioaren bidez, RNA zutabetik askatu zen eta RNA purifikatua lortu zen. Orduan, bere kontzentrazioa eta kalitatea *NanoDrop®ND-1000* (Thermo Fisher, Estatu Batuak) espektrofotometroaren bidez ebaluatu zen. Ondoren, erauzitako RNA horretatik 2µg hartu ziren eta *iScript™ cDNA Synthesis kit*a erabiliz laginak *C1000™ Thermal Cycler* (Bio-Rad, Estatu Batuak) termozikladorean inkubatu ziren fabrikatzaileak agindutako jarraibideak kontutan hartuz eta 16. taulako protokoloa jarraituz:

**16. taula. cDNAren sintesirako termozikladorean erabilitako protokoloa.**

| **Prozesua** | Denbora | Tenperatura |
|---|---|---|
| **Bateratzea** | 5 minutu | 25 °C |
| **RT** | 30 minutu | 42 °C |
| **RT inaktibazioa** | 5 minutu | 85 °C |

RNAren RTa gauzatutakoan, lortutako cDNA laginak anplifikatzeko *Platinum™ Multiplex PCR Master Mix 2x* kita erabili zen, hau da, laginari DNA polimerasa

eta primer desberdinak gehitu zitzaizkion lortutako cDNA anplifikatzeko eta berriro ere termozikladorean inkubatu ziren (ikusi 17 taula).

**17. taula. Multiplexerako termozikladorean erabilitako protokoloa.**

| Prozesua | Denbora | Tenperatura | Ziklo kopurua |
|---|---|---|---|
| **Aktibazioa** | 2 minutu | 95 °C | x 1 |
| **Desnaturalizazioa** | 30 segundu | 95 °C | |
| **Hibridazioa** | 1:30 minutu | 60 °C | x 14 |
| **Luzapena** | 30 segundu | 72 °C | |
| **Luzapena** | 10 minutu | 72 °C | x 1 |
| **Mantentzea** | ∞ | 4 °C | |

Behin laginak anplifikatuta zeudenean DNA horren qPCRa gauzatu zen, kasu bakoitzean detektatu nahi zen generako primer zehatza (9. Taula) eta fluoroforo bezala *SYBR® Green*-a erabiliz 96 putzuko plaketan, gure intereseko genea bakarrik anplifika zedin. RTaren kontrol positibo bezala S15 gene konstitutiboa erabili zen pankreako laginen kasuan eta GAPDHa gibelekoenean (9. taula). Plakak denbora tarte batez zentrifugatu ziren burbuilak kendu eta konposatu guztiak hondora joan zitezen eta cDNAren anplifikazioa *C1000™ Thermal Cycler* (Bio-Rad, Estau Batuak) termozikladorean gauzatu zen 18. taulan azaltzen den protokoloa jarraituz.

**18. taula. qPCRa gauzatzeko termozikladorean erabilitako protokoloa.**

| Prozesua | Denbora | Tenperatura | Ziklo kopurua |
|---|---|---|---|
| **Desnaturalizazioa** | 10 minutu | 95 °C | x 1 |
| **Hibridazioa** | 20 segundu | 95 °C | x 39 |
| **Luzapena** | 1 minutu | 59 °C | |
| **Banantzea** | 5 segundu | 65 °C | x 1 |

Azenik, cDNA *ABI7900HT Sequence Detection system*-ean kuantifikatu zen *ABI Prism, SDS2.0* softwarearekin (Thermo Fisher, Estatu Batuak) eta aztertutako gene guztien espresio erlatiboa normalizatu egin zen kontrol gene konstitutiboarekiko ΔΔCt metodoa erabiliz (Livak & Schmittgen, 2001). Hortik intereseko dugun genearen atari-zikloa edo Ct balioa (ingelesez *Cycle Threshold*) lortzen da, zeinak anplifikazio-kurba konkretu batentzat fluoreszentziaren detekzio-ataria gainditzeko behar diren zikloen kopurua adierazten duen.

## 5.2. Tumore zeluletako RNAren mikoarraia

### 5.2.1. RNAren erauzketa

Ocoxinek tumore zeluletako geneen espresioan daukan eragina aztertzeko, alde batetik *in vitro* tratatutako PCAko 266-6 zelulak analizatu ziren eta bestetik, Ocoxin hartu zuten CRC-dun gibeleko metastasia zuten saguen esplanteetatik erauzitako zelulak ere aztertu ziren. Horretarako, zelula guztiak P6 plaketan hazi ziren. RNAren erauzketarako, lehenengo eta behin zelulei hazkuntza medioa kendu eta $10^6$ zelulako 1 ml TRIzol™ gehitu zitzaien. 10 minutuz erreakzionatzen utzi ostean, plaketako laginak hodietara transferitu ziren eta 0,2 ml kloroformo gehitu zitzaizkien. 3 minutuz giro tenperaturan ikubatu ostean, hodiak zentrifugatu egin ziren 4 ºC-tan 15 minutuz eta 15.000 G-ko azelerazioarekin. Gainjalkinak beste hodi batera transferitu ziren eta 0,5 ml isopropanol gehitu zitzaien eta giro tenperaturan 10 minutu igaro ostean, laginak berriro zentrifugatu ziren 4 ºC-tan 10 minutuz eta 12.000 G-ko azelerazioarekin. Kasu honetan gainjalkina kendu egin zen eta pelletari % 75eko etanol 1 ml gehitu zitzaien berriro zentrifugatzeko 4 ºC-tan 7500 G-rekin eta 5 minututz. Amaitzeko, gainjalkina berriro ere baztertu egin zen eta pelletak lehortzen utzi ziren giro tenperaturan. Laginek alkoholik ez zeukatenean 16 µl RNasa gabeko uretan birsuspenditu ziren.

Horren ostean, erauzitako RNA purifikatu egin zen *PureLink™ RNA Mini Kit*a erabiliz. Horretarako laginari RNasa endogenoengandik babesten duen lisi soluzioa gehitu zitzaion eta zutabe batzuetatik pasatu zen homogenizatzeko. Ostean laginari etanola gehitu eta beste zutabe batzuetatik pasatu zen non RNA atxikita geratzen zen. Bertatik RNA eluitzeko, zutabeetatik RNasa gabeko ura pasarazi zen. Azkenik, RNAren osotasuna aztertu egin zen *Lab-chip*arekin *Eukaryote Total RNA Nano Assay*aren bidez *Agilent 2100 Bioanalyzer*-ean *Agilent RNA 6000 Nano Chips*ekin batera (Agilent Technologies, Estatu Batuak).

### 5.2.2. Mikroarraiaren analisia

Mikroarrairako *SurePrint G3 Mouse GE 8x60K Microarray Kit*a erabili zen (ID: 074809). Porta bakoitzak 8 azpi-arrai berdin dauzka 27.122 gene eta 4.578 RNA ez kodifikatzaile luzerentzako (ingelesez *Long non-coding RNA*, lncRNA) sondekin eta kalitate kontrol bezala sonda horietako 300 10 aldiz erreplikatuta daude. Arrayaren diseinurako datu base desberdinak erabili ziren: *Ensembl*

*Release 76, GenBank* (2014ko Abuztua), *RefSeq Build 66*, *RIKEN 3* eta *Unigene Build 236*.

Mikroarraia *Low Input Quick Amp Labeling kit*, *One-Color*-arekin kitaren protokoloa jarraituz gauzatu zen lagin bakoitzeko 100 ng RNA erabili zirelarik markaketa bakoitzean. Hasteko, RNA *AffinityScript™* alderantzizko transkriptasarekin (*AffinityScript™ RT*) erretrotranskribatu egin zen zianina-3 fluoroforodun zitidina trifosfato nukleotidoekin (Cy3-CTP) batera cRNA markatua lortzeko. Kontrol positibotzat *Spike-in* sondak gehitu zitzaizkien laginei, RNA markatu aurretik. Ondoren, markaturik dauden *laginak RNeasy Mini kit* zutabeetatik pasatuz purifikatu ziren eta *NanoDrop®ND-1000*ean (Thermo Fisher, Estatu Batuak) kuantifikatu ziren. Horren ostean, markatutako cRNAetatik 600 ng erabili ziren 40 µl-tan *SureHyb* hibridazio ganbaren bidez laginak eskuz hibridatzeko. Laginak 65 ºC-tan inkubatu ziren 19 orduz eta 10 rpm-ko azelerazioarekin Agilent *Microarray Hybridization Oven* (Agilent Technologies, Estatu Batuak) labean eta bukatutakoan garbiketak egin ziren. Azkenik portak eskaneatu egin ziren *DNA microarray scanner G2535CA* erabiliz eta en A*gilent Scan control (v. 8.5.1.)* softwarearekin (Agilent Technologies, Estatu Batuak). Eskaneatutako irudiak *Agilent Feature Extraction (v. 10.7.3.1)* softwareari esker (Agilent Technologies, Estatu Batuak) prozesatu ziren.

### 5.2.3. Mikroarraitik lortutako datuen analisia

*Agilent Feature Extraction (v. 10.7.3.1)* softwarearen bidez lortutako datu guztiak *GeneSpring GX 13.0* (Agilent Technologies, Estatu Batuak) programaren bidez prozesatu eta normalizatu ziren fitxategi bakar bat lortzeko non emaitzak guztiak laburbildurik zeuden. Analisi estatistikoak egin ostean (ikusi Metodoetako 6. atala), aldaketa esanguratsua jasan zuten geneen sailkapena *PANTHER (v.10.0)* izeneko analisi sistema erabiliz burutu zen.

Mikroarraiarekin bukatzeko lortutako emaitzak datu base desberdinekin erkatu ziren. Pankreako zelulei dagokionez, tratatu gabeko 266-6 zelulekin alderatuz espresio maila desberdina aurkeztu zuten geneak hurrengo bilduma hauetan bilatu ziren, lortutako geneak aldez aurretik minbiziarekin erlazionaturik zeuden aztertzeko:

·*Pancreatic Expression Database (PED)*
(http://www.pancreasexpression.org; 2019)

·*Pancreatic Cancer Database (PCD)*
(http://pancreaticcancerdatabase.org; 2019)

CRCaren metastasi hepatikoko ereduan, berriz, tratamendurik jaso ez zuten saguengandik erauzitako zelulen espresioarekiko desberdintasunak azaldu zituzten sagu tratatuengandik lortutako zelulen geneen izenak jarraian agertzen den datu baseko geneekin konparatu ziren, deregulazioa jasan zuten geneak minbiziarekin erlazionaturik zeuden ezagutzeko.

·*Colorectal Cancer Genome Database (CoReCG)*
(http://lms.snu.edu.in/corecg/; 2019)

·*Liver Cancer Expression Resource (CancerLivER)*
(https://webs.iiitd.edu.in/raghava/cancerliver/; 2019)

# 6. ANALISI ESTATISTIKOAK

Orokorrean lan honetan esperimentu bakoitza gutxienez 3 aldiz errepikatu zen eta emaitzetako datuak esperimentu guztien batez besteko moduan aurkeztu ziren desbideratze estandarrarekin batera. Esanguratasuna Student-en T testa erabiliz kalkulatu zen.

Salbuespen bezala, saguen *in vivo* eredu esperimentalen garapena 2 aldiz bakarrik errepikatu zen bai PCAan, bai CRCaren metastasi hepatikoan, kasu bakoitzean 30-40 sagurekin, eta microarraien kasuan analisi estatistikoa *MultiExperiment Viewer* softwarearen (Saeed et al., 2003) 4.9.0 bertsioa eta *Linear Models for Microarray Data* edo *LIMMA* metodoa erabili zen (Smyth, 2004).

# IV. RESULTS
# IV. EMAITZAK

# 1. EFFECT OF OCOXIN ON THE PROLIFERATIVE AND MIGRATORY ACTIVITY OF NON-TUMORAL CELLS *IN VITRO*.

## 1.1 Only the most concentrated dilutions affected murine fibroblasts and macrophages.

Taking into consideration the influence of the different stromal cells on tumor development, first of all, we studied the effect of Ocoxin on the viability of stable non-tumoral cell lines frequently found in the TME: fibroblasts and macrophages. To do so, 3T3 fibroblasts and J774A.1 macrophages were treated with increasing concentrations of Ocoxin from 0 to 1:200 ($V/V_f$) for 24 hours.

Results revealed that Ocoxin did not affect murine 3T3 fibroblasts up to the 1:100 ($V/V_f$) concentration, which reduced their viability by 58 % and almost by 100 % when they were treated with the 1:50 ($V/V_f$) dose (Figure 15). On the other hand, murine J774A.1 macrophages showed higher resistance towards the nutritional supplement since the showed cell viability decrease by 50 % and by 74% when treated with 1:75 ($V/V_f$) and 1:50 ($V/V_f$) dilutions respectively (Figure 15). Besides, the 1:10 ($V/V_f$) dilution caused a complete cell death in both cell lines.

## 1.2. The migratory capacity of fibroblasts and macrophages was reduced by Ocoxin.

Tumors are known to promote stromal cell recruitment so that the TME becomes favorable for the development of cancer. Among those cells, fibroblasts and macrophages are known to migrate to the tumor site and have shown to be closely related to tumor progression. Therefore, the effect of Ocoxin was analyzed on the migratory potential of healthy 3T3 fibroblasts and J774A.1 macrophages. To do so, cells were cultured in the presence of Ocoxin onto 8 µm-diameter pore transwell inserts. 18 hours later, the total number of cells that went through the insert were counted. Our results displayed a significant 68 % and 41 % decrease on 3T3 and J774A.1 cell migration respectively when the 1:50 ($V/V_f$) dilution of Ocoxin was added to the culture medium. However, no statistical differences were observed on their migratory with the 1:100 ($V/V_f$) treatment (Figure 16).




**Figure 15. Viability of 3T3 and J774A.1 cells treated with different dilutions of Ocoxin.** 3T3 murine fibroblasts and J774A.1 macrophages were grown for 24 hours in the presence of different dilutions of Ocoxin to analyze their viability. Significances were expressed as *p<0.05 comparing the different treatments versus untreated cells according to the Student's T-test.




**Figure 16. Migratory capacity of 3T3 and J774A.1 cells treated with Ocoxin.** 3T3 fibroblasts and J774A.1 macrophages were let migrate for 18 hours through 8 µm-diameter pore transwell inserts under the presence of 1:50 and 1:100 ($V/V_f$) dilutions of Ocoxin. Significances were expressed as *p<0.05 comparing the different treatments versus untreated cells (Ø) according to the Student's T-test.

# 2. EFFECT OF OCOXIN ON THE PROLIFERATIVE ACTIVITY OF PANCREATIC CANCER CELLS *IN VITRO*

## 2.1. Effect of Ocoxin in murine pancreatic cancer cells.

### 2.1.1. Ocoxin reduced the viability of the 266-6 murine pancreatic cancer cells.

Murine PCA cells were used to analyze the effect of Ocoxin in pancreatic tumor cell viability. To do so, 266-6 cells were cultured with increasing concentrations of Ocoxin ranging from 1:1000 ($V/V_f$) to 1:50 ($V/V_f$). After 24 hours, cells were incubated with PrestoBlue™ for 2 hours until they metabolized the compound. Then, cell viability was quantified. Figure 17 shows that Ocoxin significantly decreased tumor cell viability in a dose-dependent manner. Only doses over the 1:200 ($V/V_f$) dilution showed significant differences, being 1:100 ($V/V_f$) and 1:50 ($V/V_f$) those that reduced cell viability more than 50 % compared to untreated cells (Figure 17).




**Figure 17. Viability of 266-6 cells treated with different dilutions of Ocoxin.** 266-6 murine PCA cells were grown for 24 hours in the presence of different dilutions of Ocoxin in order to analyze their viability. Significances were expressed as *p<0.05 comparing the different treatments versus untreated cells according to the Student's T-test.

### 2.1.2. Ocoxin treatment slowed down the cell cycle of the 266-6 murine pancreatic cancer cells.

In order to know whether the reduction of 266-6 cell viability provoked by Ocoxin was due to a change in the cell cycle or cell division rate, cells were stained with PI and CFSE and they were analyzed by flow cytometry. PI staining revealed a decrease of cells gated in the $G_0/G_1$ phase and a mild

increase of those in $G_2$/M phase in cells treated with the 1:100 ($V/V_f$) dilution of Ocoxin (Figure 18 A), meaning that Ocoxin provokes changes in cell cycle but does not enhance cell death *in vitro*. Besides, compared to the cell division rate of untreated cells, CFSE labeling showed that 1:200 and 1:500 ($V/V_f$) Ocoxin dilutions reduced 266-6 cell division by 10 % while 1:100 ($V/V_f$) dilution decreased it by 35 % (Figure 18 B). Hence, taking these results into account and considering that Ocoxin did not reduce cell viability of healthy 3T3 and J774A.1 cells below 1:100 ($V/V_f$) dilution (figure 15), that dose was chosen to perform the following *in vitro* experiments. In this case data were represented as the mean value ± SD of 2 independent experiments.




**Figure 18. Cell cycle and cell division analyses on 266-6 cells treated with Ocoxin.** 266-6 cells were treated with 1:500, 1:200, and 1:100 ($V/V_f$) dilutions of Ocoxin for 48 hours and flow cytometry analyses were carried out. A) Cells gated in each cell cycle phase according to the PI assay. B) Cell division rate according to CFSE labeling. Significances were expressed as *$p<0.05$ comparing the different treatments versus untreated cells according to the Student's T-test.

### 2.1.3. Ocoxin altered the gene signature of the 266-6 murine pancreatic cancer cells.

Previous observations confirmed that Ocoxin reduces the viability of 266-6 cells and causes changes in their cell cycle. Thereby, a comparative microarray study was performed to analyze whether this effects were produced by the alterations on gene expression. To do so, total mRNA was extracted from 266-6 cells that had been either untreated or treated with the 1:100 ($V/V_f$) dilution of Ocoxin for 48 hours. Obtained results showed that Ocoxin significantly altered the gene profile compared to that of untreated cells. In fact, 273 genes were significantly deregulated by Ocoxin with a >1.45 fold-change (Table 19).

**Table 19. Genes deregulated by Ocoxin treatment in 266-6 murine PCA cells (fold-change >1.45).**

| | Upregulated genes | Downregulated genes | Total |
|---|---|---|---|
| **Ocoxin vs Untreated** | 123 | 150 | 273 |

Interestingly, 14 of the identified genes had been previously associated with PCA which regressed to control levels after the administration of Ocoxin (Table 20). Moreover, those genes of the murine PCA 266-6 cell line deregulated by Ocoxin participate mainly in processes related to binding, catalytic and transporter activities, molecular function and transcription regulation, and molecular transducer activities (Table 21). On the other hand, these genes are also involved in biological processes such as cellular processes, metabolic processes and biological regulation, many of which are related to tumor development (Table 22).

For further information a list of all the deregulated genes can be found in Appendix I.

**Table 20. Summary of genes described to be deregulated in PCA that were significantly reverted by Ocoxin treatment.**

| Gene | PCA vs Healthy cells * | Treated vs Untreated |
|---|---|---|
| **ANGPTL4** | Downregulated (Gadaleta et al., 2011) | Upregulated |
| **ASNS** | Downregulated (Gadaleta et al., 2011) | Upregulated |
| **CRABP1** | Upregulated (Nakamura et al., 2004) | Downregulated |
| **CREB1** | Upregulated (Friess et al., 2003) | Downregulated |
| **EIF4EBP1** | Downregulated (Crnogorac-Jurcevic et al., 2001) | Upregulated |
| **FIGNL1** | Upregulated (Gadaleta et al., 2011) | Downregulated |
| **FOXF1** | Upregulated (Gadaleta et al., 2011) | Downregulated |
| **GRAP2** | Upregulated (Hustinx et al., 2004) | Downregulated |
| **HEY1** | Upregulated (Mann et al., 2012; Nakamura et al., 2004) | Downregulated |
| **NELL2** | Upregulated (Gadaleta et al., 2011; Nakamura et al., 2004) | Downregulated |
| **PAK7** | Upregulated (Capurso et al., 2006) | Downregulated |
| **RAPGEF3** | Upregulated (Weeks et al., 2008) | Downregulated |
| **SERPINF1** | Downregulated (Yu et al., 2005) | Upregulated |
| **SLC7A1** | Downregulated (Gadaleta et al., 2011) | Upregulated |
| **THY1** | Upregulated (Friess et al., 2003) | Downregulated |
| **TRPC4** | Upregulated (Capurso et al., 2006) | Downregulated |
| **WNT4** | Upregulated (Lowe et al., 2007) | Downregulated |

*Data were obtained from the Pancreatic Expression Database v3.0 (available at http://www.pancreasexpression.org; 2019) and the Pancreatic Cancer Database (available at http://pancreaticcancerdatabase.org; 2019).

**Table 21. Classification of genes deregulated by Ocoxin according to their molecular function.**

| Molecular function | Genes |
|---|---|
| Binding (GO:0005488) | 61 |
| Catalytic activity (GO:0003824) | 45 |
| Transporter activity (GO:0005215) | 18 |
| Molecular function regulator (GO:0098772) | 15 |
| Transcription regulator activity (GO:0140110) | 13 |
| Molecular transducer activity (GO:0060089) | 12 |
| Structural molecule activity (GO:0005198) | 3 |

**Table 22. Classification of genes deregulated by Ocoxin involved in biological processes.**

| Biological Process | Genes |
|---|---|
| Cellular process (GO:0009987) | 92 |
| Biological regulation (GO:0065007) | 65 |
| Metabolic process (GO:0008152) | 60 |
| Response to stimulus (GO:0050896) | 35 |
| Signaling (GO:0023052) | 28 |
| Localization (GO:0051179) | 26 |
| Multicellular organismal process (GO:0032501) | 19 |
| Cellular component organization or biogenesis (GO:0071840) | 18 |
| Developmental process (GO:0032502) | 14 |
| Multi-organism process (GO:0051704) | 3 |
| Biological adhesion (GO:0022610) | 2 |
| Immune system process (GO:0002376) | 2 |
| Locomotion (GO:0040011) | 2 |
| Behavior (GO:0007610) | 1 |
| Cell population proliferation (GO:0008283) | 1 |
| Reproduction (GO:0000003) | 1 |
| Reproductive process (GO:0022414) | 1 |

### 2.1.4. Ocoxin enhanced the effect of the chemotherapeutic agents paclitaxel and gemcitabine on murine pancreatic cancer cell viability.

As reported in the previous results, Ocoxin decreases cell division rate and viability in PCA cells. In line with this, we studied whether Ocoxin could enhance the effect of the chemotherapeutic agents paclitaxel and gemcitabine used routinely in clinical practice. To that end, first of all, the viability of the murine PCA cells was measured after the treatment with increasing concentrations of paclitaxel (1 - 25 µM) and gemcitabine (200 - 1000 nM) separately in order to select the most effective dose. As shown in figure 19, paclitaxel reduced cell viability by 20 % approximately with all the proven concentrations and those cells treated with 200 nM, 500 nM, and 1000 nM of gemcitabine showed a viability decrease by 18 %, 28 %, and 50 % respectively.




**Figure 19. Viability of 266-6 cells treated with increasing concentrations of paclitaxel and gemcitabine.** Murine PCA cells were treated with increasing doses of paclitaxel and gemcitabine and cell viability was quantified 48 hours later. Significances were expressed as *p<0.05 comparing the different treatments versus untreated cells according to the Student's T-test. *GCB: Gemcitabine; PTX: Paclitaxel; Untreated: Ø.*

Taking this results into consideration, on the one hand, the highest dose of gemcitabine was chosen for further studies and on the other hand, as paclitaxel showed the same cytotoxic effect with every dose, the lowest concentration was selected. Hence, the most effective doses, which were paclitaxel 1 µM and gemcitabine 1000 nM (1 µM) were used combined with Ocoxin to treat 266-6 cells. Although at first we used the 1:100 ($V/V_f$) dilution, here we represent the results obtained when using the 1:50 ($V/V_f$) dose of

Ocoxin, which showed higher effectiveness. The addition of the nutritional supplement as a coadjuvant to paclitaxel showed that Ocoxin increased the effect of the chemotherapeutic drug by 19 % regarding cell viability, while no differences were detected with gemcitabine or paclitaxel plus gemcitabine treatments (Figure 20). Moreover, the combination of both chemotherapeutic drugs enhanced the cytotoxic effect of paclitaxel alone but did not increase the effect of gemcitabine.




**Figure 20. Viability of 266-6 cells treated with Ocoxin as a complement to paclitaxel, gemcitabine and the combination of both chemotherapeutic drugs.** Murine PCA cells were cultured for 48 hours with 1 µM of paclitaxel, 1 µM of gemcitabine or the combination of both, alone or in the presence of 1:50 ($V/V_f$) of Ocoxin. Significances were expressed as *$p<0.05$ in comparisons between the treatment alone versus the treatment with Ocoxin or as #$p<0.05$ in comparisons between the chemotherapeutic drugs paclitaxel or gemcitabine alone versus the mixture of both according to the Student's T-test. *GCB: Gemcitabine; OOS: Ocoxin; PTX: Paclitaxel.*

## 2.2. Effect of Ocoxin in human pancreatic cancer cells.

### 2.2.1. Ocoxin reduced the viability of human pancreatic cancer cells.

After assessing the cytotoxic potential of Ocoxin in murine PCA cells, its effect on the viability of 6 different human PCA cell lines (BxPC-3, Capan-2, CFPAC-1, HPAF-II, Panc10.05 and SW1990) was studied. The assay revealed the same as in the murine cell line, Ocoxin reduced cell viability in a dose-dependent manner except in HPAF-II and SW1990 cells (Figure 21). Moreover, the compound did not affect significantly to BxPC-3 until the 1:200 ($V/V_f$) dilution, to Capan-2 cells until 1:100 ($V/V_f$) and SW1990 until the 1:50 ($V/V_f$) dose being that one the most effective dilution in all the cell lines. According to the results, the 1:50 ($V/V_f$) dose of Ocoxin decreased cell viability by 90 % in

BxPC-3 cells, 70 % in Capan-2, 60 % in CFPAC-1, 75 % in Panc 10.05 and 60 % in SW1990 cell lines but only 37% in HPAF-II cells (Figure 21).




**Figure 21. Viability of human PCA cell lines treated with different dilutions of Ocoxin.** BxPC-3, Capan-2, CFPAC-1, HPAF-II, SW1990 and Panc 10.05 cell lines were treated with increasing dilutions of Ocoxin for 48 hours. Significances were expressed as *p<0.05 comparing the different treatments versus untreated cells according to the Student's T-test.

### 2.2.2. Ocoxin raised apoptotic levels of human pancreatic cancer cell lines.

Bearing in mind that Ocoxin potentiates the cytotoxicity of paclitaxel and gemcitabine against cancer cells, a cell death assay was performed by flow-cytometry using Annexin V/PI staining in order to confirm if viability reduction was accompanied by a rise of apoptotic levels after culturing cells with the 1:50 ($V/V_f$) dose of Ocoxin for 48 hours. Figure 22 shows that the compound increased apoptotic cells substantially by 60 % in BxPC-3 and Capan-2 cell lines, 35 % in CFPAC-1, 22 % in SW1990 and 6 % in Panc 10.05 cells. Apoptotic levels of the HPAF-II cell line were not analyzed due to the high mortality rate of these cells during the process. Data were represented as the mean value ± SD of at least 3 independent experiments.




